

Goienkaria

2009ko ekainaren 5a > Egubakoitza > IX. urtea > 379. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Zubietan
inbertitu egin
behar dugu;
hori izango
da gure
lehentasuna"

Juanjo Arrieta
Realeko zuzendaritzako
kidea > 33

G2a

Gosekoak pozik
Kurdistanik
bueltan > 37

EKONOMIA
Industrialdeak egiteko proiektuak
geldi daude, krisia dela-eta > 02-03

HAUTESKUNDEAK
51.476 debagoiendarrek bozkatu
ahal izango dute domekan > 04

ZERBITZUAK
Astelehenean hasiko da lanean
Aretxabaletako nagusien egoitza > 05



LELOA Obatu aukeratu du lelotzat Bergarako San Martin eskolak; irudian eskolako ikasleak leloa onto obatzen.

SAN MARTIN ESKOLA

HEZKUNTZA > EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Euskal Eskola Publikoaren jaia ospatuko dute domekan Bergaran

LAU GUNE 11:00etan hasiko da jaia, San Martin eskolan, eta egun osoan izango dira ekintzak, lau gunetan banatuta

ANIZTASUNA Euskal Eskola Publikoaren kultura arteko izaera eta izaera euskalduna plazaratuko dituzte

EKITALDIAK Askotariko musika saio eta ikuskizunak izango dira, familia osoak ondo pasatzeko modukoak > 23-26

KIROLA > AUTO LASTERKETA

**Gorlako auto
igoera izango
da bihar**

Gorlako Igoeraren 18. edizioa izango da biharkoa (16:00). Iaz ez zen probarik egin, baina, lan handia egin eta gero, berreskuratu egin du autozale talde batiek. Zortzi debagoiendarrek hartuko dute parte lasterketan. > 35

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Elkarriketa > 09
Gutunak > 07-08
Herriak > 12-32
Kirola > 34-36
Kultura > 38-39
Sailkatuak > 40
Gazteak > 42
Telebista-Irratia > 43
Berri-zakua > 44
Eskelak > 44
Zerbitzuak > 45
Non-zer > 46-47



EKONOMIA > ENPRESA

**Arcelorren
EREak ez du
Bergaran
eragingo**

Estaturako onartu den
EREa malgua da eta
oraingoz ez da
Bergaran ezarriko > 05

obatu

Euskal Herriari
munduari
euskal eskola publikoari

aralar

EKONOMIA > INDUSTRIAGUNEAK

Industriagune berriak egiteko, garai hobeen zain Debagoiena

GELDIALDIA Krisiaren eraginez, iaz industrialdeak egiteko zeuden zortzi proietuetatik, Bergarakoak bakarrik doaz aurrera; besteak zain daude

BERRITASUNA Teknologia eta ikerkuntza arloan bada mugimendu handiagoa, bai Garaia gunean zein ohiko industriaguneetan, apurka

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Krisiak eragin die ere Debagoieneko industriaguneei. Orain urte bete pasatxo, denetara zortzi industriagune berri egiteko eta, beste kasu batzuetan, lekualdaketak eta industriaguneon bir-moldaketak egiteko asmoa zegoen. Bada, orduko asmoak horretan, asmoetan, geratu dira, diru faltak eta ekonomiaren geldialdiak itota. Bakar-bakarrik Bergaran jarraitzen dute industriagune berri bat egiteko lanek; beste herri batzuetan, erdizka gelditu dira proiektuak, garai hobeen zain. Bestalde, gaur egun dauden industriaguneak ere egonkor daude, orokorrean ("eta egonkor izatea ere bada nahikoa", arduradun baten esanetan), nahiz eta enpresa batzuek itxi egin duten eta beste batzuk lekuz aldatu diren. Gorabehera horiek alde batera, orokorrean, industriaguneen garapena, enpresendako kokapen eta garapen leku moduan, atseden behartuan dago.

"KRISIAK DENA GELDIARAZI DU"
Oñatioko sarreran, Urbietako industriagune izan behar deneko urbanizazio lana bukatuta dago, baina aurrerapauso gehiago ez da egon. "Orain, Udalak eraikitzeko proiektuak jaso, baime-nak eman behar ditu... baina kri-siak dena geldiarazi du", onartzen digute Udal Hirigintza Sailean. Oñatin jarraituz, Zubillagan Zugastui industriagunea egitekoak dira, baina hori oraindik gutxiago garatu da: birpartzelazio fasean dago. Oñatin lau industriagune daude gaur egun, gehienak herriko enpresekin.

Aretxabaletan ere lokartuta geratu dira azkenaldian Udalak eta Copreci kooperatibak zeuzka-

Bergaran, Larramendi industrialdea doa aurrera; urbanizazio lanak abendurako bukatzea aurreikusten dute

Aretxabaletan, Copreci lekuz aldatu gura zuten Udalak eta enpresak, baina lekualdatze kostuak handiegiak dira orain aurre egiteko

ten asmoak: hain zuzen, Copreci leku egokiago baten jartzeko asmoa, modu horretara gaur egun erdigunean geratu den enpresa handi horri eta inguruko bizilagunei lasaitasun handiagoa emateko. Finantzaketa falta da hemen ere arazo: "Lekuz aldaztareen kostua oso-oso altua da, eta jo ditugun ate guztietan esan digute inbertitzeko dirurik ez dagoela. Beraz, oraingoz asmo hori airean geratu da", diosku Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok.

Hori bakarrik ez; Aretxabaletako Basabe eta Bainuetxe industriaguneei hirugarren bat gehitzeko proiektua ere etorkizun urrutirako izango da: "Hirigintza Plan Nagusian aurreikus-ten da beste gune industrial bat, baina, momentu honetan, ez da lehentasun bat", dio Garrok.

Aretxabaletako Basabe industriagunea hutsago geratuko da laster, Azbe lantegia itxi egingo dutelako; horrez gain, Aluminios de Precision joan egin zen.

ASMOAK, LOKARTUTA
Oñati eta Aretxabaleta Debagoieneko Industrialdea enpresan daude, udalen, Spri Lurren eta Foru Aldundiaren parte-hartzearekin. Baina bestelako iniziatiabak ere egon dira, horietako asko udalen aldetik. Hala izan da Elgetan, adibidez. Han, Pagatzako eta Berraondoko industriaguneak daude. Pagatzakoak 100.000 metro koadro hartzen zituen, eta beste 81.000 gehitu zizkioten 2006an. Bergarako bidean Iburuerreka eremua dago, baina gaur egun ez dago aktibitaterik han. Oraingo, Elgetan ere industriaguneen garapena izotzta geratu da halabeharrez.



Argazki nagusian, Eskoriatzako Torrebaso industrialdea; ondoan, Labegarieta

Eskoriatzako Industrialdearen egoera kezkagarria da; joan den astean, Eskoriatzako Udalak beste finantzaketa partida bat onartu zuen industriagune horrendako, baina Udalaren helburua da Debagoineneko Industrialdeak har dezala haren ardura, eta horretan dabilta. Eskoriatzako Industrialdeak zorrak dakartha 2005. urtetik.

Bergara da, momentu honeitan, industriagune tradizionalei dagokienez bailaran mugimendu handiena duen herria. Han, hiru industriagune daude aurreikusita, eta fase desberdinetan daude; batzuk ia bukatuta ere bai. Hala, Larramendi da San Juango industriagune berria, 300.000 metro koadroko eta Spri Lurrekin aurrera eramandakoa. Orain, urbanizatzen dabilta, eta 2009ko abendura arteko epea daukate lan hori bukatzeko.

Mekolaldeko industriagunean, Lazpiurrek lantegia handitu du eta beste bi lantegi han jarri dituzte, baina pabiloi gehiago dago saltzeko.

Azkenik, Ipiñarri zerrategia-ren atzean, Kukubaso izeneko eremuau egingo dute hirugarren industriagune bat. Horrenbestez, Bergarak hamar halako gune izango ditu. Azken urteotako garapenean, industria erdigune-tik ateratzen jarraitu du Udalak, eta barruan libre geratzen ziren lurrei kalifikazioa aldatu die, bizi izateko kalifikatuz.

Arrasaten, sei industriagune handi daude, eta beste hiru guneko industria-mapa berrantolatzea jasotzen du Arrasateko Plan Orokorrak: Emaldin, Matz-Errekan eta Zalduspen. Edozelan ere, oraingoz ez dago alde horretatik ezer berririk. Azkenaldian, Markuleteko industriagunean izan da berritasun gehien, Fagor Ederlanek eraiki zuen egoitza eta galdegiarekin, 60 milioiko inbertsioa eginda. Gainera, Markuleten oraindik ere badago enpresa gehiagoren dako lekua.

Antzuolan ere, industriagune berriak egiteko asmoak epe luzerako dira. Oraingo, Goizper eta Balzers-eko eremuak,

**KIROLA
LAN2DE?**

2.0 PROFESIONALAK



(Bergara), Basabe (Aretxabaleta) eta Garaia (Arrasate).

GOIENKARIA

Koldo Azkoitia > Mankomunitateko Garapen Agentziako arduraduna

"Industriaguneetan, prezioa da faktore garrantzitsua"

L.K. > ARRASATE

Debagoineneko Garapen Agentziako Koldo Azkoitiak dioenez, udalek eta kudeatzaileek prezio lehiakorrik eskaini behar dizkiete enpresei industriaguneetan ezartzeko.

Ze unetan dago Debagoineneko garapen industriala?

Krisiak denetan du eragina, eta enpresak handitzea eta kokapen berriak bilatzea ere eten egin da. Dena dela, krisi garaiak egokiak dira beti industria-lurra kudeatzeko.

Debagoinen lanetan dugu soberan, eta hori arazo larria da, industriaguneak egiteko hiru prezio-faktore daudelako: lurra, urbanizazio kostuak eta eraikuntza kostuak. Aipatutako lehen bi faktoreek eragiten digute guri gehien. Erakundeek eta eskualdean ardura hori dutenek kontuan hartu behar dute hori, eta, beharbada, garai hauetan eman beharko lirateke pausoak industriaguneen kokapen estrategikoa egiteko. Ez da erraza, baina etorkizunari begira aztertu egin beharko da zeintzuk diren kokapen



LEIRE KORTABARRIA

onenak.

Egungo industrialde ereduarekin jarraitu ala berrasmatu egin behar da?

Daukagun lur gutxia kudeatu egin beharko litzateke, produktua ahalik eta prezio txikienean eskaini ahal izateko; eta, bestetik, bida alternatiba bat, gaur egun industriagune zaharrak direnak berrantolatzeko. Egoera horretan ez daude poligono asko, baina zerbaite egin daiteke. Baina, gero eta gehiago, erantzunak individualak izan behar dira: enpresen arazoak eta eskaerek udalen eta garapen industrialaren kudeaketa-eragileen lan koordinatua eskatzen dute.

Debagoinen oraindik erakargarria da enpresendako?

Oraingoa ondo dago. Hirugarren arloko zerbitzuetara gero eta gehiago jotzeko joera dago, eta hor pauso onak eman dira, Garaia eta beste hainbat ekintzarekin. Baina ez da ahaztu behar gure ekintza nagusia industria dela, eta eskaintza eta leku egokia behar duela; horretan, prezioa da faktore garrantzitsua bat.

Lizarraga eta Matz-Erreka industriaguneak daude, eta beste gunetako 15 bat enpresa daude han -Mondragon Korporazioko Edertek ikerkuntza eta berritasun enpresa, Microsoft, Ikerlan-IK 4, LKS...-, eta gehiago ezartzea aurreikusten da. Hala, iazko ekitaldian 32 milioi euro fakturatu zituen Garaiak.

Onhatin ere CUT (erdarazko sigletan, Unibertsitate eta Teknologia Hiria) proiektua dago, eta herri sarreran Ulma Taldearen bi egoitza kokatu dira eta oraindik 1.500 metro koadroko beste partzela bat dago. CUT proiektua lehenengo fasean dago ere, baina, Hirigintza zinegotzi Angel Biainen esanetan, "hara joateko baldintza bat hori da, hain zuzen, teknologia eta berrikuntza enpresek izatea".

Gune horiek espreski mota horretako jardueretarako izan arren, ez dira ekonomia arlo horren ostatu bakar Debagoinen; apurka-apurka, betiko industriaguneak ere teknologia, ikerketa eta berrikuntza enpresek hartzen doaz.



ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

2.0 PROFESIONALAK



ERIDI MAILAKO ZIKLOAK

ERIZAINTZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

AURREMatrikula EKAINAREN 1 ETIK 12RA

DOHAINIK

GOI MAILAKO ZIKLOAK

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA

GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA

OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA

A PRO
Arizmendi
ikastola

EUROPAKO LEGBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2009



Iniziatica Internazionalistaren aldeko bota eskatu zuten bailarako 60 bat udal ordezkari eta herritarrek Bergaran. A.E.

INIZIATIBA INTERNAZIONALISTA > PRENTSAURREKOA

Hauteskundeen garrantzia azpimarratu zuten Bergaran

Ezker Abertzaleko ordezkariek Alfonso Sastreren aldeko bota eskatu zuten

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Europako hauteskundeek etorkizun hurbilean duten garrantzia azpimarratu zuten ezker

abertzaleko kideek Bergaran egindako bailara mailako ekitaldian. Hauteskundeok "bloke independentista" sendotzen lagunduko dutela eta "komunitate internazionalaren implikazioa" lortuko dutela esan zuten.

Horregatik, ezker abertzaleak Iniziatica Internazionalista-Herrien Elkartasuna koalizioak aurkeztutako manifestuarekin

bat egiten duela esan, eta haren aldeko bota eskatu zuen.

IBARREKO ORDEZKARIAK

Bergaran egon ziren Arrasate, Bergara, Antzuola eta Elgetako udaletan ezker abertzaleak dituen ordezkariak. Euskal Herriak jasaten duen "egoera ez demokratikoagatik" eskatu zuten Sastreren aldeko bota.



2009^{ko} NAZIOARTEKO PROGRAMETAKO DEIALDIA PARTAIDEENTZAKO LAGUNTZAK

Ingalaterra, Alemania, AEB, Frantzia, Kanada, Italia...

Erasmus, Sokrates edo Leonardo bezalako nazioarteko programetan parte hartzen dutenei kuxaren **Gizarte Ekintzak** lagunza ematen die urtero. Zeinahi dela ere zuk aukeratutako herrialdea, hauxe duzu laguntzari buruzko informazioa jaso eta eskabidea egiteko unea.

Laguntzak eskatzeko epea: 2009ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era arte.

jakin behar duzun guztia hemen
www.gaztekutxa.net



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

HERRIEN EUROPA

Eredu ekonomiko berria, aldarri

L.ZEBERIO/A.E. > ARRASATE

Europako ezkerreko politikak ezartzearen beharra azpimarratu zuen Iñaki Irazabalbeitia Arrasaten martitzen goizean. Modu horretan eredu ekonomiko berria bultzatu, giza eskubide guztien defentsa egin eta diplomaziaren indarra sustatuko dutela gaineratu zuen. Independentistak eta ezkerriarrak koalizioko Euskal Herriko zerrendaburu da Iñaki Irazabalbeitia.

GARRANTZIA

"Erabakiak betikoek harten jarrai ez dezaten" bota ematera joateak duen garrantzia azpimarratu zuen Irazabalbeitia Arrasaten. Horren harira, Europarlamentari abertzalea, progresista eta ezkertiarra bermatuko duen aukera bakarra" direla azpimarratu zuen Iñaki Irazabalbeitia.



Irazabalbeitia eta Hernandez. L.Z.

DATUAK

Ibarrean 85 mahai jarriko dituzte

A.E. > BERGARA

Domekako hauteskundeetan 51.476 debagoiendarrek dute bota emateko eskubidea. Goizeko bederatzietatik arratsaldeko zortziak arte egongo dira eskolak herritarrentzat zabalik.

Guztira 85 mahai jarriko dituzte ibarrean: Arrasaten 33 mahai, Bergaran 19, Oñatin 16, Aretxabaletan 7, Eskoriatzan 4, Antzuolan 2, Aramaion 2, Elgetan bat eta Gatzagan beste bat.

736 PARLAMENTARI

Europako hauteskundeetan 736 parlamentari aukeratuko dira; baina, behin Lisboako Ituna onartuta, 754 izatera pasako dira. Bien bitartean behatzale izango dira hautatu horiek, baina hauteskundeak ez errepikatzeko erabiliko da modu hori. Onartzen bada, 2010ean sartuko da indarrean ituna. Espainiako Estatuan 50 parlamentari aukeratuko dira domekako hauteskundeetan.

EHNA AURKEZTEKO DEIA

Bai Euskal Herriari herri ekimenak dei egin du domekan EHNArekin bozkatzea joateko. Euskal herritarrei bat egiteko eskatu die, modu horretan euskaldunon nortasuna eta identitatea agertzeko. Gainera, Euskal Herriak bizi duen egoera ez demokratikoa salatu du ekimenak.

> POLITIKA

Iñaki Galdos buru duen EAko sektore kritikoak alderdi berria sortuko du urtearen bukaerarako

Iñaki Galdosek eta sektore kritikoko beste zenbaitek Alkarbide alderdi politikoa eratuko dute urtearen bukaerarako. Hain ustez, sorreko oinarriarietik aldendu egin da EA. Ohar bidez, Zarautzen bileran egin ostean jakinarazi zuten erabakia. Gipuzkoako EAko zuendaritzako hamabost lagunek sinatu dute oharra; besteak beste, Iñaki Galdos EAko presidenteak. EAko sortzaile izan zirenek, Garaikoeetxek eta Intxaurragak, esaterako, gogor kritikatu dute erabakia.

> LANGABEZIA

Debagoienean maiatzeko langabezia maila 0,27 puntu jaitsi da apirileko tasarekin alderatuta

Maiatzean, Debagoienean, 3.358 langabe zeuden erregistratuta; apirilean baino 85 langabe gutxiago. 2009ko orain arteko hilabeteen artean, urtarrilak bakarrik hobetzen du maiatzeko langabezia maila. Herrika, Eskoriatzak du langabezia maila handien (% 12,75) eta Aretxabaleta eta Arrasate daude zerrendan hurrena. Elgeta dago egoera oneneara: langabezia maila %8 azpitik duen ibarreko herri bakarra da.

OSPAKIZUNA > ELKARTASUN EGUNA

Dena gertu dago Elkartasun Eguna beti bezala ospatzeko

Dignidad y Justicia biktimen elkarteaek ekintzak debekatzeko eskatu du, baina antolatzaileek, Portaloria Elkartea, ez dute berri ofizialik

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE
Bihar presoen senideenganako Elkartasun Eguna ospatzeko geru dago dena Arrasaten, Portaloria Topagunearen esku. Lau garren aldia izango da eta, eurek martitzen arratsaldeko aurkezpenen esan zuten moduan, "beti bezala, adin eta mota askotako herritarrei zuzendutako jaieguna izango da". Helburua da presoen senideen oinarritzko eskuideak babesteko eskatzea.

Jai giroa zabaldu gura dute, hortaz, Portaloria elkartekoek, eta egun hori "normal-normal, beste urteetan bezala" ospatzeko asmoa dute. Hala, joan den astean Dignidad y Justicia terrorismoaren biktimen elkartea

Espaniako Auzitegi Nazionalean ekintza guztiak debekatzeko eskaera aurkeztu izanaz hauxe diote: "Guk jarraitzen dugu jakinarazpen ofizialik jaso gabe. Hori jasotzen dugunean hartuko dugu behar den erabakia; bitartean, gu

ESANAK

"Jakinarazpen ofizialik jaso arte, guk normal-normal ospatuko dugu Elkartasun Eguna"

Portaloria Topagunea

aurrera goaz Elkartasun Eguna-rekin", dio topaguneak.

Elkarteari galdetuta azkenaldian Ertzaintzak presoen irudiak, kartelak eta kaleko bestelako adierazpenak kentzeaz -azkenetako bat Bergarako Pazko jaietan gertatu zen, lauzpabost furgoneta agertu zirenean eta ertzainek txosnagunean eta beste zenbait tokitan horiek kendu zituenean- eta ea halakorik geratzea espero duten, hauxe erantzun dute: "Kalean-eta irudiak badaude, jendeak ipinitakoak dira eta ez dira gureak izango".

EGUN OSOAN EKINTZAK

Biteri plazan umeendako ekintzak izango dira (11:00); kale animazioa (12:00); herri bazkaria Biteri plazan -txartelak salgai daude bailaran- (14:30); eta musika emanaldiak (17:00-20:00). Euria egiten badu, gaueko kontzertua Iturripe frontoian izango da.



Egitaraua aurkeztu zuen martitzenean Portaloria Topaguneak.

EKONOMIA > ARCELOR

Bergarako lantegian ez du eraginik izango Arcelorren enplegu erregulazioak

Estaturako onartu den EREa malgua da eta oraingoz, behintzat, Bergaran ez da aplikatuko

TXOMIN MADINA/L.K. > BERGARA
Bergaran Arcelor-Mittalek duen lantegian ez du eraginik izango, oraingoz, behintzat, Estatu osoko lantegiendako onartu berri den Enplegu Erregulazio Espedienteak (ERE). Halaxe esan du Debagoieneko LAB sindikatuak.

Lan Zuzendaritza Orokorrak martitzenean onartu zuen Arcelor-Mittalek aurkeztutako aldi

baterako enplegu erregulazio espedientea. Enpresak Estatuan dituen 17 lantegietako 12.000 langileendako aurkeztu zuen EREa, eta urte amaiera arte egongo da indarrean, bost hilabetez luzatzeko aukerarekin. Akordioak jasotzen du ere eraginpean dauden langileek soldataren %90 kobrazea. Hala ere, expedientea malgua da, lantegi bakoitzeko egoe-

raren eta lan eskaeraren arabera aplikatuko delako, eta badirudi malgutasun horrekin jokatu dutela Bergarako lantegiaz era-bakitzeko.

Arcelor Mittalek zehaztu dueñe, gainera, EREak lantegi guztietako langile guztien lan orduen %40ean, gehienez, eragingo du.

ZUMARRAGARA LANERA

Hortaz, orain arte bezala jarraituko dute lanean Bergaran. Zuzendaritzak baiezta egin du Bergarako lantegian dagoen altzairu fabrika behin-behinekoz ixteko asmoa dagoea, eta Bergaran horretan lanean dauden 60 langile inguruk Zumarragara joan beharko luketela laneera, Zumarragan duten altzairu fabrikara; baina LABek dio oraindik ez dietela erabaki hori ofizial egin.

etxeko leihotik



Monika Belastegi > 'mbelastegi@goina.com'

Kultura aniztasuna euskal eskolaren jaian

Uskal Eskola Publikoaren aldeko jaia ospatuko da Bergaran domekan, San Martin eskolak antolatuta. Jai egunaren leloa obatu da, eta hain bergararra den hitz horrekin, gonbidatu nahi dituzte herritarra Euskal Eskola Publikoari heltzera.

Bada, Euskal Eskola Publikoa bultzatzearekin bateria, eskolak daukan kultura arteko izaera zein izaera euskalduna plazaratu nahi dituzte antolatzaileek domekako jaian. Iruditzen zait ez dela erronka makala, oro har, esku artean daukatena eta aldi berean guztiok duguna; hau da, euskal kultura bultzatzea, eta horrekin batera etorkinei era-kustea gure kultura eta izaera zeintzuk diren, eureka ere errespetatuz.

Domekan Bergaran hainbat herritatik etorritako haur eta gurasoak batuko dira ikasturte amaiera ospatzeko eta San Martin ikastetxeok antolatutako ikuskizunei errepaturaz gero, bultzatutako helburuak betetzeko aukera asko daudela uste dut.

Bestalde, eskola publikoak arduradun berriak ditu aurten eta espero dezagun Bergarako antolatzaileek proposatutako leloari jarraitzea, euskal kulturak asko eskertuko du-eta. Gainerakoei dagokigunez, domekan jai giroari sendo obatuko diogu Bergaran, euskal hezkuntzaren alde horrelakoak egitea garrantzitsua delako.

> Alkarbide

Inor ez da harritu EAn eman den banaketarekin. Garaikoetxeak ere esan du "prozesu baten amaiera" izan dela eta gehitu du, "jarrera politikoak argitu" egiten dituela. Zenbat denbora beharko da Alkarbidekoek EAJn buatzeko?

> Lotsagabea

Cañizares kardinalak lasai asko esan du haurrek bortxatzea baino kontu larriagoa dela abortua. Irlandan 2.000tik gora lagunek egindako salaketaren aurrean lotsatu beharrean... Halakoengandik hobe urrun.

> ZERBITZUAK

Arduradunek diote astelehenean hasiko dela lanean Aretxabaletako nagusien egoitza berria

Gutxienez astebete itxaron beharko da Aretxabaletako nagusien egoitza berria lanean hasi arte. Astelehenerako zegoen aurreikusita ateak irekitzea eta Urats Gain egoitzako bizilagunak egoitza berriera pasatzea, baina, azkenean, egoitza berria egiteko lanak atzeratu egin dira. Oraingo astean ziren eraikin berriari azken azterketak egitekoak. Arduradunek esan digitenez, litekeena da aldaketa astelehenean egitea.

> INGURUMENA

Hondakinak mankomunitate bakoitzak kudeatzea eta tratatzea proposatzen du Aralarrek

Errausketari alternatiba gisa, mankomunitate bakoitzak bere hondakinak kudeatzea eta tratatzea proposatu zuten Debagoieneko Aralarko Rebeka Ubera, Inaxio Garro eta Joxe Anjel Antxiak joan den eguztenean, prentsurrekoan. Gaurko edukiontziei eta konpostaje plantari "gehutuko genioke zabor masiboarentzat tratamendu termiko-mekanikoa eta gasifikazio planta", esan zuten.



zabalik

Mikel Lezamiz

Militarrak eta baloreak

Duela gutxi Madril aldeko Hoyos de Manzanareseko eskoila publiko batek ikasle bidai bat egin zuen militarren kuartel bat bisitatzen, eta AH1N1 gripearekin kutsatuta zeuden militar batzuek koarentena gorde behar zutela eta bertan zeuden akuartelatuta, eta kristoren iskanbila sortu zen gurasoak enteratu zirenean gripea hartzeko arriskuan jarri zituztela-ko beraien seme-alabak.

Baina inor ez zen harritu eta kritikatu zer nolako baloreak ari zitzazkien bultzatzen eskola horretan. Ala zuok onartuko zenuke zuen umeak kuartel militar bat bisitatzen joatea? Eta eskolako maisu-andereñoei nola okurritu zitzainen bidai hori antolatzea? Zein balore bultzatu nahi dute ikasleengan? Elkartasuna, autonomia, lankidetza, errespetua, erantzukizuna, jarrera kritikoa, ingurunearen errespetua, aniztasuna, bakea eta horrelako baloreak bultzatu beharko liratzeke eskolan eta ez gerra egiteko armen erakusketa. Baino nola liteke 21. mendean militarren kuartel bat erakustea umeei eta armen beharra eta autoritarismoa bultzatzea?

Eta militarren aldetik ere iku- si zen nolako erresponsabilitate soziala daukaten, gripearen gaixotasunaren arriskua isilduz eta osasungintzako instituzioei ezer esan gabe geldituz. Costa Rica eta Islandia herrialdeak gustatzen zaizkit militar indarrik ez baitaukate eta haien aurrekontua kultura eta heziketara dedikatzen dutelako. Zeuok era- baki nolako baloreak bultzatu beharko genituzkeen gizartean, eta batez ere, gure umeen artean.


usteak uste

Mireia Bikuña

Debako hondartzaren gainean

Aurreko asteko zapatuan Debako hondartzan egon ginen. Koadrilakoak urtero joaten dira Debara (Oñati- tik oso gertu dago), baina ni aspaldi egon barik nengoen. Zailena autoa aparkatzea izan zen; baina beste guztia eskura duen hondartzza da Debakoa. Ogitartekoak jateko aukera asko daude, eta etxetik bazkaria eroaten dutenendako berdegunea du albo batean. Gainera, etxera garbi-garbi joateko, ur beroarekin dutxatzeko zerbitzua ematen dute. Bikain!

"Nola liteke 21. mendean militarren kuartel bat erakustea umeei eta armen beharra bultzatzea?"



blog-top

Euskal kantagintzaren egoera penagarria

Mikel Iturria
www.eibar.org/blogak/iturri

Kristo guztiak Bartzelona-Manchester norgehiago-ka ikusten zuen bitarte-an, Jabier Muguruza Donostian egon zen musika sorkuntzari buruz hizketan Literaktum jaialdian. Dirudinez, gaia ez zaio jende askori interesatzen, baina amaiera aldean egondako debatea ekarri nahi dut gogora: euskal kantagintzaren egoera.

Jabierrek berak esan zuen kezkututa zegoela eta Joseba Tapiaren hitzak aipatu zituen: "kantagintza hilzorian dago gure herrian" (...).

Jendartean geunden batzuk esan genion ea bitartekaririk gabe ez ote zen errazago izango. Nik esan nion badagoela musikari euskaldunen bat oso gustura mugitzen dena diskoko auto-produzituta munduan barrena (eta ez nintzen bere anaiaz ari).

Baina berak ez du gaia horrela ikusten. Uste du errespetua galdu zaiola abeslariari. (...)

Bukatzeko, duela gutxi Xabier Leteri eginiko elkarritzetan, honek esandako hitzak ere errepikatu zituen: Ez Dok Amairu mugimenduaren garaian erabilita sentitu zirela. "Aitzakia hutsa ginen".

Izuen edalontzia

Anjel Lertxundi
www.berria.info/blogak/lertxundi

Europarrok beste inork baino izu gehiago omen diogu etorkizunari. Globalizazioa edo aldaketa klimatikoa edo segurtasun falta edo terrorismoa bezalako faktoreek ondo beteta baldin bazeukaten ere gure izuen edalontzia, ditxosozko krisi ekonomikoak gainezkatu egin omen du gure izuen ontzi kristalezkoa. (...)

Europarrok beste inork baino izu gehiago omen diogu etorkizunari. Munduak gutaz errukiutu beharko luke.

koplak

Eñaut Uriarte

Zuri begira

Zureganako sentimentuak jada ezin dittut izkuta larrugoritza daukat bihotza maititasunak biluztuta.

Irribarre aparta daukazu zinez emana, sakona eskerdu eitten da jakinda / hor be krisi handixa dagona.

Gaztain kolore ederra dauke zeure buruko harixek hargatik bista galdu ein dabe aspaldi nere begixek.

Pelukerua izan nahi neuke hori daukat aitortzeko zeure ile polit horren barrena neure bihatzak galtzeko.

Ondoren zure bi diamanteak daudela neri begira bihotz erdixan tatuatuko dot nik neuk beraien dizdira.

Lepoz gorako deskribapena eitteko hartu dot beta Neskatxa baten edertasuna aurpegixan dago eta.

Goienkaria

Argitaratzailea Goien Komunikazio Berzitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendarri nagusia Iñazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktoreburua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urzelai (Kirola), Edi Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarrizko diseinua Goi Arana Maketazioa (manol Soriano Publizitatea) Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziorra Martín, Ixasoz Bereizbar, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzendaria Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurzane Gañiztaran, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09

Posta-e: public@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.

Goien
Kommunikazio Berzitzuak

OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Garzonkeriak

Mikel Errasti
Aretxabaleta

2012. urtea. Frantziar poliziaren ETaren aukako azken sarekada. Atxilotuen artean, erakundeko buru militarra. Atzemandako datuen arabera, Athletic futbol taldeko bazkidea da eta noizean behin San Mamesera joaten da.

Garzon epaileak autoa ireki du gai honen inguruan. Spainiar komunikabideetara heldutako filtrazioen arabera, atxiloteka ugari egongo dira. Bi aste beranduago Athletic futbol taldeko jokalariak atxilotuak ETaren partaide diren akusaziopean. Eta bazkideen etxeen artean sarekadak eta San Mames inguruko tabernak Guardia Zibilak prezintatuta.

Epaiketa 3 urte barru izango da (2015. urtean) eta ihes egiteko arrisku handia dagoela-eta kartzelaratzea agindu du Auzitegi Gorenak. Bitartean, jokalari bati bere ama hil zaio eta bere lurperatza justu-justu heldu da, Ertzaintzak ez dio familia besarkatzen utzi eta eskuburdinak kendu gabe egon behar izan du kanposantuau. Ondoren, Spainiako Poliziak Andaluzian egokitu zaion presondegira bueltatuko du, bere amari buruz, intentzio txarrez egindako komentarioen artean.

Post-data: Fikzioa? Bada, zoritzarrez horrelako egoerak "normalak" bihurtu dira gure herrian. Athletic taldea izan beharrean beste izen batzuk jartzea besterik ez daukagu. Lerro xume hauen bitartez, nire agurrik eta besarkadarik beroena 18/98 makrosumario zentzugabea pairatu eta pairatzen duten guztiei (bereziki, Jose Luis Elkoro eta Natale Landari).

Udazkenean udaberria

Oxel Erostabarre
(Aralarko koordinatzailea
Gipuzkoan)
Elgeta

Ezker abertzaleko gizon-emakumeok ezin dugu udako hausnarketa eta batzarrek emango duten estrategia politiko-militar berriaren zain egon. Guri dagokigu, eta ez beste inori, epe motz, ertain eta luzera begira aurrera eramanago dugun estrategia politikoa zehaztea.

Ezker abertzalearen gehienagoak ondo daki borroka armatuaren garaia atzean utzi behar dugula. Ez gaude prest armak isildu zain egoteko. Ez dugu estrategia politiko-militarretan sinesten, ekimena hartu behar dugu; ekimen politikoa. Udaberria zetorrela agindu zuten

azkenekoan, udazkena etorri zen kolpera, kolpeka. Udzazken berria badator, erakundeak argi eta garbi borroka armatua behin betiko uzten badu etorriko da. Euskal Herriko abertzalegoak, ezker abertzale politikoak, presoek eta biktimiek, eta Euskal Herriaren etorkizunak berak, duintasunezko bukaera hori behar dute. Inori kondenaren edo damuaren aitorpen ospetsua eskatu gabe. Herriak behar duen eta eskatzen digun aldaketa etorriko da, estrategia politiko-militar eraginkorra definitzeko hausnarketan dihardutenei itxaroten ez badiegu. Erabaki ausartek ausardia eskatzen dute. Herri ikuspegia izatea.

Aldaketak ekarriko du elkarlana. Elkarren aitortzatik hasita egingo dugu eraginkorra ezker abertzale politikoa. Bide soilik politikoak aldarria eta apustua eraman behar dugu hauteskundeetara, erakundetara, gizartera, kalera, lantegietara eta ikastegietara.

Elkarlanak ematen digu indarra. Abangoardiaren eta lidergoaren helburuen politika maximalistak baztertuz, ezker abertzale politikoak barne egitura guztiz demokratikoa izan behar du. Demokratikoa bere barnean eta bere jokaeretan. Alde batera utzi behar dira gizarteko eragileak erabiltea eta gidatzea.

Dugun egoeratik abiatu, elkar onartu, borroka armatua-

ri agur esan eta abangoardiak alde batera laga. Oinarri horietatik abiatuta independentziara bidea gauzagarrir egitea da ezkerreko abertzaleon erronka. Independentziara bidea esparru subiranistaren esparrua sendotuta bakarrik emango da eta bide horretan ezin dizkiogu ateak inori itxi. Maltzagara arte elkarrekin, etorri gura duen ororekin.

Ezker abertzale zibil, zabal eta euskaltzalean sinesten dugunok lanean jarraituko dugu, udazkenean udaberria etorri dadin. Eta, bitartean, oraingo domekan, ekainaren 7an, Europara eramango dugu ezkerreko independentiston ahotsa, ezker abertzale berriaren ahotsa. Euskaraz mintzatuko den ahotsa.

Herri eta langile zapalduok elkar gaitezen!

Juan Ramon Garai
Arrasate

Ez naiz Ezker Alternatiba Taldeko militantea, baina Europako hauteskunde hauetan Ezker Antikapitalistari botoa ematea eta horren alde egitera erabaki dut.

Dena den, boto emate hori arrazoitu baino lehen, Iniziatiiba Internazionalistari nire zorio-

nik beroenak ematen dizkiot, azkenean hauteskunde hauetan parte hartu dezakeelako.

Zergatik egiten dut Ezker Antikapitalistaren alde? Lehenik eta behin, Ezker Antikapitalista da zenbait herrialdetako erakundeen aliantza batekoa, eduki internazionalista duena: *Nouveau Parti Anticapitaliste*: Frantziar; *Bloco de Esquerda*: Portugalen; *Sinistra Critica*: Italian...

Europa Sozial iraunkor-ekologian- baten alde dagoena, pertsonen alde eta horien oinarrizko premiak asebetetzearen alde, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, zaintza, pentsioak... moduko oinarrizko beharrak betetzearen alde.

Herrien alde dagoena, autodeterminazio eskubidearen aldekoak.

Eskatzen dutenak hautetsien soldatak izan daitezela langileen parekoak eta ez hortik gorakoak.

Bigarrenik, antikapitalismoa hainen jarduera politikoaren ardatz nagusia delako.

Kapitalismoa, Carlos Marx-ek zioenez "azal poro guztiatik odola, izerdia eta neganta isuriz" sortutako sistema eta iraun duen bitartean sortu izan dituenak gerrak eta hondamenak, krisian sartu da.

Eta haren arduradunek: bankariak, kapitalistak, politikariak, diote ez dutela erantzukizunik, eta hori begien (8. orrialdean jarraitzen du)

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA



OÑATIN

Zientzia Teknologia Batxilergoa

Erdi Maila

- Mekanizazioa
- Linea Eroanbideen eta Makinen Mantenu Elektromekanikoa
- Natur Ingurunean Kirol ekintzen gidaritza



Ate irekiak: Ekainak 3, 18:00etan

RM Zuazola - Larraña Institutoa
San Lorentzo, z/g • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 21 50
E-posta: onatikobhi@goieskola.net
www.onati.net



ARETXABALETAN

Erdi Maila

- Soldadura eta galdegarantza
- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Mekanizazioa

AURREMatrikula
Ekainaren 1etik Ekainaren 12ra
Matrikula
Ekainaren 29tik Uztailaren 3ra



ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
E-posta: ia@jaretxabaleta.com
www.jaretxabaleta.com

ikasLAN
Gipuzkoa

(7. orrialdetik dator) bistakoa da, eta saiatzen ari dira berriro ere, langile, emakume, gazteria, etorkinen bidez, aberatsak aberatsago izan daitezen eta pobreak pobreago izan daitezen. Gutxi batzuen asea, gehiengo baten gosoa!

Arrazoi asko dago borrokan aritzeko, nahiz eta oraingo lehendakariak horrela ez pentsatu; beste gauza bat pentsatuko luke zaharren egoitzako zaintzaile baten soldata izanez gero edo langabedian balego ezer koblatu barik.

Izan ere, gobernuetatik bultzatzen ari diren politika publikoak guztiz klasistak dira (bankaren etekinak ziurtatzera zuzenduak) eta oso balio gutxikoak jende kaltetua babesteko.

Eta gainera, patronalak mendira jo du, inoiz baino gehiago, beren mesederako neurriak exijitzeo. Krisi honetako langileen bizkar atera daitezen.

Ez gaude patronalaren eta bankaren itsasontzi berean, eta ez zaigu interesatzen horiekin batera arraun egitea, hemen ez dago diru faltarik, lapurrik daude sobera.

Baina harago begiratu behar dugu bestelako gizarte bat aldarrakatzeko. Esplotazioak eta horren oinarrian dagoen produkzio eta merkataritzaren jabego pribatuak bukatu behar du, eta ekonomia langileriaren kontrolpean jarri, horiek demokratikoki kudeatu dezaten.

Horretarako, borrokatu egin behar da. Borrokatzentz ari gara. Borroka da bide bakarra.

Eta hirugarrenik, proposatzen digutelako ezker berri bat birsotzeko; jakina, ezingo dute hori egin haienak bakarrik, eta, gainera, utopia berri bat

imajinatzen ausartuko dena, beste arau eta balore batzuetan oinarriturik, hurbilago pertsonen eskubideen errespetutik –eskubide indibidualak eta kolektiboak–, elkartasunetik, askatasunetik, berdintasunetik eta senidetasunetik.

Instituzioetan egoteak garrantzi handia hartzen du mugimendu sozialaren borrokan alde saiatzen direnean batez ere.

"Azpitik eta ezkerretik" azpitik azpikoekin, azpikoek erara, gure Euskal Herrian ere, behar-beharrezko da kapitalistaren aurkako ezkerren batasuna.

Gure asmoak utopikoak direla? Bai, jakina, Errealitatea mugiarazteko indarra eta baita utopia ere behar dira, edo beste era batera esanda, begirada geroan jarrita, oraina aldatzeko bultzada.

Horregatik gure botoa, Ezker Antikapitalista-Izquierda Anticapitalista-Revolta Global zerrendari.

Osasuna eta Errepublika!

Aldaketa politiko eta sozialaren alde bozkatu II-HE

Iñigo Arregi

Bergara

Europar hauteskunde hauek aukera ezin hobea eskaintzen dute Euskal Herriko panorama politiko eta soziala astindu eta aldaketa konponbide demokratikoari atea zabaltzeko.

Greba orokorrak Euskal Herria eta langileria subjektu protagonistatzat izango dituen aldaketa politiko sozialaren

bidean kompromiso eta borroka mugarri bat finkatu du. Bide horrek jarraipena behar du.

EAEko gobernuan izandako alternantzak benetako aldaketa oztopatzea helburu duen PP-UPN eta PSOEren arteko Estatu hitzarmena indartu du. Lege ez demokratikoan inposaketan eta euskal herritarrok gure etorkizun instituzional eta soziala inolako xantaia eta hipotekarik gabe aukeratzea ahalbidetuko luketen konponbide demokratikoan ukazioan oinarritzen dena.

Ezker abertzaleak prestutsun osoa dauka aldaketa politikoa eta soziala irabazte aldera ahaleginak eta bi egiteko. Eszenatoki demokratiko bat eraiki eta beste Euskal Herri baterantz bide egiteko.

Iniziatiiba Internazionalista-Herrien Elkartasunaren aldeko boza Euskal Herriaren nahiz bere eskubideen aldeko boza da; herrien elkartasunaren aldeko, aldaketa sozialaren aldeko, demokrazia sozial eta politiko baten aldeko. Orain eta hemen posible diren beste Euskal Herria eta beste Europa baten aldeko boza da.

Alfonso Europara!

Euskal Herria eta ezkertiarak Europara!

Legebiltzarra bezain demokratikoa

Pedro Iturbe Gonzalez de Audikana

(Antzuolako Udal Gobernuaren izenean)
Antzuola

"Gogo eta ahalegin guztia jarri dugu ekimen honetan; izan ere, guretzat oso garrantzizkoa den zerbaiteko balio izango du,

Gipuzkoako gizartea "ezagutza" esan omen du Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakari eta lehen ordezkarriak.

Pozten gara errelexio sakon baten ondorioz gizarteratzen den autobus honen azala eta mamia ezagutarazteko dagoen ekimenaz, nahiz eta poza berriz ere etsipen bihurtuko dela igartzen dugun, ez baitugu autobus honen benetako erregaa ezagutuko, engrane edo transmisorik aztertuko, ez baitugu txoferraren benetako perfila ezagutuko, ez baita analisi sakonik gauzatuko. Diseinu eta azken teknologien erakusketa huts batekin konformatu beharko dugun susmoa dauagu.

Hurrengo egunetan Batzarbus-a Antzuolan izango dugu, Eusko Legebiltzarra bezain antideraktoa den Batzar Nagusien autobusa. 2007ko hauteskundeetan Batzar Nagusietarako ezker abertzalearen botoak (72.880 boto)

Alderdiak Legearen eskutik baztertuak izan ziren. Herrialdeko bigarren indarra izanik kanporatua, baztertua, erabilila eta kriminalizatua. Baina orduan ez zen ezer gertatzen, orduan "Ibarretxe abertzaleak" ez baitzen baztertzen, orduan trikimailu antideraktoa guztiak balekoak omen ziren, orduan tragediarik ez zen aurreikusten. Finean, bakarrik ezker abertzalea erasotua bada omen da demokrazia osasungarri.

Herri honekiko indar jazarpen lotsagabeak ardura-tzen gaitu. Behin eta berriro ezker abertzalea zokoratua izan da, milaka eta milaka lagunen eskubide zibil eta politikoak bahitu dizkiete, buruzagitzaz politiko osoak kartzelaratuak demokraziaren izenean,

terrorismoaren kontra! George Bush-en ikasle aurreratuak espainiarra.

Etxean bien bitartean horretaz baliatzen direnak aurkitzen ditugu, ez dira konturatzen ezker abertzalearen kontrako jazarpena gure herri honen eskubideen kontrako jazarpena dela, Alderdien Legea herri honen kontrako eraso dela. Ez balute handinrik izango eta "trampa demokratikorik" erabiliko, onartuko lukete honen guztia-ren larritasuna estatu espainolean ematen den defitit demokraticoaren emaitza dela, herri baten kontrako estrategiaren orri-bidearen etapa bat eta herri bat asimilatzeko nahiaren ondorioa.

Beraz, ekainaren 8an, 9an, 10ean eta 11n antzuolarrok demokrazia ezaren autobusa ikusteko aukera izango dugu, herri honekiko erasoa islatzen duen autobusa azken finean. Doako sarrera izango du autobusak, baina garesti aterako zaio herri honi parametro demokratikoan oinarritutako etorkizun bat ez badugu eraikitzen. Indarrak batzeko egunak iristear daude, nahiz eta koalizio arraro eta etekin partikularretan pentzatzen jarraitzen dutenek bakarrik jorratu beharko dute bere bidea Bush jaunaren lagunekin, herri oso baten kontura.

Ordurako ere, herrien eskubide eta aldaketa sozialaren bidean abiatu den autobusa hartua edukiko dugu. Ekainaren 7an, II-SPrentzat erregai izango gara, autobus honen transmisio, engrane eta txoferrak perfil eta norabide jakin bat dutelako, gizabanako eta herrien eskubideen aldeko.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidalzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzea. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goinkaria@goiniana.com

errenta 2008 ZURE zerbitzura

pasahitz operatiboa:

ZER DA?

Pasahitz operatiboa autentifikatzeko sistema bat da. Aukera ematen die zergadun guztiei –persoia fisiko edo juridiko izan– Gipuzkoako Foru Ogasuneko zerbitzu telematiko aurreratuez baliatzeko.

ZERTARAKO BALIO DU?

Errenta aitorpenari begira, honako alderdi on hauek ditu:

- Aukera emango ditzu ZERGA INFORMAZIOA zerbitzura sartzeko, ogasunatarian barrena, zerga informazio partikular guzia ikusteko (diru sarrerak, gastuak, atxikipenak eta abar).
- Errentarako laguntza programara jaitsi ahal izango dituzu ZERGA INFORMAZIONAN barne hartutako datu guztiak.
- Aitorpena Internet bidez aurkeztu ahal izango duzu, ondoren egiaztagiriekin zerga bulegoaren batera hurbiltzeko beharrak gabe, betiere ohiko etxibitzira aitorpenaren urtean erositzen baduzu eta aitorpenean ZERGA INFORMAZIONAN islatu ez den kontzepturik aitoritu ez baduzu.

NOLA ESKURATU?

Eskatu hitzordua gure bulegoetakoren batean, gure web-orrian dagoen formularioa betez.

NOLA BERRITU?

Pasahitz operatiboa 3 urteko balioa du. Iraungitzean denean, gure web-orriak ohartarazi egingo ditzu, eta une horretan berritan berritzeko aukera emango.




www.gipuzkoa.net
APIRILAREN 21ETIK EKAINAREN 25ERA

902 100 040

ZERGADUNARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA
Autolikidazio proposamenak onartzea, errenta mekanizaturako hitzordua eta informazioa.





Domekan izango da Bergaran Euskal Eskola Publikoaren jaia, 'Obatu' lelopean. Egitura oro-

korra gertu dago eta bidea has-te baino ez dela falta esandigu jaiaren antolakuntza lanetan

diharduen Euskal Herriko Ika-leen Gurasoen Konfederazioko ordezkari Imanol Zubizarreta

eskoriaztarrak. Jaiaren eta Eus-kal Eskola Publikoaren gaine-an egin digu berba.

Imanol Zubizarreta > EHIGEko ordezkaria

"Urtean behin bada ere aldarrikatu egin nahi dugu eskola publikoa hemen dela"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
San Martin eskolan hasi eta San Martin plazara bitartean jai giroa nagusituko da domekan Bergaran, Euskal Eskola Publikoaren jaian. Jaiak aldarrikapenarekin bat egingo du, ordea, eta Euskal Eskola Publikoaren kulturarteko izaera zein izae-ra euskalduna plazaratu nahi dituzte antolatzaileek.

Gure ibarrera, Bergarara, eka-ri duzue jaia. Nolakoa izan-go da ibilbidea?


San Martinen hasi eta amaituko da. Hau da, San Martin eskolan hasi eta San Martin plazan bukatu. Ekitaldi ofiziala San Martin eskolan izango da, 11:00etan, eta handik herrira joango gara; Ipintza eskolako patioa, Martinez de Irala kalea, Santa Marina eliza ingurua, Bidebarri pasealeku pasatxo eta Domingo de Iralatik San Martin plazara joango gara eta Xabier Munibe plazan ere izango da ekitaldirik.

Gune horietan guztietan zein ekitaldi izango dira?

Ekitaldiak antolatzerakoan garbi izaten dugu familiari zuzen-dutako jaia dela, baina lehenta-suna izaten dute ikasleek, seme-alabek. Hortaz, familia osoak gozatzeko eta ondo pasatzeko ekitaldiak antolatzen ditugu. Ekitaldi batzuk aipatzearen, esaterako, ekitaldi ofizialean egongo da uso mezularien erakustaldia eskolako gurasozale baten esku-tik; RAC gunea ere izango da, bide heziketa erakusteko; Betizuak eta Arrasateko Txatxilipurdi elkartekoak ere egongo dira; bai-ta *Bertsound System* ikuskizuna ere, hip-hop mugimendua eta bertsoa nahastuko dituena kul-tura ezberdinak uztartuz eta era-kutsiz.

Izan ere, aurten jaiaren bere-zitasunetako bat kulturarteko-tasuna adieraztea da, ezta?

Gure eskoletan gero eta gehia-go daude ikasle etorkinak, beste herrialdeetatik eta kulturetik etorritakoak, eta nahi dugu aniz-tasun hori gure jaiaren ere egotea. Horretarako hainbat ekintza izango dira, bat bereziki Bidebe-rrin, zortzi edo bederatzik herri-aldeko jakien dastatzea. Bestal-de, dantza eta musika taldeak izango dira, kolonbiarrak, sene-galdarrak, txiletarrak... beste herrietako kultura ezagutzeko. Etorkinen elkartekoak bateratzen dituen Biltzen elkartearren bitar-tez egin dugu harremana.



Imanol Zubizarreta, San Martin eskolan, jaiaren leloarekin eta irudiarekin.

IRATI AGIRREAZALDEGI

IBILBIDEA

"San Martin eskolan hasi eta San Martin plazara bitartean ekitaldi mordoa egongo da"

Obatu Euskal Eskola Publiko-ari leloak zer esan nahi du?

Obatu da Bergarako berba bat eta esan nahi dugu heltzeko Euskal Eskola Publikoari. Hez-kuntza komunitate osoak heldu behar diogu aurrera egin dezan. Kartela ere kolore askotakoa egin dugu, aniztasunaren adierazle.

EUSKARA

"D ereduco hiru ikasletik bi eskola publikoan daude; pisu handia dugu euskalduntze prozesuan"

Gurasoak lan handia egin duzue prestakuntzan?

Konfederazioak lagundu arren, meritua Bergarako gura-soek dute. Ikasturte hasieran jai Bergaran egiteko eskaria egin eta ikasturtean barrena egin dugu lan. Azken txanpan ia 400 gura-so azaldu da lanerako gertu.

ETORKINAK

"Eskola publikoak eta itunpekoek banatu egin behar lukete etorkinen eskolaratzearen ardura"

Zer dela-eta jaia Bergaran?

Gurasoek borondatea eta lane-rako gogoa azaldu zuten. Bergaran, azken urteotan, nahiko ezta-baida egon da herri mailan, eta, gurasoek parte hartu dutenez, pentzatu zuten jai egokia izan zitekeela gurasoen kohesiorako eta parte-hartza bultzatzeko.

Zein dira jaiaren helburuak?

Helburu nagusia da gutxienez urtean behin Euskal Eskola Publiko kaleratzea. Gaur egun, hezkuntza sisteman, eskola publi-ko erdia gara, %49,5 gutxi gorabehera. Hortaz, uste dugu nahi-ko pisu dugula hezkuntza sistema barruan eta askotan ez dela aipatzen eskola publikoa; badi-rudi ez dela existitzen. Eta guk uste dugu daukan pisuarekin komeni dela urtean behin alda-rrikatzea hemen gaudela gu ere.

Jaieguna ez ezik aldarrikapen eguna ere bada, hortaz.

Guretzat oso garrantzitsua da esatea zein diren Euskal Eskola Publikoaren ezaugarriak, eta euskalduna izatea da bat. Hain-bat jai egiten da, batik bat ikas-tole inguruan, eta lotzen dira euskalararekin. Ez dugu ukatzen ikastolek euskalararen alde lan gogorra egin dutenik, baina kontuan hartu behar da D ereduco hiru ikasletik bi eskola publikoan daudela; eta horrek esan nahi du pisu handiena euskalduntze prozesuan eskola publikoak due-la, eta hori aldarrikatu nahi dugu.

Euskalduna izateaz gain, etor-kin asko hartzen dituena ere bada, ezta?

Eskola anitzasuna da eta pozik gaude horrekin, baina etor-kina eskolaratzea lan zaila da. Batzuk etortzen dira Hego Amer-ikatik, besteak Afrikatik, besteak Errusiatik... nor bere kultu-rarekin eta bere heziketa maila-rekin, eta horiek eskolaratzea eta euskalduntza lan gogorra da eta baliabide asko behar da. Hortaz, uste dugu pisu hori denon artean hartu behar dugula, bai eskola publikoak eta baita itun-pekoek ere. Azken batean, itun-peko escolek diru publikoa jaso-tzen dute, eta lan hori banatu egin behar da. Gu gertu gaude etorki-nak hartzeko, baina kontuan har-tuta gaur egun sare publikoko portzentajea %50eko dela, etor-kinen %68 eskola publikoan daude, eta aldea handia da.

Amaitzeko, ze gomendio egin-ko zenuke domekari begira?

Jaira etortzeko eta ondo pasa-tzeko. Horrelako jaietan aparka-leku arazoak izaten dira eta jendea pilatu egiten da, baina pazien-tziaz hartzeko esango nieke. Bestalde, garraio publikoa erabil-tzeko gomendioa egingo nuke eta etortzeko ondo pasatzeko gogoz, baita aldarrikapen asmoz ere.

Herriak

Arrasate > 14-18 Bergara > 19-22 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> BERGARA

Egunez egin diren jai-ekintzetan parte-hartzea igo egin da > **16**



> ARETXABAleta

Kirol etxea egiteko lehiaketara 19 enpresa aurkeztu dira > **21**



> OÑATI

Astelehenean zotz egingo dituzte Ugarkaldeko 40 etxebizitza > **22**



> ESKORIATZA

XIII. Eskoriatzako Ferixian 80 postu izango dira bihar, zapatua > **28**

OÑATI > INGURUMENA

Iturrigorriko basoa zaintzeko eta esplotatzeko plana martxan da



Saso bat, Arantzazuko fraideen seminarioko ikasleek kirola egiteko erabiltzen zuten Iturrigorri; oraindik geratzen dira horren aztarnak.

SANTI MENDIOLA

ELKARLANA

Hitzarmena egingo dute Oñatiko Udalak eta Foru Aldundiak

HELBURUAK

Hiru lan-ildo daude: baso-ustiaketa, kontserbazioa eta hezkuntza eta aisialdia

ONDAREA

Iturrigorri hobeto ezagutzeko bidezidor didaktikoa egitea aurreikusten dute

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Aizkorri-Aratz natur parkeko zati garrantzitsua da Oñatiko Iturrigorri basoa. Bada, eremu horren aberastasuna zaintzeko eta ingurumen, hezkuntza eta turismo aldetik esplotatzeko asmoa dute orain Oñatiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hain zuzen, Diputatuuen Kontseiluak Herri Onura aitor-tuko du Iturrigorri, eta babes eta kudeaketa berezia izango du, bi erakundeok sinatuko duten hitzarmen bati jarraituta. Basoa kudeatzeko epe ertain eta luze-rako arauak finkatuko dituzte, eta besterako Ekintza Plana adostuko dute. Horrez gain, hiru lan-lero zehaztuko dituzte: baso-ustiaketa, kontserbazioa, eta hezkuntza eta aisialdi eremu izan dadila. Oro har, Iturrigorri baso experimental delakoa izango da.

Hori guztia egiteko finantzaketa Foru Aldundiak bere gain hartuko du behin hitzarmena sinatuta; hala ere, Udalaren zein interesa izan dezaketen beste era-

kunde batzuek ere parte hartu ahal izango dute finantzaketa, etorkizunean.

HASIERAKO FASEAN

Iturrigorriko basoa barrena, bidezidor didaktiko bat egitea aurreikusten dute. Horren bidez, bisitariek basoaren aberastasuna ezagutu ahal izango dute, ikuspuntu askotatik: biodibertsitatea, etnografia, historia, kultura... Hori da Iturrigorriko proiektu deigarrienetariko bat, baina gehiago ere izango dira.

Hala ere, Ainhoa Galdos Oñati-ko Nekazaritza eta Auzoen zinegotziak dioenez, "oraindik ordenazio plana garatzen gabiltza, eta goiz da zehatz esateko zer egingo den Iturrigorrin".

IKT empresa dabil (Nekazal Ikerketa eta Teknologia) gestio plan hori idazten. Egiten diren proiektuak eginda, denetarako irizpide nagusienetariko bat izango da gaur egungo natura eta ingurumen ondarea zaintza. Izan ere, besteak beste, 500 hektareako pagadia da basoaren zati

nagusia, eta, Ainhoa Galdosek dioenez, "IKTko adituak basoa aztertzen joan zirenean, esan ziguten inoiz ez zutela horrelako baso bat ikusi, oreka gordeta dagoela eta oso baso berezia dela, dituen ezaugarrietatik abantaila asko emango dituela proiektuak aurrera eramateko. Oso zainduta dago lehendik ere baso hori, ukitu barik". Lan-irizpideak zehazteko kontuan hartuko dira baita Europatik datozent gomendio eta arauak, besteak beste, Habitat 2020 delako programako edo ProSilvarenak, naturarekin lotutako basogintza bultzatzen duen Europako elkartarenak; tartean, zuhaitzak entresakatzea adinaren edo beste ezaugarri batzuen arabera, edo hemengo espezieak babestea.

Iturrigorriko 500 hektareako pagadia orain bi urte pasatxo erosia zuen Oñatiko Udalak 1,6 milioi eurotan; Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak, bakoitzak 600.000 euro ipini zituzten, eta gainerako 400.000 euroak, Udalak.

ESANAK

"Oraindik ordenazio plana garatzen gabiltza, eta goiz da zehatz esateko zer egingo dugun Iturrigorrin"

Ainhoa Galdos > Oñatiko Udala

"Adituek esan ziguten inoiz ez zutela horrelako baso bat ikusi, eta abantaila asko emango dituela proiektuak egiteko"

Ainhoa Galdos > Oñatiko Udala

OSPAKIZUNA > ELKARTASUN EGUNA

Musika uholdea da protagonista aldarrikapenaren egunean

Guztira, 24 musika taldeko joko dute bihar Arrasaten; euria egiten badu, kontzertu handia Iturripen izango da

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
 Dena dago gertu Portaloirako Topaguneak antolatzen duen presoen eskubideen aldeko Elkartasun Egunerako. Zapatu goizean hasita eta gaueko ordu txikiak arte, egitarau oparoa prestatu dute. Zuzeneko musika eskaintza zaba-la izango da protagonista aurten ere, eta, beraz, gazte arrasatearren-dako egin berezia izango da. Hala ere, antolatzaleek adin guztien-dako ekitaldiak antolatu dituzte.

ASPETZEKO UNERIK EZ
 11:00etan hasiko dira ekintzak. Biteri plazan umeendako txokoa jarriko dute; besteak beste, talierrak eta ipuin kontalariak izango dira. 12:00etan kale animazioa egongo da erdigunean eta 14:30ean herri bazkaria egingo



Euria bida, Iturripen egingo da kontzertu handia, Monterronen beharrean. GOIENKARIA

dute Biteri plazan. Txartelak Ira-ti, Ekaitz eta Monte tabernetan daude salgai, 10 eurotan.

Eta hortik aurrera, musika izango da protagonista. 17:00etan- tik 20:00etara, 19 musika taldek kontzertua eskainiko dute herriko 19 tabernatan. Azkenik, ospakizun eta aldarrikapen eguneko giroak gauean egingo du eztanda,

Monterron parkean izango den kontzertu erraldoian. Herriko ordezkaritza Aggressive Combat, Des-kontrol eta Arkada Socialek beteko dute aurten, eta atzerritik Alemaniako Die Walter Elf eta Irlandako Blood or Whiskey etorriko dira. Hau da, goi mailako musika gaua. Euria egiten badu, kontzertua Iturripen egingo da.

Kontzertuak

17:00	
Ain ger	Monte tabernan
Fight to life	Gaztetxean
Despervicio	Etxerat tabernan
Azkaiter Pelox	DAT tabernan
Mary May	Itzala tabernan

18:00	
Interprete	Jai-Zale
Desconocido	tabernan
Foxi Boxxi	Kajoi tabernan
Xasta	Basati tabernan
Gorroto	Ekaitz tabernan
Trullo y sus	Gure Leku tabernan
Zurullos	tabernan
Mekanikos	
Neallita Fola	Taupa tabernan

19:00	
The Convicts	Ostantz tabernan
Sermonds	Iluntz tabernan
Fiachras	Iratzi tabernan
Los Galerna	Ederra tabernan
Ukabilkada	Etxoste tabernan
Trifulka	Iturrioz tabernan

22:30	
Dirty Acoustic Brothers	Haizea tabernan

04:00	
Djak	3.60 aretoan

JENDARTEA

Atzegi eguna ospatuko dute bihar

J.B. > ARRASATE

Atzegi elkartea ezgaituenda-ko antolatzen duen omenal-dia bihar izango da; aurten, Arrasaten. SUDC eta Txatxi-lipurdi elkartek lagunza berezia eskainiko diete egune-ko protagonistei: SUDC elkartea behar den moduko baziaria prestatzeaz ardura-tuko da, eta Txatxilipurdi, baziosteko jolasez.

GOIZEAN ETA ARRATSALDEAN

Goizean poteo laburra egin-go dute, trikitilariek lagundu-ta. Gero, Alkartu elkartean baziandako dute eta, azken-ik, arratsaldean jolasak egi-ngo dituzte Txatxilipurdi-ren esku-tik. Aurten, jolasak ez dira Uarkapen egingo, domekan Europako Legebil-zarreko hauteskundeak dira-eta. Eguraldia uzten badu, Monterron parkean egi-ngo dituzte jolasak, eta, bestela, Biteri plazan jolastuko dira. Jolasen ostean, oparitxo bana emango diete guztiei.

Orain LASERRAREKIN depilatu eta, gainera, eguzkiaz goza dezakezu!



nº R.P.S. 297 / 05.

Argi pultsatuaren teknologiarekin
era guzietako ileak depilatzen ditugu,
 baita azal brontzeatu berriak ere.
 Emakume nahiz gizonezkoendako.

Eta gainera, **aprobetxa ezazu gorputzerako**
tratamenduen promozioa ekainean eta uztailean.

Etorri eta informa zaitez konpromisorik gabe.



JENDARTEA > GKE-EN ELKARTASUN EGUNA

Txan magoa, tonbola eta Euro Elkartasun jokoa bihar, zapatua, Seber Altube plazan

XI. Elkartasun Eguna antolatu du Harreman gobernuz kanpoko erakundeak, eta 10:00etatik 20:00ak arteko ekitaldiak iragarri ditu

UBANE MADERA > ARRASATEN

Bihar, zapatua, 10:00etarako ipiniko dituzte saltoki eta postuak Elkartasun Egunean parte hartuko duten gobernuz kanpoko era-kundek, Seberren. Etxeko artean izango dira Komite Internazionalistak, Nubi, Serso-San Viator, Activos por un Mundo Solidario, Mundukide eta Harreman.

Ibarretik kanpoko artean, berriz, Oldberri erakundeko ordezkaritzaz izango da Arrasaten, bigarren eskuko jantziak batu, berrieta eta atzera ere salgai ipintzeaz arduratzentzen den Caritasko ordezkarria. Eta horiek batera, Nagusilaneko ordezkariek ere parte hartuko dute Elkartasun Egunean. "Gipuzkoan bazterkeria jasaten dutenen alde lan egiten duten erakunderen bat gona-

bidatu gura izan dugu", azaldu du Harremaneko kide Eusebio Arexoleibak.

Bestela esanda, bihar, Saharako tea, Kolonbiako txokolatea eta, adibidez, Afrikako kafea das-tatu edo erosteko aukera eskainiko dute Seber Altube plazan, 10:00etan hasi eta 20:00ak bitartean. Hau da, bidezko merkataritzan oinarritutako produktuak. Eta horien artean, Iturbide egoitzako nagusiek egindako eskulanak izango dira salgai, eurek hala eskatuta, garapen bidean dauden herriei laguntzeko.

TONBOLAN, 4.000 TXARTEL

Horrez gain, tonbola ere ipiniko dute: "4.000 txartel atera ditugu; ea guztiak saltzen ditugun", dio Arexoleibak. Dirua Ankurreko



Tonbolarako 4.000 txartel atera ditu Harreman elkarrekin.

GOIENKARIA

DATUA

240
NESKATILA

Harremanek tonbolan batutako dirua Ankurreko (India) umezurtz- etxerako bidaliko dute; 240 neska zaintzen dituzte han, Bombayko kaleetan baztertuta bizi diren edo abandonatu dituzten neskatalak.

(India) umezurtz- etxerako bidaratu tuko dute. Tonbolan Ibai Arteko dendarien produktuak zozkatuko dituzte eta, jakina, 20:30ean egingo dute "azkeneko zozketa".

Bestalde, gaztetxoei begira, 11:00etarako Txatxilipurdikoekin jolasak antolatu dituzte; 17:30etik 19:00ak arte, Txan magoak saioa egingo du; eta egun osoan, Arizmendiko DBHkoek Euro Elkartasuna ekimena egingo dute.

> EUSKARA
AEDk antolatutako bazkarirako txartelak salgai daude

Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearren 25. urteurrenaren harira, iragarri dute ekainaren 14an egingo dutela ospakizunen bukaerako jai erraldoia. Bada, ekitaldien artean 300 bat lagunendako herri bazkaria antolatu dute. Parte hartu gura izanez gero, aldez aurretik erosia behar dira txartelak, eta honako lekuetan daude salgai: Monte, Kajoi eta Irati tabernetan eta AEDren egoitzan. Txartelak 8 euro balio du.

> UDA
Piraguismoa, patinajea eta beste, udan Arrasaten

San Juan ostean hasi eta abuztura arte udako ikastaroak antolatu ditu Aukeak. Piraguismoa, patinajea, skatea, arku-tiroa, tenisa eta multibentura dira Uarkapen eta Musakolako eta Iturrieko kiroldegietan egin ahal izango direnak. Ikastaro gehienak dira 10 urtetik gorakoei zuendutakoak, baina 5-6 urtetik aurrekoendako ere bada aukera. Informazio gehiago, kiroldegian: 943 77 16 77.

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

JAIAK > SAN JUANETAKO EGITARAUA

Festa luzeagoak, iaz baino aurrekontu txikiagoarekin

Udalak atera du San Juan jaietako behin-behineko egitaraua eta ekainaren 19tik 27ra bitartean izango dira ekitaldiak

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Berehala dira; konturatu orduko, Arrasate San Juan jaietan murgilduta egongo da. Aurten, gainera, ekainaren 19an hasiko dira ospatzen jaietako ekitaldiak. Aste bi besterik ez da falta, hortaz.

Lehenago hasi, eta geroago amaituko dira jaiak aurten. Izan ere, Txosna batzordeak egun bat gehiago luzatuko ditu jaiak

eta egun berezia prestatu du hilaren 27rako, zapatua dela aprobetxatuz.

10.000 EURO GUTXIAGO

Jaiet egun gehiago izango ditutte, baina aurrekontua iaz baino murritzagoa izango da. Krisi ekonomikoak jaietan ere izan du eragina. Hala, Udalearen helburua zen 10.000 euro gutxiagoa gastatzea eta helburua betetzea

lortu dute: %5 jaitsi dute aurrekontua. Guztira 174.000 euro pasatxo erabiliko dira aurten.

BEHIN-BEHINEKO EGITARAUA

Lehen esan moduan, Udalak jakinarazi duen egitaraua behin-behinekoa da eta, beraz, aldaketak egon daitezke. Udalak hainbat aldaketa egon daitezkeela iragarri du, gainera.

Denetariko gustuak asetzeko moduko egitaraua prestatu dute. Besteak beste, erakustaldiak, musika emanaldiak, lehiaketak eta kirol ekitaldiak –Martinez de Irujo pilotaria Uarkapen izango da hilaren 21ean– izango dira zortzi egunetan zehar. Azpimarratzeko da aurten umeen danborrada –helduak hasiak dira entsesten– eta haurren euskal jaia San Juan egunaren aurreko aste bukaeran ospatuko direla. Bestalde, ez dira faltako tradizio bihurtu diren makala jasotzea, erremontari-dantza, helduen danborrada, salbea, dragoi-jana eta Eguzkilaren etorrera.



Arkada Socialeko Brian, Hodei eta Julio, Monterrongo agertokiaren atzealdean. J.B.

MUSIKA > ARKADA SOCIAL, 'ZUZENEAN'

Taldea betikotuko duen DVDA kaleratu du Arkada Socialek

Atzo egin zuten aurkezpena, Etxoste tabernan; euren historia eta azken zuzenekoak jasotzen ditu

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Arkada Socialek DVDA atera du: *Zuzenean*. Atzo aurkeztu zuten Etxoste tabernan eta bihar, Elkartasun Egunean, jarriko dute salgai gaeuan eskainiko duten kontzertuan –kontzertua bera DVDA aurkezteko da. Eta biharkit aurrera Etxoste eta Ekaitz tabernetan egongo da salgai, 10 eurotan. 1.000 kopia atera dituzte, eta, 2006an agur birako emanaldiako arrakasta ikusita, berehala agortuko dira.

osatua. Ikus-entzunezkoak bi atal ditu: batetik, 2006ko abenduaren 15ean Jamen emandako zuzenekoaren irudiak eta 2006ko agur birako kontzertuetakoak –Añorgan, Monterronen eta 3.60 aretoan– ikus daitezke. Eta, bestetik, taldearen historia laburtzen duen atala dago, taldeko kideen, talde *anaietako* kideen eta lagunen testigantzekin. Grabaketetako une barregarrienak ere atera dituzte.

Boskote moduan hasi eta hirukote moduan desegin zen taldea. 2006an, baina, ganorazko agurra egitea erabaki zuten, jarraitzaileek merezi zutelako. Orain, DVDArekin, Arkada Social betikotu egin dute. *Nunca morirás!*

OSPAKIZUNAK > GARAGARDOAREN FESTA

Herrian errotuta dagoen Arrasate Errugbi Taldearen 11. garagardo jaia aste bukaeran

Atzo egin zuten karparen inaugurazio ofiziala, eta zapatu gauera arte giro ederra izango da nagusi Herriko Plazan



Hainbat garagardo mota dastatzeko aukera egongo da.

GOIENKARIA

J.B. > ARRASATE

Tradizio bihurtu da Arrasaten Arrasate Errugbi Taldeak Aukea eta Kajoi tabernaren laguntzaz antolatzen duen garagardoaren festa. Atzo inauguru zuten aurten 11 urte bete dituen jaia. Irekiera ekitaldian Udaleko ordezkariak eta urteotan jaia antolatzen ibili diren enpresa eta lagunak izan ziren.

ALEMANIAR ERARA

Zapatu gauera arte hamaiaka garagardo mota eta alemaniar errekiak –oilaskoak, saltxitxak,

txerri-ukondoak...–dastatzeko aukera izango da. Izan ere, Joseba Maidagan ekitaldiaren antolatzaileetako batek adierazi dueenez, "edateko ondo jan behar da aurretik". Bestalde, giroa are

gehiago alaitzeko, zuzeneko musika ere izango da karparen barruan.

Antolakuntzak jaiarekin bat egiteko gonbidapena egin die arrasatear guztiei.

UGARAN

Jatetxea

Garagartz auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua



Gubi
ILE APAINDEGIA

Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

2009-2010

Izenematea
Ekainaren Ietik 12ra

Matrikulazioa
Ekainaren 29tik uztailaren 3ra

eteo
ETEO, KOOP. E.

Lanerako gerju!
ESKAINTZA AKADEMIKOA

MGEPE

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Informatika Sistemak Administrazioa
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekiparen Mantenimendua

ETEO

- Administrazio eta Finantzak
- Idzikaritza
- Merkataritza Kudeaketa eta Marketigna

ERRUGBIA > NAZIOARTEKO ZAZPINAKO TXAPELKETA

Errugbi barik ez dago ekaina ulertzerik

Hamaikagarren urtez garagardoaren jaia eta errugbi txapelketa antolatu ditu ARTk

Zapatuan 15:00etan hasiko dute errugbi txapelketa, Mojategiko zelaian

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Hamaika urteren ondoren, Arrasaten ekainari zerbaite falta izango litzaiok errugbi taldekoek garagardoaren jaia eta zazpina-ko errugbi txapelketa antolatuko ez balitzte. Eta, oraingoz, tinko eutsiko diote hitzorduari.

Bihar, 15:00etan hasita, 10-12 errugbi talde batuko dira Mojategiko kantxan zazpinako errugbi txapelketa jokatzeko. Antolatzaileek baieztaztu dituzten talde-en artean hau ek daude: Bordeleko bi talde, Donostiarra Bera-Bera, Ordizia, Hernani, Eibar, Zarautz, Durango, Gasteizko Gaztedi, Iruñeko La Unica eta Arrasate bera. Hala, beste urte-

betez Arrasateko taldekiek ahal duten ondoen egin beharko diote aurre hitzordu horri. Izan ere, zuri-moreek lan bikoitza izango dute: Mojategiko zelaian neurria eman eta plazan egongo den karpan gogor lan egin.

BADIRA BERRIKUNTZAK

Aurtengo zazpinako txapelketan berrikuntza garrantzitsua izango da, emakumezko hiru talde ere lehian izango dira-eta: La Unica, Eibar eta Arrasate. "Herri mailan oso errotuta daogoen jaia bilakatu da hau, eta jai honetan garagardo eta errugbia batzen ditugu. Baina aurten kirol arloari garrantzia eman gura izan diogu,



Karni bultzaka, Atxabalpen jokatu zuten azken torneoan, 2007an.

GOIENKARIA

azken batean gu errugbi talde bat garelako, eta Euskal Herri mailan txapelketa polita antolatu gura dugu", adierazi du Joseba Maidaganek aste barruan Arrasate Irratian.

KARPA, ATZO EZKERO ZABALIK

Azkeneko bi urteetan moduan, aurten ere hiru egunez egongo da

Garagardoaren jaiko karpa zabalik, atzo 19:00etan ireki zituzten-eta ateak. Hala, gaur, egubakoi-tza, giro paregabeara izango da karpan eta bihar, zapatua, ere gura beste garagardo izango da. Edateko, baina, jan egin behar denez, gura duenak saltxitxekin, oilaskoekin eta ukondoekin bete ahal izango du sabela.

> ARETO FUTBOLA
Paulaner Dribling eta Ekaitz Taberna, bihar kopako finalean

Zaldibarko areto futbol txapelketan bihar, zapatua, 17:00etan jokatuko dute Paulaner Driblingek eta Ekaitz Tabernak kopa txapelketako finala.

Eta, adi Paulaner Dribling taldearekin, ligan finalerdietarako sailkatu delako eta dobletea egin dezakeelako. Ligako finalerdia hurrengo asteburuan jokatuko dituzte. Paulaner Dribling, McAwen Dauen, AT Celaya eta Lasagabaster daude sailkatuta.

> FUTBOLA
Mondrako neskek Gasteiz Cupen kontra jokatuko dute bihar

Liga txapelketa irabazita, Mondrako neskek igoera fasean daude murgilduta. Orain arte bi partidu jokatu dituzte. Maiatzaren 17an 4-2 irabazi zioten Gasteiz Cup taldeari eta maiatzaren 23an 2-0 galdu zuten Abantoren zelaian. Play off-eko lehenengo bi partiduak jokatuta, bigarren itzulia geratzen da. Hala, bihar 16:00etan Gasteiz Cupen kontra neurtuko dituzte berriro indarrak, Betoñon.

UDAKO ESKAITZA BEREZIA

Ekainaren 14a baino lehen erreserbatuz gero, %5eko deskontua. Baldintzak kontsultatu.

EURODISNEY

Ekainaren 9a baino lehen erreserbatuz gero, eskaintza paregabearak

5x4, 4x3, 3x2.

(Zazpi urtetik beheragoko umeak doan).



ITSAS BIDAIAK

SAN JUANAK.
Mediterraneoko Brisa.

480€-tan. Udan zehar %28rainoko deskontuak.



EZTEI-BIDAIAK

Ekainaren 14a baino lehen erreserbatuz gero, %10eko deskontua.



AUTOKARABANA

- Bizikleta-eramatekoa
- Eski-eramatekoa
- Berria
- 160 € egunean



Arrasate Bidaiaik

CIE 2214

BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA



ARRASATE BIDAIAK

Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 / Faxa.: 943 79 74 45
E-posta.: d4051@marsans.es

Oharrak: tasak eta erregaiak ez daude barruan.

INGURUMENA > ASTE BERDEA

Ingurumen Batzordeak Aste Berdea antolatu du lehenengoz

Gaur ospatzen den Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren bueltan antolatu dute

Atzo hasi eta hilaren 11ra arteko ekitaldi sorta zabala egongo da; besteak beste, ibilaldi gidatua, film emanaldia eta hitzaldia

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Udaleko Ingurumen Batzordeak Aste Berdea antolatu du lehenengoz eta eguztenean aurkeztu zuten Mikel Etxaniz Ingurumen zinegotziak eta Naiara Corcueran Ingurumen teknikariak.

Mikel Etxanizek azaldu zueñez, urte hasieratik aurreikusitako ekimena da eta herritarrak ingurumenarekiko sentsibilizaztea du helburu. Bestalde, ez da ekimen isolatua: "Urte hasieran, Ingurumen Batzordean urte oso rako plangintza egin genuenean, hainbat sentsibilizazio kanpaina egitea adostu genuen. Hori horrela, martxoan Basoaren Astea egin genuen eta ekainean Aste Berdea egitea pentsatu genuen". Hirugaren sentsibilizazio kanpaina ere



Mikel Etxaniz zinegotzia eta Naiara Corcueran teknikaria Errekalde parkean. M.B.

Aste Berdearen egitaraua

Ekainak 5, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna

19:00etan, San Martin plazan, Super Plast izeneko kale antzerkia. Hondakinaren arazo eta birziklatzeko dagoen beharra erakusten ditu.

Ekainak 6

09:30ean, San Martin plazatik abiaturia, mendi irteera herriko landaretza eta paisaia ezagutzeko. EHUKO Agusti Agud botanikariak gidatuko du ibilaldia. Herriko landaretza eta paisajea ikerketaren egilea da.

Ekainak 9

19:00etan, bisita gidatua Usondoko zuhaitz eta zuhaixkak ezagutzeko bisita gidatua. Maitane Arizabaletak gidatuko du, Usondoko zuhaitz eta

zuhaxkak liburuxka-ren egileak. Liburuxka ere banatuko dute

Ekainak 10

19:00etan, osoko bilkuren aretoan hitzaldia. *Sostenibilidad en tiempos de crisis* delako hitzaldia egingo du Roberto Bermejo EHUKO ekonomia irakasleak. Gizarte eredu jasangarriren garrantziaz egingo du berba.

Ekainak 11

19:00etan, Zabalotegi aretoan, *Home* filma emango dute. Planetak bizi duen krisi ekologikoa ukatzeari lagatzeko dei egiten du.

Ekainak 19

Goizean barrena, San Martzialen, ingurumen heziketa eta orientazio jokoak DBH lehen mailako ikasleekin.

iragarri zuen Etxanizek. Ura izango du oinarri eta irailean edo urrian egingo dutela aurreratu zuen.

Atzo, eguna, hasi eta ekainaren 11ra arte iraungo du Aste Berdeak eta, Etxanizek azaldu zueñez, "egitarau zabala" antolatu dute.

AZPIMARRATZEKOAK

Gaur, ekainak 5, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da, eta Naiala Corcueran Ingurumen teknikariak azaldu zueñez, horregatik antolatu dute orain Aste Berdea. Bestalde, azpimarratu zuen ingurumenaren kontzeptua ekaineko kultura agandan ere sartu dute-la, ingurumena gaitzat duten ipuin emanaldia, antzezlana eta filma sartu dituztelako.

Aste Berdeko antolatu dituzten ekitaldien artean bi azpimarratu zituzten: bata da bihar, zapatua, herriko paisaia eta landaretza ezagutzeko egingo den ibilaldia. 2005ean herriko landare-tzaren inventarioa egin zuen Agusti Agud botanikariak gidatuko du. 09:30ean abiatuko da San Martin plazatik. Autoz Elosumendira igoko dira eta handik Osintxura egingo dute, Pol-Pol errekan behera. Bestea da hilaren 10ean, eguztena (18:00etan, osoko bilkuren aretoan), Roberto Bermejo EHUKO ekonomia irakasleak krisiaz eta iraunkortasunaz egingo duen hitzaldia.

bere ustez



Lander Juaristi

Lo egin dezakegu?

Pasa den ostegunean, Bergarako jaien bezperan, irratian irratsaioa egiten geundela, bi gazte gerturatu ziren gaztetxera, Iruñean bizi ziren senegaldarrak ziren eta jaietan kalean saltzen zetonen. Bertan, gaztetxeen, lo egiteko eskaria egin ziguten.

Aurreko astean Afrikaren nazioarteko eguna izan omen zen, miseria, gosea, gerrak, atzerapena... etortzen zaizki-gu gogora kontinente beltzari buruz hitz egiten dugunari, baina Afrikak badauka beste aurpegi bat ere.

Elkartasuna benetako da han, Senegal ez zitzuten izan-

"Elkartasuna aldarrikatzen dugu, baina zein zaila ezezagunekin eskuzabal jokatzea"

go guk izandako zalantzak lo egiteko eskariaren aurrean, gazteen lokal batean ez ezik etxera gondidatuko gintuzten askok gaua igarotzen. Nik ez nuen inor nirera gondidatu.

Kontinente zabal batean denetarik egongo da, baina nik ezagututako herriean, munduko errenta per capita baxuenetako dutenak, alfabetatze tasa baxuenak, edo bizi itxaropenik baxuenak izan arren, ez naiz miseria, gosea eta sufrimenduek eragindako gupida edo tristurarekin itzuli. Bertakoen elkartasun eta irribarrearekin baino. Askotan guri, gure oparotasunean falta zaigun irribarrearekin.

Elkartasuna aldarrikatzen dugu, baina zein zaila ezezagunekin, pertsonekin, eskuabal jokatzea. Edo?

UDALA > ARAUTEGIA

Elbarriendako aparkalekuei erabilera egokia emateko arautegia onartu du Udalak

M.B. > BERGARA
Elbarriendako aparkalekuei erabilera egokia emateko arautegia onartu du Udalak, osoko bilkuraren,

aho batez. Hala, araudi hori aintzat hartuz hainbat aldaketa egin dizkiote araututako aparkalekuen udal ordenantzari.

Nagusiki bi dira jasotako aldaketak: aparkaleku publikoaren gainekoa eta elbarrien txartelari dagokiona.


APARKALEKU PUBLIKOA

Ibargaraiko aparkaleku publikoan elbarriendako gordeta dauzen guneetako ordutegia izango da 09:00etatik 21:00etara, eta gehienez lau orduz laga ahal izango da autoa. Denbora hori pasatzen onoren, ibilgailua tokiz mugitu beharko da.

21:00-09:00 artean ez dute elbarriendako gordetako izaerarik izango; edonork aparkatu ahal izango du, epe mugarik gabe.

ELBARRIENDAKO TXARTELA


Arau-hauste konsideratuko da "elbarria ez den pertsona edo elbarriaren txartelaren titularra ez den pertsona garraiatu edo eramateko erabiltzen denean. Zirkulazioko arau-hauste moduan hartuko da eta legez ezarritako procedura bidez zigortuko dira.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 beheha BERGARA
943 76 21 37



Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Argazkia Kiñn

JENDARTEA > MERKATARITZA

Uztailean Bedelkarko dendariekin kalera aterako dituzte produktuak, bigarrenez

Uztaileko lehen asteburuan izango da herriko dendarien azoka; egubakoitz arratsaldean, gainera, Oihulari Klown taldeak alaituko ditu kaleak

JASONE ZABALA > BERGARA

Uztailaren 3an eta 4an Bergarako Bedelkar elkarteko dendariekin produktuak aterako dituzte kalera eta azoka txikia egingo dute. Martxoan egin zuten moduan, nork bere dendaren aurrean jarriko du erakusmahaia dendako produktuekin. Gainera, beherapen ofizialak uztailearen 1ean hasiko dira leku guztietan eta dendariekin bultzatxoa emango diete erosleei produktu ezberdinak erosi ahal izateko asteburu horretan.

Antolatzaleek espero dute joan den matxoaren 7an kalera atera zirenak baino denda gehiago animatzea uztailean ospatuko den bigarren ekitaldi horretan:



Joan den martxoan eguraldiak ez zuen lagundu azokaren lehen ekitaldian.

GOIENKARIA

"Martxoaren 7ko hartan halako azoka bat egiten genuen lehen aldia izan zen eta, gainera, egurraldiak ere ez zigun askorik lagundu. Gainera, bigarren ekitaldi honetan, giroa animatzeko, egubakoitz arratsaldean zehar Oihulari Klown taldekoak dendariekin denda ibili dira kale antzezpena egiten eta erosleak

erostera animatuz... Horretaz gain, dendetako produktuetan beherapenak egongo dira".

URRIAN, UDAL PILOTALEKUAN

Bedelkarkoek, bestalde, adierazi digute datorren urrian Udal Pilotalekuaren egindo duten azokaren prestaketa lanak ere aurrera doazela poliki-poliki.

Aurten, gainera, berrikuntza moduan, zapatuan ez ezik domika goizean ere egongo da zabalik azoka. Antolatzaleen esanetan, joan den urtean jende asko ibili zen eta dendariekin gustura gelditu ziren herritarrek emandako erantzunarekin: "Horregatik, egun erdi gehiago luzatuko dugu pilotalekuko eskaintza".

MENDEKOSTE JAIAK > BALANTZEA

"Inoiz baino jende gehiago ibili da, eta badirudi egunak tokia jan diola gauari"

Egunean zehar jende ugari ibili da kalean eta astelehenenak izan zuen parte-hartze handien

J.Z. > BERGARA

Mendekoste jaiak dagoeneko amaitu dira eta Udaleko Kultura Sailak adierazi digunez, "balorazio oso positiboa" da, eta azpimarratu nahi izan dute jendearen "parte-hartze handia".

Egindako eguraldi onagatik edo "badirudi egunak tokia jan diola gauari, eta, egunez inoiz baino jende gehiago ibili den neurriean, gauak jaitsi egin dira", adierazi digu Enara Minguezek, Kultura zinegotziak. Bestalde, asteleheneko parte-hartzea nabarmentzekoa dela esan digu. "Tabernen arteko herri kiroletan zazpi tabernak hartu zuten parte eta Etxagi tabernak irabazi zuen. Ondorengo herri bazka-

rian plaza jendez lepo egon zen", adierazi digu Enara Minguezek.

TXOSNAGUNEA

Txosnaguneko batzordetik ere balorazio positiboa egin dute. Adierazi dute giro "politika" eta "jatorra" izan zela jaietan. Bestalde, kontzertuak txosnen estalkiaren barruan ipintzea ere jendeak ondo hartu zuela azpimarratu dute. Herrian zehar egindako rock maratoiak ere arrakasta izan zuela esan digute.

Alde negatiboan, berriz, zapataun preso politikoaren aldeko omenaldia bertan behera gelditu zela, Ertzaintzak galarazi egin zuelako. Amaitzeko, esan behar da ez dela aipatzeko istilurik izan.



Herri bazkarian 500 pertsonatik gora bildu ziren astelehenean.

JASONE ZABALA



Irudian, ingude jokoa; herri kirol lehiaketa egin zen astelehenean.

MONIKA BELASTEGI

UDALA

Uko egin diote %2,4ko igoerari politikoek

J.Z. > BERGARA

Maiatz amaieran egindako osoko bilkuraren, zinegotziak soldatzen ez igotzea onartu zen. Ordezkarri guztiak aldeko bota eman zuten eta PSE-EEk, berriz, aurkakoa.

Ogasun batzordeburu Aitor Goitik hauxe azaldu digu: "Udal Gobernuan ikusen genuen aurten justu ibiliko ginela gastu arruntekin; horregatik, KPIren igoerarik gabe egin genuen aurrekontua".

BI HILABETE KOBRAKU GABE

Amaitzeko Aitor Goitik adierazi du gobernutik badagoela bi hilabetetan ez kobratzeko proposamen bat; modu horretan, bi hilabetetan, 31.074 euro aurreratuko lituzke Udalak. "Gure asmoa da diru hori beste gastu batzuetan erabiltzea, esaterako Gazteleku proiektuan".

oharrak

AISIALDIA

> Ur-jolasparkeabihar, zapataua, Agorrosinen

8 eta 14 urte artekoendako jarduerak igerileku handian izango dira. 8 urterako umeak txikian ibili dira, gurasoek lagunduta.

GAZTEAK

> Bidaiatzeko gida berriak ditu Gazte Informazio Bulegoak

Besteak beste, Alemania, Brusela eta Brujasko gidatzen dira. Maileguan har daitezke, hamabost egunerako, doan. Horretarako ez da txartelik behar; izen-abizenak eta telefono zenbakia nahiakoa dira.

KONTZERTUA

> Duo Plaentxik emanaldia egingo du Mizpirualde egoitzan

Bihar, zapataua, egingo du kontzertua Soraluzeko taldeak. 17:00etan hasiko da.

IRTEERA

> Irteera Europako Mendieta, Pol-Polekin

Hilaren 13an eta 14an egingo dute. 05:30ean irtengo dira Fraiskozuritik. Izena emateko jo Pol-Pol Mendi Taldera.

LITERATURA > LEHIAKETA

Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketa dago bihar Zabalotegin

Aurtengo edizioan, guztira, 425 lan aurkeztu dira lehiaketara; horietatik 356 ipuinak dira

Bost atal ditu lehiaketak: ipuina, bertsoa, komikia, antzerkia edo ipuin kontaketa, eta txistea

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bihar, zapatua, Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketa egingo dute Zabalotegi aretoan, eguerdian. Aurten, guztira, 425 lan aurkeztu dira. Euskara Sailak jakinarazi du, parte-hartzeta eta lanen kalitatearei dagokienez, azken urteetakoaren antzekoa izan direla.

Ipuinen atala bost taldean egon da banatuta, adinaren arabera. Guztira, 356 ipuin aurkeztu dira. Lehen taldean, Unai Sampietroren *Letra zopa* ipuinak lortu du lehen postua; bigarrenean, Joanes Ruiz de Eginoren *Ige-la, ahatea eta zentauroaren lantza galdua*; eta hirugarrenean, Miren Carniceroren *Ortzadarren jaiotza*. Hiru talde horietako sariari guztiak material didaktikoa jasoko dute opari.

Ipuinekin jarraituz, 1994tik 1996ra bitartean, Maddi Txintxu retaren *Hanka gelditan* irten da garaile. 110 euro jasoko ditu. 1993an baino lehenago jaiotakoen artean, Enara Alberdiren *Barnetik* lanak lortu du lehen postua eta, horrekin batera, 275 euro.

Bertsoetan bederatzitzen lan jaso dira, hiru taldean banatuta.

Nagusienen atalean, saria hutsik geratu da. Gainontzeko bietan, Manex Bengoaren *Maixuaren zigorra* eta Beñat Etxaberen *Bizikleta* lanek irabazi dute. Komikietan bertsoen ataleko gauza bera gertatu da: hirugarren taldean saria hutsik geratu dela. Besteei dagokienez, Miren Carnicerok *-Zelako oporrak-* eta Joseba Osak *-Asmakizuna-* jasoko dute bihar saria. Azken horrek 90 euroko saria du. Guztira, 35 komiki-tira aurkeztu dira.

ANTZERKIA ETA TXISTEAK

Antzerkia edo ipuin kontaketa atalean, Aranzadiko 5 urteko ikasle taldearen *Ziripot eta Miel Otxin* eta San Martingo 5. mailakoen *Diruak sendatu du aitonan* lanez gain, Aranzadiko 6. mailakoen *Pelukiaren komerixak* nagusitu da. Azken horregatik 275 euro jasoko dituzte. Txistea eta umorezko pasadizoetan, azkenik, hiru sari emango dira, ordenea bereiztu barik: Sara Peñin, Joanes Plazaola eta Ibon Etxabarri eta Gorka Kortabarriak jasoko dituzte. Esan bezala, sari banaketa 12:00etan da bihar.

GALARRETA
oinetakoak • poltsak • osagarriak

BIZIKLETA ZOZKETA

IRABAZLEA
Soraluzeko **CECILIA ASTIAZARAN**.
Zorionak!

Argazkian, saria jasotzen Maria Luisa Aseginolaza eta Kontxi Osinalderen eskuetatik.

Irizar pasealekua 2 BERGARA Tel.: 943 76 12 39
Toribio etxebarria 15 EIBAR Tel.: 943 20 13 43

Lan sarituak

IPUINA

1. Taldea:

- 1. *Letra zopa*
Unai Sampietro Alberdi
- 2. *Hogezi zenbakia*
Jon Zeziaga Luarizaristi
- 3. *Txirula arraioa*
Maialen Verguizas Arroitajauregi
- 3. *Unax, Asier, Imanol eta Josu espazioan*
Unax Arana Gonzalez

2. Taldea:

- 1. *Igela, ahatea eta zentauroaren lantza galdua*
Joanes Ruiz de Egino Fernandez
- 2. *Lagun berri bat*
Ane Laskurain Arrese-Igor
- 3. *Ezin dut esan, barkatu*
Ainhoa Pera Etxeberria

Aipamena:

- Nire lapitzak egun batean*
Asma Mehdaoui
- Aipamena:
Eguzkia eta haizea
Idoia Agirrezabal Urrutia

3. Taldea:

- 1. *Ortzadarraren jaiotza*
Miren Carnicer Padilla
- 2. *Krasimir asmatzaile txikia*
Maitane Muruamendiaraz Arana
- 3. *Ezezagunen laguntzaz*
Olatz Diaz Carriet

4. Taldea:

- 1. *Hanka gelditan*
Maddi Txintxurreta Agirregabiria
- 2. *Joxepuren ametsak*
Jokin eta Beñat Etxabe Leturia
- 3. *Ez gara batera egoteko jaio*
Maddi Elortza Agirregabiria

5. Taldea:

- 1. *Barnetik*
Enara Alberdi Abasolo
- 2. *Oroitzapenak*
Uxue Agirre Madariaga eta Elene Etxaniz Agirre
- 3. *Amonaren ipuina*
Eneritz Larrea Arozena

BERTSOAK

1. Taldea:

- 1. *Maixuaren zigorra*
Manex Bengoa Arregi
- 2. *Eguneko gauzak*
Ariana Sasieta, Leire Ugarte eta Eider Moncaila

TXISTEAK ETA UMOREZKO PASADIZOAK

2. Taldea:

- 1. *Alkatia eta abadia*
Sara Peñin Alberdi
- 2. *Esaldixa ingeleses*
Joanes Plazaola Madinabeitia
- 3. *Zein da gelako tontuena*
Ibon Etxabarri Goiti eta Gorka Kortabarria Perez

trinmer
telecomunicaciones

tdt televisión
digital terrestre

Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu,
ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

ZINEMA

'Home',
'Garaje' eta
'XXY',
zineklubean

Betiko moduan,
filmak eguenetan
20:00etan izango
dira Zabalotegin

M.B. > BERGARA

Zineklubeko ekaineko egitaraua gertu dute. Lehen emantalde datorren egunean, hilak 11, izango da. Egun horretan, Yann Arthus Bertrandek zuzendutako *Home* filma ikusteko aukera izango dute zinezaleek. Esandako filma gaur, ekainak 5, estreinatu da, Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren harira.

Ekainaren 18an, Lenny Abrahamsonen *Garaje* ize-neko drama emango dute; eta ekinaren 25ean, Lucia Pienzo argentinarraren *XXY* filaren txanda izango da.

Film guztiak Zabalotegin izango dira, 20:00etan, eta sarrera bakoitzak bi euro balioko du. Leihatila saio bakoitzaz baino ordubete lehenago irekiko da.

> PINTURA
Laia Bedos artista kataluniarraren lanak Aroztegin

Aroztegi aretoak erakusketa berria hartuko du ekinaren 12an. Bergara Hiria erakusketaren ondotik, Bartzelonako margolari Laia Bedosen lanak ikusi ahalko dira areto horretan. Ekainaren 28ra arte egongo da bisitatzeko aukera.

Aroztegi aretoko atæk zabalik egongo dira martiteznetik domekara bitartean: martiteznetik egubakoitzera arratsaldez, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



Bergara Hiria pilota txapelketako finalen ondoren, sari banaketa ekitaldia egin zuten.

MIREIA BIKUÑA

PILOTA > FINALAK

Ezkurdia-Peña eta Idoate-Larrinaga nagusi Bergara Hiria pilota txapelketan

Hurrenez hurren, Apezetxea-Arzelusen (22-18) eta Yoldi-Merinoren (22-12) kontra nagusitu ziren bikote txapeldunak, nor bere mailan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
XIV. Bergara Hiria pilota txapelketak irabazle berriak ditu astelehena ezkerro: 22 urtez azpikoeitan Ezkurdia eta Peña irabazi zuten Apezetxea-Arzelusen kontra (22-18); eta nagusien mailan Idoatek eta Larrinagak 22-12 irabazi zieten Yoldiri eta Merinori. Hitzordu importantea zen eta, jaietan egon arren, zale asko bildu zen pilotaleku finalak ikusteko. Zale asko finaleko pilotarien jarraitzaileak ziren.

Lehen finalean Ezkurdia eta Peña (gorriz) nagusitu ziren hasieratik. Apezetxea aurrelariak huts asko egin zituen hasierako tantoetan, eta bikote gorria 12-6 aurreratu zen. Bikote urdinako atzelari Arzelusek ondo eutsi zuen atzean, eta Apezetxea aurreko koadroetan gauzak ondo egiten hasi zenean, 0-6ko partziala egin eta 13-12 hurbildu ziren markagailuan.

Handik aurrera lehia oso parekatua izan zen, eta gehienez ere

hiru tantoko aldea izan zuen bikote gorriak. Partiduko tantorik erabakigarrienetan, baina, Apezetxeak dejada batzuk behera bota zituen, eta lehiari buelta emateko aukera guztia galdu zituzten.

Ezkurdia izan zen 22 urtez azpiko finalko pilotari onena.

NAGUSIEN MAILAKO FINALA
Nagusien mailan Teledonosti txapelketa irabazi berri duen Yoldi (urdinez) pilotaria ikusteko irrikantzen zituzten zaleak, baina, agian,

aurreko eguneko finaleko nekea nabaritu zuen, eta motel ibili zen aurreko koadroetan. Gainera, bikote gorriko aurrelari Idoatek dejada asko egin zituen zabalean eta txokoan. Yoldi eta Merino 4-5 aurreratu ziren, baina Idoatek aurrean egindako lanari esker 17-6 jarri zen aurretik bikote gorria. Urdinek lau tanto egin zituzten jarraian, baina Idoatek ez zuen ahuleziarik azaldu eta lehia irabazteko aukera barik geratu ziren. Idoate izan zen jokalari onena.

EDEL TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kordinak, kordinoiak,
koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulgoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untzia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Mujika gozategia




Bizkotxoak
Errelenoa
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34



MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

KULTURA > ARKUPEK, URTEBETE

Udalak uste du herritarren nahiak bete dituela Arkupek

Urtebete egin du Arkupe kultura etxeak eta Kultura arduradunak pozik daude erabiltzaile kopuruarekin: "Herritarrek oso ondo erantzun dute"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Era apalean ospatuko dute Arkupe kultura etxearen urteurrena, baina Kultura arduradunak pozik daude urtebeteko jardunarekin. Halaxe adierazi digu Kultura batzordeko buru Inaxio Garrok: "Herritarren itxaropen eta nahiak betetzea lortu dugula uste dut. Kultura arloko hainbat kontu eskaini dugu urtebetean eta herritarrek oso ondo erantzun dute. Liburutegiko erabiltzaile kopuruak ere gora egin du".

Liburutegia, musika eskola, gaztelekua, erakusketa aretoa, Kultura teknikarien egoitza eta Zaraia aretoa daude Arkupen. Aretoak 99 lagunendako lekuak dauka eta batzuetan txiki geratu izan da: "Formatu txiki eta ertaineko ikuskizunetarako apartekoak da, eta halaxe jakinari digute bertatik pasatutako hizlari eta kantari batzuek. Herritarren ikuspegitik ere areto erosoa, atsegina eta erakargarria dela esango nuke", dio Garrok.

AMA LUR ENPRESAREN JARDUNA

Udalak erabaki zuen enpresa bat hartzea Arkupe kudeatzeko eta Ama Lur hautatu zuen iaz, urrian. Abenduan hasi zen lanean eta urtebeterako egin zioten kontratua, beste urtebetez luatzeko aukerarekin. Oraindik sei hilabete bakarrik daramatza, eta Garrok adierazi du enpresaren jardunaren gaineko baloraziorik ez dutela egin.

Azken asteotan, ostera, kultura plana egiten dabilta. Herritarren ikuspegitik ere areto erosoa, atsegina eta erakargarria dela esango nuke", dio Garrok.



Txotxongilo erakusketa ikusten ikasleak, eguztenean.

GOIENKARIA

Baso fundazioko presidentea eta Kutxako ordezkaria izan ziren ekitaldian

M.A. > ARETXABAleta

Orain dela sei bat hilabete bukatu zuten Iturriondo parkea txukuntzen, baina horren berri eman barik zeukan. Horregatik, lanak egin dituen Basoa fundazioko presidente Jorge Askasibar eta dirua jarri duen Kutxako ordezkari Mikel Irizar batu egin ziren, lanen nondik norakoak azaltzeko.

URKULURA BIDEA

Arkarazo auzora bidean eskualderago Iturriondo parkea. Eta orain Urkulu urtegira joateko bidea dago bertatik. Basoa fundazioak berreskuratu egin du Urkulura joateko bigarren bide hori -Bainetxe industrialdetik gora, Bolinagatik Areantza auzora-. "Oso bide polita da, iturri bat ere berreskuratu dugu, eta Iturriondo parkeak, zuhaitz eta zuhaixka askorekin, balio eran-



Kutxako Mikel Irizar, Inaxio Garro alkatea eta Basoako Jorge Askasibar.

MIRARI ALTUBE

INGURUMENA > ITURRIONDO PARKEA

Iturriondo parkeko egokitzapen lanak aurkeztu dituzte

tsia ematen dio", jakinarazi zuen Askasibarrek. Horregatik, Iturriondo parkearen bultzatzalea izan ziren Anjel Loidi eta Jose Mari Sarasua eskertu zituzten elkartutakoek.

Kutxaren izenean izan zen Mikel Irizar pozik azaldu zen lan-kidetzan egindako proiektuarekin: "Ingurumena zaintzeko, lehenengo ezagutu egin behar da. Horregatik, kalearrak naturara

hurbildu behar du", esan zuen, eta gaineratu zuen kontzientzia ekologikotik ekintzara pasatzea dela hurrengo egitasmoa. Lanen kostua 40.954 euro izan da eta Kutxak bere gain hartu du.

INGURUMENA

Gidatzean gehiago aurreztekiko ikastaroa


Teorikoa eta praktikoa da; izena aurrez eman behar da, hilaren 12rako

M.A. > ARETXABAleta

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da gaur, ekainak 5, eta horren harira Aste Berdea dabil antolatzen Ingurumen Saila. Ekainaren 15etik 19ra bitartean egingo ditu ekitaldiak eta tartean, gidatze ekonomikoaren gaineko ikastaroa dago.

LAU ORDUKO IKASTAROA

Automobilak zelan gidatu era-kutsiko dute ikastaroan, gutxiago kutsatu eta gehiago aurreztu ahal izateko. Ekainaren 16an, martxena, egingo dute eta lau ordu izango dira, teoria eta praktika bateratuta. Debalde da ikastaroa eta automobilak ere antolatzaleek ekarriko dituzte. Ingurumen teknikariaren esanetan benetan interesgarria da, dirutan zenbat aurreratzen den jakin daitekeelako. Interesatuek izena aurrez eman behar dute, hilaren 12rako hain zuzen. Horretarako edo argibide gehiago eskatzeko Arkupe kultura etxera deitu behar da, 943 08 10 01.



Zenbaki Ahokulariak

Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak,
- Penal: Hutsegite epaietak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

- Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
- Fiskala:** Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- Kontabilitatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAleta. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es



Mobiliario ARENADA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

LANAK > KIROL ETXEA

Kirol etxea egiteko lehiaketara 19 enprese aurkeztu dira

Martitzenean zabaldzu zituzten 19 enpresek aurkeztutako eskaintza ekonomikoak; 10,6 milioi eta 13 milioi euro artean egongo da

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Maiatzaren 28an bukatu zen kirol etxea eraikitzeo lehiaketara aurkezko epea eta 19 enpresaren proposamenak jaso ditu Udalak. Martitzenean, hain zuzen, zabaldzu zituzten 19 enprese horien eskaintza ekonomikoak. Merke-

ena 10.600.000 eurokoa izan da (BEZ barne) eta garestiena, ostea, 13.000.000 eurokoa. Eraikitze epeari dagokionean, osteria, 17 eta 20 hilabete artean egongo da.

Epaimehaia osatuko du orain Udalak 19 eskaintza horiek aztertu eta baloratzeko. Lanen alderdi teknikoaren azterketa Hiri-gintza teknikariak egingo du, kirol etxearen proiektua egin duten Asier Acuriola eta Fernando Bajo arkitektoekin batera. Horretarako ez dute zehaztu datarik –proposamen asko direla– baina Udalak gurako luke uztail hasieran lanak esleitu eta irail hasieran eraikitzen hastea.

Bestalde, eraikitze lan horiei jarraipena egiteko, hau da, epeak eta gastuak errespetatzen dituztela zaintzeko, kudeaketa enprese bat hartuko du Udalak. Bi enprese aurkeztu dira eta datoren astelehenean hautatuko du bietako bat Gobernu Batzordeak. Hautatuko enprese hori ere epaimahaiko kide izango da.

ALDUNDIAREN DIRULAGUNTZA

Bestalde, kirol etxeko lanen finantzazioari dagokionean, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu du dirulaguntza ematea: 1.700.000 euro emango dizkiola jakinariaz dio Udalari.



Kirol etxe berriak izango duen itxura.

ARETXABALETAKO UDALA

> BIDAIAK

Imsersoren bidaietarako izenemate epea zabalik dago ekainaren 20a arte

Imsersok erretiratuendako urtero eskaintzen dituen bidaietan izena emateko epea zabalik dago. Ekainaren 20an bukatuko da eta interesatuek udaletxeko Gizarte Zerbituetara jo behar dute argibideak eskatzeko eta eskaera orria betetzeo (Myriam Beltran de Heredia).

> ODOL-ATERATZEA

Ekainaren 8an eta 16an odol-ateratzeak izango dira osasun etxeen

Arabako Odol Bankuko ardudunak etorriko dira Aretxabale-tako osasun etxera odol-ateratzeak egitera. Hona egunak: ekainak 8 (astelehena) eta 16 (martitzena). 16:30etik 20:00etara bitartean egongo dira bi egun horietan, odola eman gura duten herritarren zain.



Errekabarren 3, behea ARETXABAleta
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak

• Obra bukaerako garbiketak

• Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak

• Kristalen garbiketak

• Arropa garbiketak



Fiskala
Kontablea
Juridiko/laborala

2008ko ondare eta errenta
aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 UDA Tel. 943 79 29 26

ETXEBIZITZAK > ZOZKETA

Ugarkaldeko etxeen zozketa, astelehenean

Kirolegian egingo duten zozketan 480 lagunek hartuko dute parte, Ugarkalde 5. eta 6. zenbakietako etxeak eskuratzeko asmoz

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
San Martineko etxeen zozketan zorterik izan ez zutenek bigarren aukera dute babes ofizialeko etxea eskuratzeko. Hain zuzen ere, Ugarkalde 5. eta 6. zenbakietako 40 etxe zozketatuko dituzte astelehenean, hilaren 8an, kirolegiko pilotalekuaren 17:30ean.

Ugarkaldeko etxeen zozketa egiteko San Martineko etxeen zozketarako erabilitako zerrenda bera erabiliko dute.

LAU KUPO

Lehen hiru zozketak ezinduen, familia ugarien eta Etxebiden lau urtez baino gehiagoz izena emanda dauden artean egingo dituzte. Eskatzailerik ez dagoen kupoetako etxeak ordezkoen zerrendako eskatzileen artean banatuko dituzte, Etxebidek baimena ematen badu. Laugarren



Ugarkaldeko 5. eta 6. zenbakietako etxeak bukatzean daude.

MIREIA BIKUÑA

kupoan banatuko dituzte gainerako 34 etxeak. Kupo orokorreko ontzian 478 izen sartuko dituzte. Dena den, kopurua aldatu egin daiteke San Martineko etxeak ematen doazen neurrian.

HURRENGO ZOZKETAK

Udalak egin asmo dituen hurrengo zozketak Kasablanakoko (12 etxe) eta San Martineko (32 etxe) babes ofizialeko etxeak dira. Ez dituzte zehaztu zozketa egunak.

Maiatzean bazkaria egin zuten egungo langileek eta erretiratuek, irailetik aurrera hitzaldiak eta Gabonetan ekitaldi berezia egingo dituzte. Maiatzaren 8an bazar orokorra egin zutenean bazkaria egin zuten egungo langileek eta erretiratuta daudenek. Omenaldia egin zieten 25 urteotan enpresan lan egindako erretiratuei.

M.B. > OÑATI

Ulma Manutencionek 25 urte bete ditu gaur, eta urteurrena ospatzeko askotariko ekitaldiak egingo dituzte irailetik aurrera; besteak beste, hitzaldiak eta Gabonetan ekitaldi berezia egingo dituzte. Maiatzaren 8an bazar orokorra egin zutenean bazkaria egin zuten egungo langileek eta erretiratuta daudenek. Omenaldia egin zieten 25 urteotan enpresan lan egindako erretiratuei.

LANPOSTUAK MANTENTZEKO

1984. urteko ekainaren 5ean sortu zen Oinakar Kooperatiba Elkartea, Euskadiko Kutxaren Enpresa Dibisioaren ekimenez. Labeko-Chocolates Loyola enpresa ixtear zegoen, eta hango langileei irtenbidea emateko asmoz orga jasotzaileak fabrikatu eta banatzeko enpresa sortu zuten.

ENPRESA > OSPAKIZUNAK

Ulma Manutencionek 25 urte bete ditu eta ekitaldiak egingo dituzte irailetik aurrera



Jose Mari Loiti (bigarrena eskuinetik) eta Industri sailburu zen Josu Ortuondo (hirugarrena eskuinetik) 1991ko azoka batean. ULMA

Jose Mari Loiti arrasatearra izan zen egitasmoaren bultzatzaile eta enpresako lehen gerentea, Jose Mari Ormaetxeak eta Jabier Reteigik hala proposatuta. Hasierako urteetan orga jasotzaileen nego-

zio jarduerak garai gogorrak bizi izan zituen. "Japoniako Mitsubishi eta NYK markak eta Oinakar Kooperatiba Elkartea osatzen genuen pertsonen arteko sintonia onari esker gainditu genituen

> ANTZERKIA

'Euskara sencilloaren manifiesta' antzezlana gaur, Euskaltegiaren urteurrenako ekitaldien barruan

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiaren 25. urteurrenako ekitaldien barruan, *'Euskara sencilloaren manifiesta'* antzezlana egingo du gaur Maskarada taldeak, 22:30ean Santa Anan. Sarrera doan da. Euskaldun-berri diren bi aktore (Mikel Martinez eta Patxo Telleria) euskara ikasten dabiltsan bi ikasleren larraun sartuko dira, eta euskara ikasteak sortzen duten sufri mendua barre egingo dute.

Bestalde, euskaltegiaren ospakizunekin bukatzeko bazkaria egingo dute hilaren 20an Etxeberria jatetxean. Bazkarian parte hartu gura dutenek hilaren 10a baino lehen eman beharko dute izena euskaltegian bertan.

> JAIAK

Auzo afaria eta herri kirolen jaialdia egingo dute Araotzen aste bukaeran Trinitate jaia ospatzeko

Trinitate jaia ospatuko dituzte bihar eta etzi Araotzen. Askotariko ekitaldiak egingo dituzte. Biher, 16:00etan mendi bizi-kleta irteera egingo dute, 16:30ean mus txapelketa eta 17:00etan haurrendako jolasak. 21:00etan auzo afaria egingo dute Saloian, bertsolariekin eta trikitilariekin. Eguna bukatzeko, 00:00etan bolo txapelketa egingo dute.

Domekan, 11:00etan meza egingo dute, eta 11:30ean herri kirol jaialdia: Atutxa eta Mugertza aizkolariek eta Goenetxea harrijasotzaileak parte hartuko dute. Musika saioa eta Maider trikitilariek jarriko dute. Herriko bertsoariek saioa egingo dute.

> ERRETIRATUAK

Jesusa Aranburu eta Jose Mari Kortabarria omenduko dituzte domekan, erretiratuen bazkarian

Pake Lekuk domekan bukatuko du Erretiratuen Astea. Bazkaria egingo dute Zubikoa kirolegian, eta herriko bi erretiratu omenduko dituzte. Hain justu ere, 94 urte dituen Jesusa Aranburu eta 90 urte dituen Jose Mari Kortabarria. Udal ordezkarien eskutik, orioigarriak jasoko dituzte. Gainera, Udal Musika Bandak eta Oñatz dantza taldeak emanaldia egingo dute. Bazkaldu ondoren, bertso eskolako kideek saioa egingo dute.

na, Mitsubishi -orga jasotzaileen ekoizle erraldoia -, eta Daifuku -sistema automatikoen munduko lehen ekoizlea- eragile garrantzitsuak izan ziren orduko proiektua kooperatiba elkarreko indartsu eta berritzale bilakatzeko", esan digu Loitik.

BI NEGOZIO

1998az geroztik Ulma Manutencion Kooperatiba Elkartea bi negoziok osatzen dute: Ulma Orga Jasotzaileak eta Ulma Handling Systems.

Orga Jasotzaileak negozioan biltegi kanpoan edo barruan lan egiteko orga jasotzaile berriak, eraberrituak edo bigarren eskuakoak saldu eta alokatzen dituzte. Bestalde, Ulma Handling Systems-ek ingeniaritza alorreko lanetan oinarritzen du jarduera; besteak beste, banaketa eta fabrikazio sistema automatikoa garatuz.

Bi negoziok kalitatea eta bikaintasuna bermatzen dituzten ziurtagiriak dituzte.



**EKAINAREN 7an
BERGARA!!!**



0-6 GUNEA


- 1 SAN MARTIN ESKOLA
- 2 IPINTZA BHI
- 3 IPINTZA DBH
- 4 M. IRALA

6-12 GUNEA

- 5 SANTA MARINA



Euskal Eskola Publikoaren 18. Jaia



GLHBI



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Bergara

ERDIKO GUNEA

KULTUR ANIZTASUNAREN GUNEA



6

7

8

3

SAN MARTIN PLAZA

MUNIBE PLAZA

KALE ANIMAZIOA

HHI-EPA Bergara



IPINTZA

Bigarren Hezkuntzako Institutua

Obatu Euskal Eskola Publikoari



Ekainak zazpi, ba al dozu planik?
Bestela, hemen Bergaran
denon artian, gertatu dogu
ondo pasatzeko aukera.

Esan lagunei eta etorri
autobusian sartuta
elkarrekin gozatzera
gure herria ezagutzera
gure herria ezagutzera.

Guraso, ume eta irakasle
denok eskutik helduta
obatu elkarri bultzza dezagun
gure Eskola Publikoa
Euskal Eskola Publikoa!



ehi_{ge}
gurasoen elkartea

www.ehige-jaia.org



Sagastikoa beharrean ohiko sarrerak erabiltzeko eskaria egin du Udalak; biribilgunea egiteko tramiteak hasi dituzte.

ERREPIDEAK > MANIOBRAK

Sagastiko sarrera modu okerrean erabiltzen da

Istripu larriren bat gertatu baino lehen herrira sartzeko ohiko sarrera erabiltzeko eskatu diete Udaletik auto gidariei, bando baten bidez

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Gidari askok, Bergarako Antzuola datozena, herrian sartzen Sagastiko sarrera erabiltzen dute la ohartu dira Udalean. Maniorra arriskutsua dela gogoraziz bandoa zabaldu dute herrian, hauxe esanez: "Istripu larri bat

gertatu baino lehen, herrira sartzeko ohiko sarrera erabiltzea eskatzen dizuet".

Idatzian jakinarazi du toki horretan biribilgunea egiteko tramatizioak amaitzen dabilela eta gero Foru Aldundiaren esku geratuko dela lanak egitea.

ANTIGUAKO GELTOKIA

Bestalde, herriarrei gogorarazi nahi die Aste Santu aurretik Zumarragara doan autobus lineaaren geltokia Antiguako markesinan kokatu zutela eta han itxoin behar dutela erabiltzaileek, ez bidegurutzear.

Errepide eta garraio azpiegitura horien gaineko informazio gehiago nahi duenak e-posta bidez jo dezake alkatearengana, helbide honetara mezua idatzita: alkatea@antzula.net.

POLITIKA

Batzar Nagusietako autobusa, plazan

I.A. > ANTZUOLA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek kanpaina ibiltaria egiten dihardute Gipuzkoako herrietan barrena erakundearen funtzioak azaltzeko.

Ekimenaren helburua da erakunde parlamentarioaren ezagutza orokorra bultzatzea eta haren balioak sustatzea: "Elkarritzeta, tolerantzia, elkartasuna, bakea, bestarekiko errespetua eta indar demokratikoa", diote kanpainen bultzatzaleek.

Antzuolan, ekainaren 8tik 11ra bitartean egongo da autobusa Torresoroa inguruan. Goizez 09:30etik 14:30era eta arratsaldez 16:00etik 19:30era bisitatu ahal izango dute herritarrek.

GOBERNU TALDEA, AURKA

Antzuolako Udaleko Gobernu taldeko kideek erabaki dute ekimen horrekin bat ez egitea, eta hori jakinaraziko diote Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariari idatzi baten bitarbez. "Ezker abertzalearen bozka aintzat hartzen ez duen erakunde herriaren aurrean erakunde demokratiko moduan azaltza ez da zilegia", esan digu alkateak euren gaitzespena arrazoitzu.

bere ustez



Kontxi Laskurain

Librerian hogeita hamar urte

A urten 30 urte egingo ditut liburu dendarekin. Herria kulturara esnatze ilusioarekin hasi nintzen, hortik izena: Itzar (itzartu=esnatu).

Laster konturatutu nintzen liburuekin negozioa egitea oso zaila dela: nobedadeak ekarri 30 egunera ordainduta, eduki bost edo sei hilabetez eta gehienak bueltan joaten dira. Baino oso gutxi irabazita ere beti tematu naiz apala batzuk liburuekin edukitzuen; izan ere maite ditut liburuak.

"Familia gertu izan dut librerian laguntzeko eta bihotzez nire eskerrik beroena"

Urte hauetan guztietan denetik bizi izan dugu liburu dendan: hiru lapurreta, uholdeak, bezero askoren esker ona, lagunak egin ditugu, poztasuna ipuin baten aurrean umeen aurpegi alaia ikusita... Eta beti familia gertu izan dut librerian laguntzeko eta bihotzez nire eskerrik beroena eurendako.

Esaten dute denbora gutxian dendak desagertu egingo direla, eta Internet sarearen bitarbez egingo ditugula erosketak.

Baina nik nahiago dut umeen irribarrea ikustea eta jendearekin elkarritzetan egotea. Hortaz, hemen jarraituko dut, paperaren munduan, herriari zerbitzua ematen... Bezeroak etortzen badira bai behintzat!

ELKARTASUNA > ANELKAR

Kantu afarirako txartelak salgai ipini dituzte

Jasotako dirua proiektuak egiteko bideratuko da, Kongora eta Senegalera

I.A. > ANTZUOLA
Anelkar elkartea ekainaren 20rako elkartasun jaia antolatu du. Kantu afaria gertatu dute, Fermin Balentziak gidatuta. Afaria

herriko plazan izango da eta, euria eginez gero, elizako arkupeetan. Gaur, egubakoitzta, ipini dituzte afaritarako txartelak salgai eta ekainaren 16ra bitartean erosi ahal izango dira Itzar liburu denden, Gorosti tabernan eta Nerea drogerian, 20 eurotan helduek eta 10 eurotan gaztetxoek.

Afaritan tripa bete ostean kantu eta elkartasun giroan abestuko dute herritarrek.

AITZURRAK, URA ETA MAKINA

Afariko dirua Kongora eta Sene galera bideratuko dute. Kongon ur biltegiak egin dituzte eta ura zabaltzea da hurrengo lana; bestalde, oinarrizko tresna diren aitzurrak ere erosiko dituzte. Senegalen, Djemdring herrian, arroza zuritzeko makina erosiko dute eta Bartzelonako Caravana Solidaria elkartearren bitartez ere materiala bidaliko dute.

> EPAIKETA

Urtebeteko zigorra aizkorarekin koinatua zauritzeagatik

Gizonezko bati urtebeteko kartzela zigorra, 90 euroko isuna eta mediku tratamendua jarri dizkiote, Antzuolan koinatua aizkora batekin zauritzea egotzita. Orain dela bi urte, izaera desoreka duen gizona arrebaren etxearen sartzen saiatzen aizkora batekin eta, koinatua erabaidai izan ostean, besoan eta sudurrean egin zizkion zauriak.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apaintetak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Apaintetarako eta industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikoko 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozategia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatu eta
bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikoko 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

JAIAK > XIII. ESKORIATZAKO FERIXIE

Artisauetza eta baserriko produktuez beteko dira bihar herriko kaleak

Arizmendi ikastolako Jose Arana guneak antolatutako XIII. Ferixie egingo dute bihar; aurten, guztira, 80 postu inguru jarriko dituzte

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA
Urtero moduan, Arizmendi ikastolak antolatutako Ferixiaz gozatzeko aukera izango dute bihar, zapatua, eskoriatzarrek. Aurten egitaraua hiru berrikuntza nagusirekin dator. Batetik, goiz partean Eriz magoak haurrendako eskañiko duen ikuskizuna dago. Bigarren berrikuntza herri bazkariak izango duen formatu aldaketaren harira dator.

Azken horren harira, Ferixiaren koordinatzaile Olatz Arresekin azaldu digu, arrazoi ekonomikoak direla-eta, urtero pilotalekuant antolatu izan duten bazkaria aurten ezin izan dute la aurrera atera. Horren ordez, herriko plazan mahaiak eta aukiak jarriko dituzte jai giroan jarraitu gura dutenek bertan bazkaldu dezaten. Hori bai, bazkaria eramatea norberaren esku geratuko da.

Azkenik, argazki lehiaketa egingo dute, aurten lehen aldiz.



Urtero bezala, goiz guztian zehar talo goxoak egingo dituzte elizpean.

GOIENKARIA



Axtroki argazki taldeak antolatu du ekimen berri hori. Izennetxea egunean bertan izango da, 09:00etatik 10:00etara, plazan.

Gainontzeko ekimenetan ez da aldaketarik egongo. Jaiari 09:00etan emango diote hasiera,

ALDAKETAK

Autobusak, Alzan eta Intxaurtxuetan

Bihar, zapatua, Arizmendi ikastolak antolatzen duen XIII. Ferixie dela-eta, Udalak eskoriatzarrei ohartarazi die ohiko autobus geltokiak aldatu egindo direla.

Gaztañadui kaleko 15. zenbakitik Aranburuzabala kaleko 12. zenbakira bitarteko bide zatia moztuta egongo dela gogorarazi du; hau da, estanko paretik Arbiñosteko irteeraraino. Esandako bidea gaur, barikua, 14:00etatik itxiko dute, eta bihar, zapatua, 17:00etan dute zabaltzeko asmoa.

Hortaz, gaur eta bihar artean, autobus geltoki bi egongo dira herrian: Aingeru Guarda pasealekuoa, Alza ondoan; eta Intxaurtxuetako.

etxafuego jaurtiketarekin eta, jarraian, txistulariek kalejira egingo dute. Azoka 10:00etan zabalduko dute. Arresek aipatu du aurten 80 postu inguru egingo direla.

ETXEKO POSTUAK

Azokan ez da Eskoriatzako artisaurik eta baserritarrik faltako: guztira, hamasei postu jarriko dituzte etxeako. Horietan denetarik aurkituko dugu: egur taila, pilotak, gazta, txerrikiak, baratzeko produktuak edo ardoa, beste askoren artean.

10:15etik 11:15era, bestalde, XII. Txorimalo lehiaketa egingo dute. Bitartean, haur eta gazteendako tailerrak eta puzgarriak egongo dira plazan. 11:30ean, iaz abian jarritako txapelketa hasiko da ikastolan: gatzarena. Egurdi trikitilariak irtengo dira, eta 13:00etan, herriko dantza talde-

DATUA

80
POSTU

Aurten 80 postu inguru jarriko dituzte. Horietatik erdiak baino gehiago artisauenak izango dira, eta gainontzekoan, baserriko produktuak eskuratu ahalko dira.

aren ikuskizunaren txanda izango da, plazan. 15:00etan bazkaria hasi aurretik, Ferixako postuen eta txorimalo lehiaketako sari banaketa egingo dute. Goiz osoan zehar, bestalde, taloajan ahalako da elizpean.

Arresek, azkenik, eguna ederto irten dadin boluntarioek urtero egiten duten lana txalotu gura izan du.



**13.
ferixie
Eskoriatza**
ekainak 6, larunbata

**Animatu
eta zatoz
ferixara!**

A
Arizmendi
ikastola
Jose Arana gunea



Irudian, herriko erretiratuak, Morellako Santa Maria la Mayor basilikaren aurrealdean.

GOIENKARIA

ERRETIRATUAK > MEDITERRANEO ALDERA BIDAIA

Oporretan ederto ibili dira erretiratuak

Guztira, 29 eskoriatzar egongo dira Oropesako Madina D'Orren maiatzaren 9tik 20ra bitartean

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Herriko erretiratuak oporretan egon dira. Hamaika egun eman dituzte Mediterraneo aldean. Maiatzaren 9tik 20ra bitartean

Oropesan izan dira, Marina D'Orren. Olazar erretiratuen elkartetik jakinarazi digute oso gustura ibili direla eta, orokorrean, oso ondo irten dela bidaia. Hondar-

tzaz eta eguzkiaz gozatzeaz gain, hainbat bisita ere egin dituzte; besteak beste, Valencian, Morellan, Cuevas de Vall de Uxonen eta Peñiscolan izan dira. Guztira, 29 lagun joan dira bidaiera.

DATOZEN EKIMENAK

Oporren ondotik, herriko erretiratuek ez dute aspertzeko astirik izango, ekainaren 11n Zarautzera irteera egingo dute-eta. Egun osoa pasako dute han. Horretaz aparte, San Pedro jaien harira, ohiko merienda izango dute ekainaren 25ean. Azken horretarako izenematea ekainaren 9tik 11ra egongo da zabalik, goizean.

> ATXILOKETA

Hiru pertsona atxilotu zituzten eguzaten goizaldean elektrizitate-kablea lapurtzeagatik

Ertzaintzak 18, 33 eta 40 urteko hiru gizonezko atxilotu zituen eguzaten goizaldean Eskoriatzako Mazmela elizatean, ustez indarkeriaz lapurreta egiteagatik. Kaleratutako prentsa oharraren arabera, gauerdi aldera Ertzaintzak partikular baten deia jaso zuen; horrek txaleten urbanizazioa egiten ari diren obretako kuxatilak manipulatzen ari zirela jakinarazi zion. Elektrizitate-kablea lapurtzen ari zirela bitartean atxilotu zituzten hiru gizonezkoak.



GOIENKARIA

Presoen aldeko bertso afaria

Barikuan, Dorleta elkartean, Eskoriatzako euskal presoen aldeko bertso afaria egin zuten. Horretan Uxue Alberdi eta Aitor Sarriegi bertsolariek parte hartu zuten. Horiek, baina, ez ziren kantuan ibili ziren bakarrak. Euren saioa amaitzean, eskoriatzar batzuk ere bertsoak botatzera ausartu ziren. Gustura egon zirela azaldu digute.

Maulanda merenderoa

Ondo ibili ferixen!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

ERREPIDEA > ARROTAKO LANAK

Lanak abuzturako amaitzea aurreikusten du Aldundiak

Errepidea itxi barik, ekainean 60 metroko harri-lubeta amaitzea aurreikusten dute, eta uztailean betelana egitea eta bidea konpontza

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Egoera negargarri dago Elgetatik Kanpanzarrerako bidea Arrota parean. Aldundia hasita dago lanak egiten, eta, arduradunen esanetan, errepidea itxi barik egingo dituzte. Hondeatzeko makinak lurra mugitzen ari diren heinean, ordea, errepidea gero eta gehiago hondoratzen ari da, eta egunotan birritan pentsatu beharra dago autoarekin bertatik igaro aurretik.

EUSTORMA EGITEN
Aldundiko Errepide Saileko Jose Antonio Navarroren esanetan, emergentiazko lana da Arrotan



Aldundiaren hondeatzeko makinak lanean dihardute Arrotan.

LARRAITZ ZEBERIO

egiten ari direna. "60 metroko harri-lubeta egin beharra dago, eta 40 metro eginda daude dagoeneko. Beste 20 metroak hil buka-

erarako egitea aurreikusten dugu. Gero, betelana egitea eta errepidea konpontza geldituko zaigu. Uste dut ez dugula arazo-

rik izango uztailean amaitzeko". Errepidearen trazatua zertxobait aldatuko dela aurreratu du Navarrok, "baina ezer gutxi".

FRONTENIS

Finalak bihar 18:30ean hasita

Frontoiko lanak amaitu berriak dira, eta lau partidu jokatuko dituzte

L.Z. > ELGETA
Lau norgiehiagoka jokatuko dira bihar, zapatua, lanak amaitu berriak diren Udal Pilotalekuaren.

18:30ean hasita, emakumezkoetan, Nagore Morales-Janire Lazcano eta Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa arituko dira lehenengo 3. eta 4. postuak erabakitzeko. Finala Rebeka Uberak eta Mireia Berriozabalek eta Idoia Sernak eta Nagore Ojangurenek jokatuko dute.

Gizonezkoetan, Asier Oso-ro, Asier Morales, Josu Aran-tzabal eta Eneko Ojanguren ikusiko ditugu lehenengo partiduan. Txapela lortzeko lehian Eñaut Arantzeta, Haritz Gallastegi, Hodei Zenitagoia eta Mikel Beretxinaga aritu-ko dira nor baino nor gehiago. Ikuskizun polita izango da.

JAIAK > EKITALDIAK EKAINLEAN

Aste bukaerero ekitaldi bat izango dugu ekainean

Ferixa Nagusiko jaiak bertan direla-eta, motorrak berotzen joateko ekitaldiz beteriko agenda dator ekainean

L.Z. > ELGETA
Ekaineko agenda beteta dator; izan ere, ekitaldi bat izango dugu herrian aste bukaerero.

Gaur 20:00etarako frontoia-ren inaugurazioa eta pilotarekin lotutako jolasak antolatu dituzte. 21:30ean lau terdiko ETB Kantxako lehenengo partiduak jokatuko dira; oso partidu onak, antolataileen esanetan. Bihar, berriz, frontenis txapelketako finalak jokatuko dira.

Datorren aste bukaeran II. motor jaiak izango dugu motor klasikoeren erakusketarekin, salmenta postuekin, kontzertuekin eta jolasekin, besteak beste.

Ekainaren 20rako Koadri- len Eguna antolatu dute Jai batzordeak eta hainbat eragilek. Egun osoko jai da. Goizean umeendako gaztelu puzgarriak egongo dira, eta gero, bazkaria herriko plazan, bakoitzak era-mandako janariarekin. Erdixka Lauetan taldearekin dantzaldia egongo da. Aurretik, eta Patxi Monteroren eskutik, korro-dantzen ikastaroa egingo dute Espa- loian ekainaren 17an, 18an eta 19an, 19:00etatik 21:00etara. Jau- ziak, Lantzko zortzikoa, zirkulu zirkasiarra eta Chapelloise bikotekako korro-dantzak eta Europa erdialdetik datorren Scottish bikoteak dantzak era- kutsiko ditu.

SAN JUAN SUA
San Juan sua egiteko ohitura indartzeko, sua, jolasak eta txitxi-burruntzia antolatu dituzte San Juan bezperarako. Ludotekatik eta gaztelekutik sua egiteko trasteak batzeko dei egin dute gaurko, barikua, 17:30ean.



Erretiratu taldea Gaztelun izan da arratsalde-pasa

Udaberriko eguraldi ona aprobetxatuz Abadiñoko Gaztelu auzoan egin zuen arratsalde-pasa argazkiko erretiratu taldeak. Xalbadorpe elkartea deituta ibilaldi polita egin zuten elkarrekin Abadiñoko paraje eder horretan.

Elkarteko kideek jakinarazi digutenez, itzuleran afari-merienda egin zuten Ozkarbi elkartean. Sarritan egiten dituzte horrelako txangoak. Ziur asko, laster antolatuko dute hurrengoa.

oharrak

ERAKUSKETA

>Sonia Mirandaren pinturak ikus-gabe Espaloian

Jon Holguin eibartarraren puzzleen ostean Sonia Mirandaren pinturak izango ditugu ekainean ikusgai kafe antzokian. Pintura modernoa egiten du Mirandak eta lanak salgai ere ipini ditu. Erakusketa hil amaierara arte egongo da zabalik.

TEKNIKARI BERRIA

>Laneanda Xabier Gabiña udal teknikari berria

Arabarria da udal teknikari berria, Araia koa. 31 urte ditu eta martitzien eta eguenetan aurkituko dugu udaletxeen lanean. Guztia garaiz prest egin dadin irailean inauguratzeko den Haurreskola berriarekin hasi da lanean buru-belarri.

KIROLA

>Kirolaren praktika sustatzeko ekimenek ekanaren 13an

Doan hainbat kirol jarduera egiteko aukera emango du Udalak ekainaren 13an. 16:30ean hasita, aerobik, spinning, sasoian ego-teko gimnasia eta pilates saioak egingo dituzte herriko plazan eta Maala parkean; eguraldi txarra-rekin, frontoian eta eskolan.



Peru Abarrategi, Antton Karretero, Xabi Igoa eta Maria Izaga. A. BARRUSO

BERTSOLARITZA > ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Aramaioko lau bertsolari gazte, finalera

A.B. > ARAMAIO

Maria Izaga eta Xabi Igoa, 14 urtetik gorako kategorian, eta Antton Karretero eta Peru Abarrategi, 14 urtetik beherako kategorian: lau aramaioarrek bat egingo dute Eskolartek Bertsolari Txapelketako finalean. Zapatuan izango da hori: 09:00etan idatzizko proba egin beharko dute eta 10:00etan bat-batekoa.

Eskarmentu handikoak dira laurak, behin baino gehiagotan hartu dute-eta parte txapelketa horretan. Xabi Igoak txapela ere eroan zuen behin eta azaldu digu "ez legokeela gaizki" berriro ere txapelarekin itzul-ztea. Urduri samar daudela esan digute, eta bat-bateko saioak ematen diela beldur handien. Lau aramaioar izanda, aukerak handiak dira txapela etxera ekartzeko. Ea horrela den!

KOPLATAN

Lau aramaioarrok egindako koplak

Larunbatez finala daukagu Gasteizen Animoz joango gara gu hara kantatzen.

Ta klaru izan hauxe orain eta hemen Ez garela joango denbora pasatzen!

Finalean sarturik daukagu muturra Izan nahi genukela txapelen lapurra.

Erakustera goaz dakigun apurra Ta a(ha)l bada ematen guztiei egurra!

AISIALDIA

Oporraldi programa 65 urtetik gorakoek

A.B. > ARAMAIO

Udako oporrak antolatzeko garaia da eta 65 urtetik gorakoek aurten ere eskaintza zabala izango dute oporreta-ra joateko: penintsulara bertara, Balearretara, Kanariar uharteetara eta Portugalera, besteak beste.

Oporren programa horretan parte hartzeko ezinbesteko da 65 urte edo gehiago iza-tea eta pentsio sistema publi-koko erretiro-pentsioduna izatea. Alarguntasun pentsio-duna izanez gero, berriz, 55 urte edo gehiago izan behar dira. Izenemate epea ekaina-ren 20an amaitzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, galduet udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan.

Alex Mendikute > AOBTKO presidente


"Andramari ermitako eskailerak konponduko ditugu hilaren 20an"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aramaioko Ondarea Berreskura-tzeko Taldeak agerraldia egin zuen eguztenean herritarren aurrean. Taldearen asmo eta proiektuen berri eman zuten. AOBTKO presidente Alex Mendikutek eman dizkigu xehetasun guztiak.

Aramaioko ondarea berresku-ratu nahi duzue. Zergatik?

Azken Udal Gobernua aldake-tarekin ipini genuen dena mar-txan. Herritarren parte-hartzea bultzatzeko deialdi bat baino gehiago egin zuten, eta geuk ere erabaki genuen zerbaite egin gene-zakeela. Aurretik ere eginda geni-tuen herriko ondarearen gaine-ko azterketa edo lantxo batzuk, eta hori guztia formalizatzea era-baki genuen.



Alex Mendikute. A. BARRUSO

Nola hasi zineten lanean?

Hasiera batean, gure asmoa zen Andramari ermitara doan bidea eta Ursalto bidea konpon-tzea. Hori egiteko Zuiako Koadrilaren ganea jo genuen dirulagun-tzak eskatzeko. Baina, badakizu, horrelakoetarako baldintza eta exijentzia asko egoten dira. Gure taldearen asmoak batzen zituen plan orokorra aurkezteko esan ziguten, herri mailan egin nahi genituen lanak jasoko zituen. Proiektua aurkezta dugu eta tal-dearen estatutuak ere sortu ditu-gu; orain, Zuiako Koadrilaren erantzunaren zain gaude.

Baina gehiago itxaron gabe lanean hastea erabaki duzue.

Bai, halaxe da. Prozesua luzea izaten ari da eta erabaki dugu lan txiki batzuk egiten has-tea. Gure asmoa da gaua txikiekin hastea, poliki-poliki auzola-nean lantxoak egiten joatea.

Noiz hasiko zarete lanean?

Bi egun finkatu ditugu dago-eneko: ekainaren 20an Andramari ermitako eskailerak konponduko ditugu; neguan haritz bat erori zen eta nahiko egoera txarrean daude. Egun berean bes-te lau pertsonak Maskañoko iturria konponduko dute. Ekainaren 27rako ere beste deialdi bat egin dugu: Sastiatik Ametzura doan bidea garbitu eta txukundu egingo dugu. Uste dut hasteko ez dagoela batere txarto.

Herritarren laguntza behar-ko duzue horretarako...

Bai, noski. Zenbat eta pertso-na gehiago elkartu, hobeto. Herritarren animatu nahi ditu-gu gure proiektuetan eta deial-dietan parte hartzen. Gainera, dena ez da lana izango, lagun artean ondo pasatzeko aukera polita izango da.

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik

•
sagardotegiko menua

•
karta

eguneko menua

•
ospakizunak

•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95

Goienkaria
astehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

MUNDUMIRA PACK-A



Mundumirako pack-a.
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.



UMEENTZAKO PUZZLEA



Argitxo eta bere lagunen puzlea.
Bidali AG PUZZLEA 5533 zkra.



KAMISETA



Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.



PENDRIVE



Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.



SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L. Abuinen eskutik

J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU

25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia
639 02 47 14

S. Josepe, 10
943 77 01 33

Kiroldegia
943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEza dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure dato pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

AZPIEGITURAK > ARGINDARRA

CHC Energiak banatuko du argindarra herrian

Leintzargi enpresak argindarra banatzen jarraitu arren, uztailaren 1etik aurrera herritarrek aukeratuko dute zein enpresak komertzializatu

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA Argindarraren banaketaren merkatua aldatu egingo da uztailaren 1etik aurrera. Aldaketa horrek ragindako enpresen artean Leintzargi dago, gatzagarrak argindarrez hornitzen dituen enpresa.

HERRITARREN AUKERAKETA

Orain arte Iberdrolari erosio dio argindarra Leintzargik eta gero banatu herritarren artean. Uztailaren 1etik aurrera, baina, argindarraren hornidura elektrizitatea komertzializatzen duten enpresek egingo dute. Udalaren asmoa da Leintzargik jarraitza argindarra banatzen, eta horretarako, CHC Energia izeneko enpresari utzi dio komertzializazioa. CIDE-energia elektrikoaren banatzaileak- kooperativako bazkide egin da Leintzargi eta CIDEk Hidrocantabrico enpresarekin batera sortu du CHC Energia.

Uztailaren 1ean indarrean sartuko den legearen arabera herritarrek argindar hornitzalea aukeratuko dute. Aldaketen eta aukera horien berri emateko gutuna bidaliko du hil honetan Udalak etxeetara. Hiru aukera izango dituzte herritarrek: norbere kontura adostu-



Gatzagako transformadorea, orain dela hilabete batzuk aldautakoa.

MIRARI ALTUBE

tako prezioan kontrataua egitea enpresa komertzializatzaile batekin; Espainiako Gobernuak izendatutako azken erre kuntsoko bost enpresetako batekin egitea kontrata; eta CHC Energia enpresarekin egitea. Aldaketarik egiteko eskatzen ez duten herritarrek CHC Energiaaren bitarte jasoko dute argindarra.

ZALANTZAK

Eusebio Villar alkatearen esanetan, oraindik ez dute nahiko argibide kontu horren gainean eta aldi zuri ofizialean argitaratu artean zaila izango da gehiago jakitea: "Legeak ez ditu kontuak garbi esaten; arazoen eta aldaketen berri behintzat ezer gutxi". Herritarrei guztiaren berri ematen ahaleginduko direla gaineratu du.

LANAK > ERREPIDEA

Arrate baserrirako bide sarrera egokitzen hasita daude dagoeneko

Lur zati bat kenduko dute ikuspen hobea izateko sartu-irtenetan

Azken lana Burdin Kurzoko bide sarrera egokitzea da

M.A. > LEINTZ GATZAGA Landagipuzkoa 32 egitasmo dirulaguntzari esker konponzten dabiltsan bide sarreren lanak aurrera doaz. Dagoeneko bukatuta dituzte Gatzagaingo eta Olaun Goikoa baserrirakoa eta orain Arrateko konponzten hasi dira.

Konponketa horien helburua da bide sarrera horietan guztietan ikuspena hobetzea eta auto gidariek segurtasun handiagoarekin egitea sartu-irtenak. Alkatea pozik dago orain arte eginda-

ko lanekin eta Arrateko ere konpondu beharrean zegoen bidegurutzea da: "Hemen ere lur zati bat kenduko dute ikuspena hobeteko". Hain zuzen lan hori izango da guztien artean korapilatsunea eta luzeena.

Hirugarren hori konpondutakoan bakarra geratuko da egiteko: Burdin Kurzoko. Hilabete batean bukatuta izango direla lan guztiak uste du Udalak.

Eta bukatzeko Goierri auzorako bide sarreran hainbat seinala eta ispilu jarriko dituzte.

Juanjo Arrieta eta Aitor Mendibil
> Realeko zuzendaritzako kideak

"Zubietan inbertitu behar dugu, hori izango da lehentasuna"

XABIER URTZELAI > BERGARA
Juanjo Arrieta bergararrak eta Aitor Mendibil aretxabaletarrak dagoeneko sei hilabete egin dituzte Realeko zuzendaritzan, Jokin Aperribairen taldean. Martitzenean Bergaran izan ziren, Realaren 100. urteurrenenko jaian, eta GOIENKARIarenko urte erdi honetan egindakoaren, lortu ez den igoeraren eta etorkizunean egin beharkodutenearen gainean egin zuten berba.

Dagoeneko urte erdi egin
duzue Realarenak lanean.
Zer moduz?

Juanjo Arrieta: Nahiko ondo. Gehienbat zenbakietan kontzentratu gara, lege konkursaletik zelan irten erabakitzeko. Eta lehenengo mailara igotzeko ere egin dugu ahalegina. Aurten ez dugu lortu, baina badugu datoren urterako plana.

Aitor Mendibil: Hilabete politik izan dira, eta baita gogorrak ere. Baina egiten duzun hori ondo eta garbi egiten ari zarela jakiteak indarra ematen du. Gainera, ez gaude bakarrik. Dauka-gun presidentea oso ona dela uste dut, barruan darama Realak. Eta, gainera, nik sekulako zortea izan dut, Juanjo Arrietarekin lan egiteko aukera daukalako.

Dagoeneko atzean geratu da azken batzar orokorrean izandako giro nahasi hura?

Juanjo Arrieta: Baitetz esan go nuke. Gainera, haserre zegoen jende horrekin izan gara berbetan eta orain momentuan nahi-kor lasai daude gauzak. Joan den astean Anoetan zuzendaritzaren dimisioa eskatzen zuen pankarta bat izan zen, baina nik uste dut lehen mailara igo ez izanagatik dagoen frustazioagatik izan zela.

Egoera makalean hartu zenu-
ten klubak.

Aitor Mendibil: Orduan esan genuen kluba desagertzeko zorian zegoela. Eta erraz esaten da hori, baina benetan egoera txarra zela. Eta egoera horretatik irteteko ahalegin handia egin dugu denok. Baita jokalariet ere. Hain zuzen, hori azpimarratu nahi-kor nuke, jokalariet klubaren alde egin duten ahalegina. Izan ere, jokalariet gauza asko utzi dituzte albo batera Realaren alde, eta uste dut jendeak jakin beharreko gauza dela hori.

Lehenengo mailara igotzea zen Realaren 100. urteurrenenko helburu nagusia, eta ez da lortu.

Juanjo Arrieta: Igoera lortzea urteurrena ospatzeko modu onena izango litzateke, baina ez da lortu, ez. Baina aurrera begiratu beharra dago, datorren denboraldia prestatzen hasi eta oraingoa poliki-poliki ahazten joan.

**Mailaz igotzeko zer falta izan
zaio aurten Realari?**

Aitor Mendibil: Zorte ona faltatzen zaigula esatea da errazena, baina neurri batean horrek eragina izan du. Hainbat partidutan gauza arraroak ikusi ditugu zelaian, eta Zaragozan gertatu zena da adibide garbia. Gero, lesioek ere ez gaitzute bakiaren utzi, eta Realeko erdiko zelaian igerri da gehien. Eta gauza horiek guztiak batera gertatzen direnean, ba, zaila da aldeko emaitzak lortzea.



Aitor Mendibil eta Juanjo Arrieta, Ipintzako zelaian, martitzenean, Realaren entrenamendu saioa ikusten.

XABIER URTZELAI

**"Aurten zortea bizkarra
eman digula esatea da
errazena, baina kasu
askotan horrela izan da"**

**"Athleticek ez du
Prietogatik galdeku,
baina bai beste talde
batzuek; ez dago salgai"**

Kluba dagoen moduan egonda,
Zubietan inbertitzea da, segu-
ruenik, egin daitekeen onena.
Hasi zarete hurrengo denboral-
dia planifikatzen?

Juanjo Arrieta: Bai, paper gainean nahiko planifikatuta daukagu, bai, baina entrenatzai-learekin berba egin beharko dugu hark ze asmo izango dituen jakiteko [Arrietak ez zuen entrena-
tzaile berriaren izenik esan,

baina adierazi zuen Lillori ekainean amaitzen zaiola kontratuak, eta jarraitzen Realak kategoriaz igo behar zuela]. Eta bai, argi eta garbi daukagu Zubietan inbertitu behar dugula, hori delako inbertsio onena. Arduradun berriak ekarriko ditugu Zubietara, etxeo balioak sustatzeko. Eta hori egiteko buruan daukan gizonak badu esperientzia [eguztenean Javi Perezen izena azaldu zen komunikabideetan]. Horretaz aparte, kanpotik fitxatuko ditugun hiruzpalau jokalarietik beste maila bat izan beharko dute, etxeen ez duguna osatzeko.

Urtero moduan, hasi dira zurrumurruak batera eta bes-
tera. Xabi Prietorengatik gal-
detu omen du Athleticek.

Juanjo Arrieta: Komunikabideren batean azaldu da hori, baina Bilbo aldetik guk ez dugu deirik jaso. Hori bai, beste talde batzuek galdeku dute zein den Xabi Prietoren egoera, eta guk argi eta garbi esan dugu jokalari hori ez dagoela salgai.

Aitor Mendibil: Xabi Prieto-ri orain egin diogu eskaintza bat, eta haren erantzunaren zain gau-
de. Baina Prieto Realeko jokalari-
ria da, Realzalea, mutiljatorra eta sekulako kalitatea daukana. Nik uste dut Realean geratuko dela.

Hiru partidu geratzen dira liga
amaitzeko. Logikoena gazteei
aukera ematea izango litzate-
ke.

Aitor Mendibil: Nik ere horrela uste dut, gustura ikusi-
ko nituzkeelako zelaian Javi Ros,
Iñigo Sarasola eta beste hainbat
jokalari. Baina erabaki horiek
arduradun teknikoek hartzen
dituzte.



Realeko ordezkarriak ibarreko udaletako, futbol peñetako eta futbol taldeetako ordezkariekin batera.

XABIER URTZELAI

Debagoienera ere iritsi da Realaren 100. urteurreneko ospakizuna

Realak Agorrosinen egin zuen martitzeneko entrena-
mendu saioa, baina jokalariak lanean hasi baino
lehenago Jokin Aperribai presidenteak Realaren 100.
urteurrenenko bandera eman zien Bergarako Udaleko
ordezkariei, ibarreko peña Realzaleei eta baita futbol
taldeetako ordezkariei ere. Talde txuri-urdinak
dagoeneko ez du lehenengo mailara igotzeko

aukerarik, eta pena izan zen aukera guztiak Bergara-
ra etorri aurretik agortu izanak. Hala ere, txuri-
urdinek harrera beroa izan zuten Bergaran, jende
asko joan zen-eta entrenamendu saioa ikustera.
Entrenamendu saio amaieran Xabi Prieto baiezta-
tu egin zuen Realean jarraitu gura duela; Lillok, berriz,
ez zuen adierazpenik egin gura izan.



23 urteren ondoren, erretratuaz azaltzen diren jokalari eta entrenatzaileek eraman dute berriro ere UDA hirugarren mailara.

GOIENKARIA

FUTBOLA > ARETXABALETA FUTBOL TALDEA

Badago erronka berria: taldea hirugarren mailara moldatzea

Amaitu da liga txapelketa, baina orain zuzendaritzak gogotik egin beharko du lan

23 garaipen, bost berdinketa eta sei porrot; horiek dira UDaren zenbakiak

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA
Amaitu da denboraldia, eta Aretxabaletako mutilek ondo egindako lanak ematen duen lasaitasunarekin hartuko dute oporturraldia. Baino datozen astean UDAko zuzendaritzak gogor

jarraituko du lanean, kategoria berriera moldatu beharko dute-lako, eta hor, erabaki zail bat baino gehiago hartu beharko dute. Taldea zuzentzerako orduan ez da aldaketarik izango, eta

Igor Gordobilek datorren urte-ari begira dagoeneko eskaera garbia egin die jokalariei: konpromisoa. Izan ere, hirugarren mailara igotzearen ametsa egia bilakatuta ere, jokalariek ondo

dakite urte gogorra izango dela, kategoria semi-profesional batera egin dute-eta salto.

KATEGORIA GOGORRENA

Askoren ustez, dagoen kategoria gogorrena da hirugarren maila; entrenamenduetako exijentzia maila gorago dauden kategorien bera da –UDAk lau entrenamendu egingo ditu astean–, eta liga hilabete luzeagoa izango da –abuztuko oporraldi barik geratuko dira, uztail amaieran hasiko dira-eta lanean–.

Gainera, Gordobilek errazak ez diren erabakiak hartu beharko ditu, taldea indartu egin beharko duelako eta nekez izango delako orain egon diren guztiendako lekua. Horrekin guziarekin ere, ederra izango da hirugarren mailan jokatzea.



Gordobilek eta Aranzubia lortu dute taldea igoerara zuzentzea.

GOIENKARIA

Urte biribila, emaitzetan

1. Berio - UDA	1-1
2. UDA - Pasaiako	0-1
3. UPV Vasconia - UDA	2-4
4. UDA - Real Unión B	0-3
5. Hondarribia - UDA	0-2
6. UDA - Ondarroa	0-0
7. Amaikak Bat - UDA	0-7
8. UDA - Zumaiako	1-0
9. Hernani - UDA	3-0
10. UDA Trintxerpe	2-2
11. Euskalduna - UDA	1-2
12. UDA - Anaitasuna	2-0
13. UDA - Idiazabal	2-0
14. Mundarroy - UDA	0-0
15. UDA - Tolosa	1-0
16. Mondra - UDA	1-2
17. UDA - Aloña Mendi	0-1
18. UDA - Berio	2-0
19. Pasaiako - UDA	3-1
20. UDA - UPV Vasconia	1-0
21. Real Unión B - UDA	3-1
22. UDA - Hondarribia	1-0
23. Ondarroa - UDA	0-1
24. UDA - Amaikak Bat	3-0
25. Zumaiako - UDA	0-2
26. UDA - Hernani	2-0
27. Trintxerpe - UDA	0-3
28. UDA - Euskalduna	2-1
29. Anaitasuna - UDA	0-1
30. Idiazabal - UDA	1-2
31. UDA - Mundarroy	2-1
32. Tolosa - UDA	1-2
33. UDA - Mondra	3-0
34. Aloña Mendi - UDA	1-1

GRUPO
ARKAUZ
ARETXABALETA • ARRASATE
1950 • 2009

jvs
obrajes

EGUZKIGRAF
inprimategia

MAPFRE

URKO
MANTENIMIENTO, S.L.

MAKAI
Koop

"la Caixa"

AUTO LASTERKETAK > GORLAKO XVIII. IGOERA

Gorlako Igoerarekin batera itzuliko da zapatuan Aitor Zabaleta ere

Auto lasterketako zaleek hutsune galanta igarri zuten iaz, ez zelako Gorlako Igoerarik egon

Antolaketa lanetan errelebua hartuta, bihar egingo dute ibarreko lasterketa entzutetsuena

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bihar, zapatua, egingo dute Gorlako Igoeraren 18. edizioa, Euskal Herriko mendiko sarirako baliagarria (16:00). Iaz ez zen probarik egin Gorlan, baina, lasterketa errekuperatzeko ahalegin handia eginda, atzetik etorri den autozale koadrila batek errelebua hartu eta, eurei esker, bihar berriro ere jendez beteko dira Gorlako bihurguneak.

ZABALETAREN ITZULERIA

Eta lasterketarekin batera itzuliko da, baita ere, Aitor Zabaleta (Lola Diamante). Bergarakoa lasterketetik erretiratuta ibili da, iaz ez zuen probarik korritu, baina etxeen korritzeak sorrarazteak duen irrikarekin itzultzea erabaki du; biharko lasterketarako bai, behintzat. Gainera, besteak

beste, 2007an irabazitako txapelketa defendatzeko ardura izango du Bergarako pilotuak. Proba aurretik Vilariñoren eta Zabalearen arteko lehiak bete zituen izenburu guztiak, baina entrenamendu saioko igoeran Ander Vilariñok istripua izan zuen. Bideko zulo baten autoaren kontrola galdu zuen eta bide bazterrean aparkatuta zeuden bi auto jo ondoren Arana Goikoa baserraren ondoan geratu zen. Hala, aurkari indartsuena igoeratik kanpo, Zabaleta izan zen azkarrena Gorlako Igoeran.

Zabaletarekin batera Lebeiti (Renault 5 Tour de Corse), Iñaki Alberdi (Ford Escort MK II), Txus Jaio (BMW 325i) eta Iñigo Alustiza (BMW M3 E30) lasterkariekin hartuko dute esku, besteak beste, eta azpimarratzeko da 52



Zabaletaren Lola Diamante autoa, azken igoeran.

DATUA

8

DEBAGOIENDAR

Inoiz baino Debagoieneko pilotu gehiago izango ditugu bihar egingo duten Gorlako Igoeran: zortzi. Horietako lau Bergarakoak dira, eta eurekin batera hiru oñatiar eta arrasatear bat daude.

pilotu izango direla irteera puntuant. Eta kontuan hartu behar da inoiz baino debagoiendar gehiago izango direla irteera puntuant: zortzi pilotu, guztira.

GUREKO PILOTUAK

Lehian izango dira Bergarako Aitor Zabaleta, Markel Agirre (Citroen Saxo VTS), Esteban Galartza (BMW 325i), eta Roberto Gomez (BMW 325 E36); Oñatiako Ruben Nogueiras (Silver Car), David Ardions (Renault Clio Sport) eta Aitor Ramirez (BMW 325i); eta Arrasateko Igor Orobengoa (Seat Ibiza TDI).

HERRIEN
elkartasuna
BOZKATU

iniciativa
INTERNACIONALISTA!

MOTO LASTERKETAK > KROS-COUNTRY BERGARAN

Domekan motor festa berezia egingo dute Bergaran

Goizean izango da txapelketa, Angiozarrera bidean dagoen zabortegian; ehunetik gora parte-hartzaile espero dituzte eta 10:30ean hasiko da

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Lehenengo aldiz kros-country lasterketa bat ikusteko aukera egongo da gurean. Domekan izango da, Bergaran, Angiozarrera bidean dagoen zabortegian. Orain arte moto-krosa antolatu izan dute Bergaran, Candy ondoan. Oraingoan, baina, modalitate ikusgarriagoa prestatu dute. Asier Blazquez Bergarako motorzaleak esan digu kros-countryaren berezitasuna dela "lur-eremu ezberdinetan" ibiltzea; hau da, zirkuituaz gain, basoan ere sartzen direla motorrak.

Domeka goziean izango da lasterketa. Parte hartzaleek 09:45era arte izango dute aukera izena

emateko; gero entrenamendu saioa egingo dute eta asmoa da 10:30ean lasterketa hastea. Iku-leek bost euro ordaindu beharko

DATUA

3
LASTERKETA

Bergarakoen asmoa da urtean hiru lasterketa antolatzea. Aurten bi egingo dituzte: domekakoa eta irailaren 19an jokatuko duten moto-krosa. Asmoa da aurrerago super-krosa ere antolatzen hastea.

dituzte lasterketa ikusteko; haurek, ostera, ez dute sarrera ordaindu beharrik izango. Txapelketa Gipuzkoako motorzaleen elkartea antolatu du.

BI KATEGORIA

Ibilbideak izango du, gutxi gorabehera, lau kilometro. Parte haritzaleek ordubetez ibili beharko dute lehian; tarte horretan itzuli gehien egiten duenak irabaziko du lasterketa. Bi kategoriatan banatuta egongo dira: txapelketa saila eta garaikur saila. Sail bakotzean gazteak eta nagusiak lehiatuko dira.

"Txapelketa sailean parte hartzen duten pilotuek maila hobea izaten dute; batzuk txapelketa nazionaletan parte hartzen dute-nak dira", azaldu du Blazquezek.

DEBAGOIENDARRAK

Domekan Bergarako lehenengo kros-country txapelketan hainbat debagoiendarrek parte hartuko dute. Egunean bertan izena eman daitekeenez, azken unera arte ez da jakingo ibarrekoen behin-behineko kopurua; baina dagoneko esan dute domekan zazpi bergarar egongo direla irteera puntuau.

Orain arte Candy ondoko zirkuituan antolatu izan dituzte motor lasterketak; orain, Angiozarrera bidean dagoen zabortegian antolatuko dute. Motorzaleen asmoa da Bergaran behin betiko zirkuitu egokia izatea, entrenamenduak egin eta lasterketak antolatzeko.



Iaz Bergaran egin zen moto-kros txapelketako irudia.

GOIENKARIA

BIGARREN ESKUKO AUTO AZOKA, ARRASATEN

EKAINAK 5, 6 ETA 7 Goizez eta arratsaldez irekita



OPEL ASTRA ENJOY **6.300 €***
1.6 16V 105 zp 2004



CHRYSLER PT CRUISER **8.300 €***
2.0 16V Touring 2002



KANGOO COMBI **13.000 €***
1.6 16V 95 zp 4x4 5 ate 2007



MÉGANE II EXPRESSION **12.500 €***
1.5 dCi 105 zp 5P 2007



LAGUNA II PRIVILEGE **9.000 €***
2.2 dCi 150 zp 2003



ESPACE EXPRESSION **17.000 €***
1.9 dCi 120 zp 5 ate 2005



MÉGANE SEDAN EXPRESSION **12.500 €***
1.5 dCi 105 zp 2007



CITRÖEN BERLINGO COMBI **8.000 €***
2.0 Hdi 2004



SEAT LEON **9.900 €***
1.9 Tdi Sport 5 ate 2004



TWINGO DYNAMIQUE **10.000 €***
1.2 dCi 75 zp 2008



GRAND SCÉNIC **17.000 €***
1.9 dCi 130 zp 2007



CITRÖEN XSARA PICASSO **8.000 €***
1.8 i 16V 2004



OPEL ASTRA COSMO **11.500 €***
1.9 CdTi 120 zp 5 ate 2005



CLIO III CONFORT EXPRESSION **11.000 €***
1.2 16V 75 zp 5 ate 2006



ESPACE EXPRESSION **19.500 €***
1.9 dCi 120 zp 2007

* Prezioan transferentzi gasteak barne. Argazkiko bertsioak baliteke bat ez etortzea eskainitako bertsioekin. Galduen 2000E Plana laguntza jasotzeko baldintzen inguruau.

www.renault.es/concesion/autoberri

AUTOBERRI

San Andres auzoa 8-9. Arrasate. Tel.: 943 71 24 72



ARRISKU OROKO
ASEGURUA DOAN GUREKIN
FINANTZATZEN BADUZU

APROBETXA EZAZU 2000E PLANA LAGUNTZA
BIGARREN ESKUKO AUTOENTZAKO

ETORTZEAGATIK OPARIA DUZU!



> ANTZERKIA

Hortzmuga taldearen 'Superplast' gaur Bergaran > **38**



> EMAKUMEA

'Edabe feministak: eusteko araoak' erakusketa Arrasaten > **39**

> UNAI MENDIKUTE

Akordeoia jotzen du txikitik gazte aretxabaletarrak eta Musikenen akordeoi ikasketak egiteko asmoz, azterketa gertatzen dabil orain > **42**



Gosekoak "hitzik gabe" itzuli dira Kurdistandik

Diyarbakirko Kultur Sanat Festivali delakoan parte hartu zuten aste bukaeran

Kurdistango egoera eta bizimodu ezagutzeko aukera izan dute

MIRIAN BITERI > ARRASATE
Arrasateko Gose taldeko kideak bueltan dira, joan den aste bukaeran Kurdistan aldean egon ostean. Diyarbakirko Kultur Sanat Festivali delakoan parte hartu dute han. Musika, zinema eta arte kurdua biltzen ditu jaialdiak.

Taldeko abeslari Ines Osinaga azaldu du "primeran" ibili direla han. Hiru egun bakarrik eman badituzte ere, egonaldiari probetxua atera diotela dio: "Jaialdian parte hartzeaz gain, hangoen bizimodu ezagutzeko denbora ere izan dugu".

Eskainitako musika emanaldia ere "ezin positiboagoa" izan dela dio: "Egia esan, ez dauagu hitzik. Ezin da azaldu etxetik 6.000 kilometroara dagoen toki batean 50.000 lagun saltoka ikustea zer den. Konturatu gara mugen ez dutela musikaz edo kulturaz ulertzan".

Jaialdiak lau egun iraun du eta, kontzertuez gain, askotariko ekimenak egon dira han, hala



Gose taldeko kideak, Turkiako kurdistango hiriburua Diyarbakirren.

ra, gaineratu dute "oso identifikatuta" sentitu direla Kurdistango egoerarekin. "Esaterako, kontaktu digute hango herriko alkatza kargutik kentzeko arriskua zegoela. Harritu egingo ginela uste dute".

Hori ez Baina, emakume helduen eta gazteen arteko ezberdin tasunekin, harritura geratu ziren: "Adineko emakumeak beloarekin joaten diren neurrian, jende gaztea oso irekia da-eta", dio.

Zuzeneko kontaktua ez da horretara mugatu. Lo bakoitzak bere hotelean egin badu ere, kurdukin bantzuko aukera ere izan dute arrasatearrek: "Kebabajan dugu behin eta berriro, bantzuko eta afaltzeko. Kebaba deitzen diote denari. Te asko ere edan dugu. Hangoek 25 bat te hartzen dituzte egunero. Gu hemen poteoan goazen moduan, han tea eskaintzen dizute edonon, baita etxeo atarietan ere".

BISITATZEKO TOKIA

Osinagak aipatu du Kurdistaneira joatea oso lagun gutxiri bururatzen baldin bazaio ere, "oso toki gomendagarria" dela. Goseko taldekideak hauxe dio: "Ikusi dugun apurrarekin oporretan joateko gomendatuko nuke".

Horrekin guztiarekin, datoren urteko Diyarbakirko Kultur Sanat Festivalira joan gurako luketela ere onartu du: "Gustura joango ginateke berriro hara, baina zeinek daki datorren urtean zer egingo dugun".

HEMENDIK AURRERAKOAK

Gosekoek disco berria grabatzetik eta kontzertuak eskaintzen pasako dute uda

Gosekoek ez dute deskantsatzeo astirik izango datozen hilabeteotan. Uda partean taldearen hirugarren diskoa izango dena grabatzetik hasiko dira. Durangoko azokarako kalean izan nahi dute arrasatearrek. Aurrekoen ildo berekoa izango dela aurreratu digu Ines Osinagak: musika elektronikoa eta trikitia uztartzen jarraituko dute. Disko berria grabatzearaz gain, hainbat kontzertu ere eskainiko dituzte. Osinagak hauxe esan digu: "Kontzertuek uzten digutenean diskoa grabatzera sartuko gara estudiora. Beraz, aurtengo udan ere zuri amaituko dugu".

nola erakusketak, hitzaldiak eta film emanaldiak. Osinagaren esanetan, "harrituta" geratu dira hango "muntaiarekin".

EGOERAREKIN SENTSIBILIZATUTA

Kurdua apur bat praktikatzeko eta bertako jendea ezagutzeko aukera ere izan dutela adierazi du: "Ezin hobeto tratatu gaituzte. Hangoak oso jatorrak dira; gainera, euren problematika oso barneratuta dute". Horren hari-

WANTED

- 16 urtetik gorako pertsona
- Gizon edo emakumea
- Bertako edo kanpokoa
- Ikerlea, langilea, langabea edo jubilatu
- Eta... euskara ikasteko behar, borondate edo gogoarekin

UDAL EUSKALTEGIAK
www.UDALEUSKALTEGIAK.NET

2009 Udako euskara ikastaroak

EGA

HABEko 1., 2. eta 3.mailak.
HOMOLOGATUTA.
Irailean azterketa ofizialak

UDAL
EUSKALTEGIAK
www.UDALEUSKALTEGIAK.NET

MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK
Uztail eta Irailean

27 urte euskara irakasten. Maila guztia. 43 zentro. HABEko diplomak. Egokitutako ordutegiak. Bekar...

MATRIKULA ZABALIK

Titulu ofizialak

MATRIKULA ZABALIK

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi 13, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskald@euskalnet.net

ARTEA

Muniategiren lan bat Angeluko hondartzan

Pintura eta eskultura lanak jarriko ditu beste egile batzuekin

M.B. > BERGARA
Angeluko itsasertza dekoratzeko biurtekoa egiten dihar-dute. Hain justu ere, uztailaren 31ra arte egingo dute. Arte garaikideko lanek dekoratuko dute Angeluko itsasertza. Askotariko lanak jarriko dituzte; besteak beste, Manu Muniategiandikoa ber-gararraren lanak. Pintura eta eskultura lanak jarriko ditu.

ASKOTARIKO EKITALDIAK
Bergararrarekin batera, Juan Aizpitarte, Wilfrid Almendrak, David Boenok, Arno Fabrek, Michel Herre-riak eta Laurent Le Deunff-ek ere erakutsiko dituzte lanak. Lan guziekin, 11 kilo-metroko itsasertza dekoratuko dute. Bestalde, askotari-ko ekitaldiak egingo dituzte lan guziak aurkezteko.



Umeek laguntza eman ahalko diote Superplast familiari, Zabor jaunari aurre egin ahal izateko.

GOIENKARIA

ANTZERKIA > HORTZMUGA TALDEA

Gaur, Bergaran, Max saria jaso duen 'Superplast' antzezlana

Hortzmuga taldeak 19:00etan hasiko du kale antzerkia San Martin plazan familia osoarendako

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Hortzmuga antzerki taldeak ikus-kizuna kalera aterako du gaur 19:00etan. San Martin plazan familia osoarendako kale antzerkia egingo dute: *Superplast*. Hain zuzen ere, Superplast familiaren istorioa kontatzen dutela esan

digute Hortzmuga taldeko kideek: "Zabor jaunak planetaren gai-neko botere osoa eskuratu du, eta zabortxoen armada munduko toki guztiak inbaditzen ari da. Hasiera batean formarik gabeko masa handia zen, eta ez zuen inongo arriskurik; baina, X egu-

neko X orduan, pertsona batek freskagarri lata bat bota zuen zakarontzira, eta Zabor jaunaren buru azpira heldu zen. Superplast familiak egingo dio aurre Zabor jaun gaiztoari".

Zabor jaunaren kontra egiteko antzerkia ikustera joaten diren umeen laguntza eskatuko du Superplast familiak.

Arantza Gaikoetxea, Argia Gardeazabal, Iñaki Aginaga eta Aritz Rodriguez dira kale antzerkiko aktoreak. Raul Cancelok zuzendu du Julen Gabiria idatziko gidoian oinarritutako istorioa.

MAX SARIA

Hortzmuga antzerki taldea due-la 20 urte sortu zuten, 1989. urtean. Taldeko kideek diote antzerki *aktiboa* egiten dutela: "Aktiboa ideietan, emozioetan eta gorputzetan eragin nahi dugula-ko. Aktiboa iku-slegoari jokatze-ko aukera ematen diogulako. Aktiboa ekintza kulturaletik adierazpen plastikotik baino hurbilago sentitzen garelako". Egun sei ikuskizun dituzte eskuartean; hain justu ere, *Superplast; Sueños de un metro; Zirko iluna; Consules de la calle; Momento; eta 12.*

Bestalde, Hortzmuga taldeak Euskarazko Egile Onenaren Max saria jaso zuen martxoan. "Gus-tura jaso genuen saria, kontuan hartuta gainerako hautagaiiek zuten maila. Aizpea Goenagak idatzitako eta Glu Glu kompainiak ekoitzitako Ezker-eskuma antzez-lana gurekin lehiatu zen", diote.

Euskal Eskola Nazionalaren alde Hezkuntza Sistema Propioa Euskal Herriarentzat

ekainaren 7an Euskal Eskola Publikoaren jaia
Bergaran



EUSKAL ESTATUA EZKERRETIK ERAIKIZ

EMAKUMEA > ERAKUSKETA

'Edabe feministak: eusteko araoak' gertu Arrasaten

Mugimendu feministaren gaineko erakusketa hilaren 11ra arte bisita daiteke Emakume Txokoan, astelehenetik egunera, arratsaldez

MIRIAN BITERI > ARRASATE
Arrasateko Emakume Txokoak erakusketa zabaldu du asteoan. Hara joaten direnek Emakume Internazionalistek antolatutako *Edabe feministak: eusteko araoak* izeneko erakusketa ikusi ahaldu dute ekainaren 11ra arte.

Tituluak berak adierazten duenez, mugimendu feministak denboran zehar erabili dituen kontsignak jasotzen dira horretan, irudi eta testuen bidez. Guztira, hamasei edabe dira. Tarte-an, hain ezagunak diren *Eskubide guztiaik guziontzat, Munduko lanbiderik zaharrena, Abortua librea eta dohainekoa, Bortxakeriarik ez salaketarik gabe eta Erantzunik gabeko era-sorik.*

MUSIKA

Belceblues, Getxoko blues jaialdian

M.B. > HERRIA
Bergarako Belceblues taldeak ekainaren 12tik 14ra bitartean egingo duten Getxoko nazioarteko XXI. blues jaialdian joko du. Hitzordua Erromoko Santa Eugenia plazan da datorren egubakoitzean, hilaren 12an, 21:30ean. Horretarako sarrera debalde izango da.

IZENDATUA

Bergararrek joan zen urtean grabatu zuten *Infer* izeneko lehen diskoa, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik. Orain dela gutxi, gainera, disco horri izena eman dion abestiarekin Espaniako Arte eta Musika Zientzien Akademien Musika Sarietako XIII. edizioan izendatua izan da esan-dako taldea, urteko Euskarazko Kantu Onenaren kategorian.

ALDARRIKAPENAK

Testuetako egile Begoña Zabalak azaldu digu aldarrikapenen laburpen motzak direla horiek: "Askotan lotsagabe samarrak dira aldarrikapen horiek, geureari eusten diotenak, erradi-kalak". Horren harira, baina, gaineratu du "erakargarriak" ere badirela: "Gure alderik bihu-rriena eta kale borrokaren garaia garrantzitsuak gaurkotzen dituztelako".

Azaldutako kontsignez gain, esan bezala, emakume eta gizonezko bereizketa agerian uzten duten marrazkiek eta testuek osatzen dute esandako erakusketa. Irudiak Rosa Silvare-



Ekainaren 11ra arte ikus daiteke Emakume Txokoan *Edabe feministak: eusteko araoak* erakusketa.

M.B.

nak dira eta testuak, esan bezala, Begoña Zabalarenak.

Azken horrek azaldu digu erakusketa nondik datorren. Ideia Zabalak berak idatzitako *Movimiento de mujeres: mujeres*

en movimiento argitalpenetik dator. Bertan, erakusketa ikus daitezkeen kontsignak jasotzen dira, baina irudi barik. Zabalak azaldu duenez: "Hasiera baten, irudiak sartzeko asmoa nuen eta

horiek Rosa Silvari egitea agindu nion, zuri-beltzean. Azkenean, baina, ez nituen sartu eta horiek aprobetxatzeko erakusketa egitea bururatu zitzaidan. Ikusgarria izateaz gain didaktikoa ere izan daitekeela iruditzen zitzaidan-eta". Jone San Martin Silvaren marrazkiak koloretan jartzeaz eta muntaia egiteaz arduratu da. Maider Sukuntzak, berriz, itzulpenak egin ditu.

ORDUTEGIA

Erakusketa ikusteko interesa dutenek, esan bezala, Emakume Txokora joan beharko dute honako ordutegian: astelehenetik egunera bitartean 16:00etik 20:00etara. Ez ahaztu hilaren 11ra arte egongo dela Arrasaten.

IKASTROA

Antzinako emakumeen gaineko ikastaroa Emakume Txokoan

Arrasateko Emakume Txokoan *Antzinako emakumeak: gure amandreengandik ikasten* izeneko ikastaroa egiten ari dira azken asteotan, Pepa Bojo irakaslearen eskutik. Horretan parte hartzen ari diren hamazazpi partaideek familiako emakumeen historiaz eta emakumeen arteko harremanaz dihardute. Pepa Bojoren arabera, "garrantzitsua da errekonozitza eta aintzat hartzea emakumeen eginkizuna, beti anonomoa izan dena historian zehar; eta, aldi berean,

familiako emakumeen bizenetik personalaren berri jakitea, horien hutsegiteekin eta ekarpenekin". Hortaz, historian zehar bizi izandako esperientzia zertan den baliagarria ikasten ari dira: "Modu horretan, horrek emakumeen arteko harremana bultzatzen, sustatzen, zauriak osatzen eta harreman solidarioak sortzen laguntzen digu". Ikastaroa hamar orduko da eta azken eskola martitzenean, hilaren 9an, izango dute emakumeek.



TXANTXIKU IKASTOLA Kooperatiba Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA

EGUNA: Ekainaren 24a, asteazkena

ORDUA: 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean

LEKUA: Ikastolako Aretoa (San Juan kalea, 1)

OHIKO BATZAR NAGUSIAREN EGITARAUA

- 1.- Akta onartzeko bi kide izendatzea.
- 2.- Aurreko aktaren txostena irakurri eta, hala badagokio, onestea.
- 3.- Kudeaketa txostena.
- 4.- 2008 urteko kontuak eta 2009 urteko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
5. 2008 urteko gaindikinen banaketa onartzea.
- 6.- Kontseilu Errektoreko eta Zaintza Batzordeko kide berriak aukeratzea.
- 7.- Txantxiku Ikastola, Koop.Elk., Herri Onurako Euskal Herriko Ikastolen Elkartea Koop.Elk. Europar Kooperatiba Elkartean sartzeko erabakia hartzea.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Oñatin, 2009ko ekainaren 5ean

GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP. ELKARTEA BATZAR OROKORRA

DEIALDIA

Data: 2009ko ekainaren 11n.

Ordua: 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.

Tokia: Arrasateko Kulturaten izango da, areto nagusian.

GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi baziak izendatzea.
2. 2008ko ekainaren 5eko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2008ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2008ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza batzordeko kideen txostena irakurtzea
6. Baziak ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena. 2009ko kudeaketa plana eta aurrekontuak onartzea.
7. Hasierako ekarpeneak eta baziak sarrera kuota eguneratzea, KPIa hartuaz eguneratze indizetza.
8. Kontseilu Sozialeko kide berriak izendatzea.
9. Zaintza batzordeko kideak izendatzea.
10. Egoitza sozialaren aldaketaren berri ematea estatutuen 3. artikuluaren arabera.
11. Galderak eta eskaerak.

Arrasaten, 2009ko maiatzaren 26an. Errektore Kontseiluko lehendakaria.

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Antzuola. 84 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta bakoia. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Garajea eta tras-telera. 665 73 39 55.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

Aretxabaleta. Eraikitzetan ariden duplexa salgai. Bitartekorik gabe. Bruesa. Eraikuntzak. www.bruesa.com. Prezio negoziagarria. 626 60 11 07.

Arrasate. 58 metro koadroko etxebizitza salgai Ergunen. Hegoaldera begira. Berrikuntzak eginda eta altzariak ere salgai. 667 33 68 38.

Marieta (Araba). 200 metro koadroko etxe bakarra. 5 logela, 37 metro koadroko egonlea beheko surarekin. 3 komunitatea eta sukalde bat. Garajea bi autorendak eta 856 metro koadroko lorategia (urezatze automatikoarekin), Aukera ona. 628 45 09 62 edo 616 96 99 20.

Oñati. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko eraikin berria, igogailuarekin. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta trasteleku, argi patioan. 652 70 12 49.

Oñati. 76 metro koadroko etxebizitza salgai. Berritua. Dena kanpoalderera begira. Trasteleku eta garajea. 679 17 48 36.

Oñati. Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. 2002ko eraikin. Bi logela, sukaldea, bainua eta egongela. Guztira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toldoarekin etxebizitza-ren atzealdean. 20 metroko garajea. 678 40 34 76 edo 609 77 66 75.

Oñati. Etxebizitza salgai Bidebarrietaen. 80 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta garajea. Eguzkitza eta jantzia. Garajea barne. 665 74 98 47.

Oñati. Etxebizitza salgai Moiua kalean. 70 metro koadro. Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea eta garajea. Eguzkitza, jantzia eta berriuta. Deitu gauez. 943 53 37 45.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Iturrioztik kalean. Deitu 685 72 78 12 telefonora.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Guztiz jantzia. Berogailuarekin. 669 66 54 99 edo 943 79 13 97.

Arrasate. Lau logeladun etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat 2009-10 ikasturterako Arrasate erdialdean. Deitu 695 70 76 25 zenbakira.

Bergara. Apartamentua ematen da errentan San Antonion. Sukaldea, egongela, logelabat, komuna, balkoa eta trasteleku, 46 metro koadro. Guztiz berriztua eta jantzia. Deitu 635 70 49 74 telefonora.

Donostia. Bi logeladun etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat 2009-10 ikasturterako Donostia erdialdean. Deitu 620 06 35 92 telefonora.

Jaca. Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Garajearekin. Urbanizazioa igerileku eta tenis pista. Haurren-dako jolasparkea ondoan. 665 73 95 65.

La Puebla de la Barca. (Arabarrioxa). Etxea ematen da errentan uztail eta abuztu. 111 metro koadro. Sukaldea ornitua, bi logela, bi komun, egongela eta 35 metro koadroko terraza. Aparkaleku, igerileku eta berdegune komunak. 653 71 89 11.

Noja. Apartamentua errentan. Gofiz zelaiaaren ondoan. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, terraza, garaje itxia. Urbani-zazioa pribatua, igerilekuaren. 653 75 35 29.

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da Olakua auzoan, ikasturtean barrena. 660 40 06 75.

Pefiscola. 2edo 4 personendako apartamentua. Hondartzako lehenengo ilarran. Guztiz jantzia. Igerileku txirristekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

Torrevieja. Apartamentua errentan. Urbanizazioa lasaina hondartzatik hurbil. Bi logela, sukaldea, bainugela eta jangela-egongela; aire girota etxe osoan. Terraza eta solariuma pribatua. Garajea sotona eta igerileku komunitarioa. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketari eta ezta iragarkia bertan behera uterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAREN ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENENKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).

PROFESIONALEN IRAGARKIAREN (MODULOA)

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENENKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENENKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiago argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke erdialdean. Deitu 658 77 90 46 zenbakira.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Erdialdean gela errentan. Deitu 616 75 41 30 telefono zenbakira.

Arrasate. Logela alokatuko nuke, ahal bada jende euskaldun, gazte eta langilearekin. Eka-neko lehen astetik sartzeko. 608 57 97 70.

Arrasate. Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldea erabilitzeo eskubidearekin. 300 euro. Deitu 618 00 08 28 telefono zenbakira.

Arrasate. Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egon-gela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. Deitu 699 28 99 06 telefono zenbakira.

Torrevieja. Apartamentua errentan. Urbanizazioa lasaina hondartzatik hurbil. Bi logela, sukaldea, bainugela eta jangela-egongela; aire girota etxe osoan. Terraza eta solariuma pribatua. Garajea sotona eta igerileku komunitarioa. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17.

Bergara. Logela errentan ematen dut, sukaldea erabilitzeo aukerarekin. Bolun. 250 euro. 670 85 86 68.

Bergara-Arrasate. Logela errentan hartuko nuke. 658 77 90 46.

4/ LANA**401. ESKAINTZAK**

Bergara. Umea zaintzeko emakumea behar dugu. 943 76 07 19 edo 665 74 47 64.

ARETXABAleta

Odontologoa behar da.
Bidali curriculuma
zabalearte@hotmail.com e-postara.

ELGETA

Zerbitzaria behar da domekarako.

943 76 80 23

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna gerta edozein lan egiteko.

Arrasate. Emakumea gerta umek zainetako prest. Ana Luisa de los Santos. Deitu 943 03 45 06 edo 688 65 41 26 telefono zenbakira.

Arrasate. Emakumea gerta umek zein nagusiak zainteko. Mari. 649 30 13 60.

Bergara eta Antzuola. Emakumea gerta haurrak eta pertsona edadetako zaintzen. Yair. 628 93 79 39.

Debagoina. Edozein lan egiteko gerta nago: garbiketak, nagusiak zaindu eta abar. Etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 88 36 telefono zenbakira.

Debagoina. Edozein lan egiteko gerta nago: garbiketak, nagusiak zaindu eta abar. Etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 88 36 telefono zenbakira.

Debagoina. Emakumea gerta haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko. gauzeak. Aretxabaleta nahiz Eskoriatzan. Esperimentziaduna. 618 00 08 28.

Debagoina. Emakumezko batek lan egindako luke nagusiak zaintzen. Erreferentziak ditut. 630 85 54 46.

Debagoina. Erizaintzako lagun-tzaile ikasten ariden neska geru pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanag. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 05 05.

Debagoina. Garbiketa lan egindako luke nagusiak edo umeak zaindu ere. Orduka eta egun osoz. 679 06 12 99.

5/ IRAKASKUNTZA**501. JASO**

Zinpeko zaintzaile lanetan diharduen neska naiz eta lanpostu horretarako oposizioak prestatzen lagunduko didan norbait behar dut. Deitu 685 77 66 21 telefonora.

502. EMAN

Arrasate. Irakasle eta psikopedagogoa Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako esko-la partikularrak ematen ditu. Lantalo txikia. Esperientzia handia eta emaitza onak. 658 70 67 84.

Oñati. Esperientziadun irakaslea gerta udan eskola partikularrak ematen ditu. 666 21 73 48.

8/ DENETARIK**801. SALDU**

Berogailu elektrikoa salgai. 50 euro. 943 79 68 18.

Ontzi-garbigailua. Bosch etxe-ko. Berria. 637 52 89 83.

Telefono mugikor berria salgai. Nerea. 943 79 68 18.

802. EROSI

Bizikleta. Hiru urteko mutiko batendako bigarreneskuko bizikleta erosiko nuke. Neurria: 16''. 636 83 85 32.

807. AURKITU

Giltzak. Zubilagatik Urkulako bidean bi giltzak joko aurkitu dut. Batek garajeak ematen du. 670 65 43 59.

6/ MOTORRA**601. SALDU**

Aixan autoa. Gidabainen gabe erabiltseko. 2008ko maiatzeko. Kristal-igogailu elektrikoa, kristal ilunak, ez-iraultzeko sistema, maletategi ederra, MP3, hagunak. Atzerri-martxaosentsoak. 10.000 euro negozia-gari. Jesus. 696 16 14 35.

9/ HARREMANAK

Lagun bila. 36 urteko mutil debagoiendarra 30 eta 40 urte bitarteko emakume debagoiendarraren bila. Hasiera bat, lagunak izateko. Irelia bazera eta hitz egitea gustuko baduzu, zaletasunak konpartitu ditzakegu; paseoak, bizikleta, irakurri, dantza, abestu... Perfektua ez bazarra, lasai, ni ez bainaz printze uredina. Interesatuok 'kirikel@yahoo.es'-ra idatzi.

904. BESTELAKOAK

Arrasate-Gasteiz. Egungo Gas-teizoen-erri-orreria egiten dugu. San Prudentzio elkartu, Arrasaten autobidearen harru eta Lakuan joaten gara. 08:00etan sartu eta 14:30ean irtenet gara. 635 20 33 14.

LAN ESKANTZA**GIZARTE LAGUNTZAILEA**

Bergarako Udala, aldi baterako gizarte laguntzaile bat kontratatu eta lan-poltsa osatzera doa lehiaketa-oposizio bitartez.

Izangainen baldintzak:

- Gizarte Lanetan Diplomatua.

- 4HE

Instantziak aurkezteko epea:

Ekainaren 22a.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan eta www.bergara.net webgunean.

Bergara, 2009ko maiatzaren 29a.

ALKATEAK



Oñatiko ikuskizuna Goiena Telebistan

Oñatin apirilaren 25ean eta 26an grabatutako ekitaldiak




Ekainaren 8tik 12ra, 20:45etik 21:15era

Errepikapena: hurrengo eguneko 13:45ean; zapatuan 10:00etan eta domekan 14:15ean



Eta datorren astean... Oñati. | Aretxabaleta.

Datorren ekainaren 9an,
Osintxuko **MILUK** ile apaindegiaren irekiera.



*Zure irudia modan egoteko
zerbitzu personalizatu guztiak ditugu.*



Etor zaitez!

MILUK ile apaindegi mixtoa
Osintxu 13 behe
943 76 51 82

Unai Mendikute > Akordeoi jolea

"Akordeoia jotzen eman ditzaket egunean sei ordu; ikasten, ordea, ez"

Aretxabaletako 19 urteko mutil horrek akordeoia jotzen du txikitik eta akordeoi ikasketak

egiteko Musikene kontserbatorioan sartzeko asmoz, ekainean azterketa teoriko zein

praktikoak egiteko gertatzen dihardu Akordeoia jotzen etxe-an edo entsegu kabinan denbo-

ra luzea pasa ostein bizikletan ibiltzea du gustuko, haizea har-teaz bat lasaitzeko.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABAleta
Musikari gaztea da Unai Mendikute. Akordeoia aldean duela ez bada, bizikleta gainean ikusiko dugu, horiek baitira haren zaletasun eta pasio aldi berean. Lagunekin bizikletan ibiltzetik bueltan egin genuen berba harekin.

Zer dela eta aukeratu zenuen akordeoia?

Gurasoek txikitak akordeoi txinatar bat oparitu zidaten eta ezer jakin gabe jotzen nuen. 6 urte-rekin hasi nintzen Juan Jose Orobengoarekin eskolak hartzen. Gero, lehiaketetara aurkeztu eta akordeoi orkestran ere sartu nintzen. Iaz batxilergoa amaitu eta, selektibitatea gainditu ostein, zalantzian izan nuen Ingeniaritza ikasi ala akordeoia-rekin jarraitu. Akordeoia jotzen sei ordu pasa nitzakeen gustura; eta ikasten, ordea, ez. Akordeoiak gehiago betetzen nau.

Orain ordu asko eskaintzen dizkiozu akordeoiai, ezta?

Bai, denbora luzea pasatzen dut akordeoiaren inguruan. Eskola partikularrak hartzen ditut Hondarribian, baina hemengo irakasle Juanjo Orobengoarekin ere jarraitzen dut. Bakoitzak gauza ezberdinak era-kusten ditu. Bestalde, Zarautzen eskola teorikoak jasotzen ditut: harmonia, analisia, historia...

Txapelketetan ere ibiltzen zara.

Bai, txapelketa bat beti da motibazioa. Txapelketa baterako beti gertatzen naiz gogotik, eta maila hartzeko modu bat da. Sariak ere eskuratu ditut: Arrasaten junior mailan; baita Lleidan eta Galizian ere. Aurtent Lleidan senior mailan hartu dut parte eta, ez espero arren, hirugarren postuan geratu naiz, eta oso pozik.

Musikenen sartzeko gertatzen diharduzu. Zer da Musikene?

Musika kontserbatorioa da eta han bost urteko karrera ikas daiteke. Titulua eskuratu eta aukera izango dut kontzertuak edo eskolak emateko. Irtenbideak egon badaude, eta, ni akordeoiaren bueltan gustura ibiltzen naizenez, hori da nire helburua, ikasketa horiek egin ahal izatea.

Askok musika klasikoarekin lotzen du akordeoia. Zuk zein musika mota jotzen duzu?

Klasikoaren fama izan arren, akordeoian gero eta gehiago sartu da musika garaikidea. Entzuteko, beharbada, zailagoa da, bai-

na lehiaketetan denetarik entzuten da. Nik lagun eta familia giroan abesti ezagunak ere jotzen ditut, kantu garaikideak entzutea gogorra egingo litzaike-eta.

Akordeoia ahazteko gogoa sartzen zaizunean zer egiten duzu?

Errepideko bizikletarekin ibiltzen naiz. Orain dela gutxi Flandriako Itzulian izan gara, Belgikan, lagun talde bat; txirrindulari profesionalek baino egun bat lehenago proba egin eta gero haeiek ikusten. Lagun taldeko norbait beti izaten da gertu bizikletan buelta bat emateko.

Nola bateratzen dituzu bizikleta eta akordeoia?

Ondo antolatuz gero, beti dago denbora. Akordeoia jotzen sei ordu eman eta eskola teorikoeitan beste bi edo hiru eginenez gero, orain egunak luzeak direnez, ateratzen da tarte bat bizikletarako. Hemen inguruan ibiltzen naiz: Landa aldera edo kostaldera.

Beste zaletasunik baduzu?

Aretxabaletako akordeoiora nabil eta hori zaletasun modura hartzen dut. Gure artean giro ona dago eta ondo pasatzen dut. Orkestrarekin Argentinan egon naiz eta aurretitik baita Mexikon ere.

Bidaiaik egin dituzu, hortaz.

Aste Santuan Belgikan egon naiz, bizikletan ibiltzen; eta orkestrarekin Argentinan, Mexikon bi aldi, Galizian, Bartzelonan... Errepikatzeko moduko esperientziak izan dira. Nork bere berezitasuna du, baina ni Argentinakoarekin geratuko nintzateke. Oso polita iruditu zitzaidan, baina gogorra aldi berean, 11 kontzertu eman genituelako 15 egunetan.

Akordeoia, bizikleta... baduzu beste ezertarako denborarik?

Lagunekin eta neskatalagunarekin egoteko beti ateratzen da denbora, eguna luzea da eta ondo antolatzea da kontua.

Orain, Musikenen sartzea da zure helburua, eta aurrerako zein asmo duzu?

Musikenen karrera egin osten, dena ondo joanez gero, eskolak ematea, kontzertuak... dira aukerak. Bestalde, beste musikari batzuekin elkartu eta ganbera musika talde bat sortzeko aukera ez dut bantzertzen. Baina, betiere, musikaren munduan ikusten dut nire burua, eta, hortik noizean behin alde egiteko, kirolean.



MIRARI ALTUBE

PERTSONALA

Herria: Aretxabaleta. **Adina:** 19 urte. **Ikasketak:** Batxilergoa eta akordeoi ikasketak. **Zaletasunak:** Musika, bizikletan ibiltzea eta bidaiaik. **Mania bat?** Ez naiz maniatikoa, ez daukat erritualik. **Biziorik baduzu?** Bizikleta bera; zaletasun ez ezik bizio ere

bihurtu da. **Gorrotatzen duzu ezer?** Bai, gezurra. **Zein musika duzu gustuko?** Denetarik gustatzen zait; bat aukeratzekotan, Johann Sebastian Bach. **Bidaiatzeko toki bat?** Argentina. **Eta bizi izateko leku bat?** Suitza, hango paisaiak politak dira-eta.

Manu Maritxalar izango dugu 'Ilunpean' saioan

Erabat polifazetikoa den kazetaria izango da datorren martitzenean GOITBn

GOIENKARIA > ARRASATE Ez da erraza Manu Maritxalarren gainean idazten hastea; izan ere, haren bizitzaren nondik nora-koak azaltza ez da lan makala, hainbat direlako egin eta egiten dituenak. Euskadi Irratiko *Tostartean* irratsaioko esataria, kazetaria beraz, arraun munduan erre-

ferentea eta arraunlaria, errugbi jokalaria, boxeolarria, kirol aditua eta mila saltsatan sartutako gizonea da Maritxalar. ETB1ek goizeko ordu txikitzen eskaintzen duen *Boxeo izarrak* saioko aurkezlea ere bada, Pedro Mari Goikoetxearekin batera, eta, Gabon inguruau, euskaldunontzat oso mirentzia den pertsonaia baten paperean ere ikusi dugu Maritxalar Euskal Telebistan.

GOITB, 'Ilunpean'
> Martitzena, 22:15
> Eguaztena, 15:10



Manu Maritxalar kazetaria.

JON BEREZIBAR

Herri bazkarirako sarrerak

UBANE MADERA > ARRASATE Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearren 25. urteurreneko amaierako ospakizuna egingo dute ekainaren 14an, datorren domekan. Ekitaldien artean, iragarri dute 300 bat lagunendako herri bazkaria egingo dutela, eta irratian bazkari horretarako sarrerak zozkatuko dituzte (egubakoitzean). Parte hartzeko telefonoa: 943 25 05 05; *irratia@goienna.com*; edo *goiena.net/blogak/irratia*.

Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'
> Egubakoitz (ekainak 12), 11:30etik 12:00etara.



Astelehenean estreinatuko dute Kantari saioa

Datorren astelehenean estreinatuko dute Kantari Karaoke ikuskizuna. Aurten, eguneroko saioa izango da. Gaueko 20:45ean estreinaldia eta hurrengo eguneko 13:45ean errepikapena. Asteburueta erakartzen ere eskainiko dute; zapatautan, 10:00etatik aurrera, eta domeketan 14:15ean hasita. Aste honetan, Oñatiako gaztetxoak izango dira protagonista.

GOITB, 'Kantari'
> Egunero, 13:45 eta 20:45
> Zapataua, 10:00
> Domeka, 14:15

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera! Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa) Astelehenetan Kirolak Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batetik) Zaharrak Berri (pertsona nagusienak) Udal Gazte Bulegoa Sexologia Zerbitzu Astearen errepasoan (Goienkariarekin) Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarriketak Zozketak (egubakoitzean) Zorion agurra (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goienna.com* edo *goiena.net* atarian, irratiko bloga)) 11:55 Arrasateko albisteak, labur. 12:05 Euskadi Irratiko albistegia 12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak 13:00 Euskadi Irratiko albistegia. 14:00 Igo Autobusera! (errep.) 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegilaburra.

astea GOITBn

EGUBAKOITZA, 5	ZAPATUA, 6	DOMEKA, 7	ASTELEHENEA, 8	MARTITZENA, 9	EGUAZTENA, 10	EGUENA, 11
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak:	13:15 Marrazki bizidunak:	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Ur eta lur.	09:00 Marrazki bizidunak.	09:00 Marrazki bizidunak.	Cloud Trotters.	Alex eta Alexis	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.	10:30 Trikitraka trikiton.	11:30 Golb tb.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	14:15 Jazz	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	12:00 Euskal herria lau haizetara.	12:00 Erloklip	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.	12:30 Ikusmiria.	12:30 Ikuskipuna.	14:45 Berriak.	15:15 Mugaz kanpo.	15:10 Ilunpean.	15:15 Ikuasmira.
16:15 Ikusten.	13:00 Eltze beroa.	13:00 Erreportajea.	15:45 Elkartasunaren bidean.	15:50 Solaskide.	15:50 Golb tb.	15:45 Mugaz kanpo.
16:45 Berriak.	14:00 Bergarako musika eskola 25 urte	13:45 Solaskide.	16:15 28 klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 28 Klip.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Marrazki bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
18:00 Ilunpean.	18:30 Trikitraka trikiton.	15:30 Zaharrak berri.	16:45 Berriak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:45 Berriak.	19:00 Erreportajea.	15:45 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:35 Erreportajea.	17:45 Solaskide.	18:00 Erreportajea.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:30 Ikusmiria.	19:15 Erreportajea.	17:45 Wasemak	18:05 Harmailatik.	18:15 Ur eta lur.	18:45 Berriak.
19:45 Goiena Magazinea.	20:30 Golb tb.	19:45 Elkartasun bidean.	18:15 Trikitraka trikiton.	18:15 Musikantoi	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Jazz.	21:00 Ikusten.	20:15 wasemak.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.
21:15 Goiena Magazinea.	21:30 Ilunpean.	21:00 Bergarako musika eskola 25 urte.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.
22:15 Musika eskolak 25 urte. kontzertua.	22:45 Erreportajea.	22:15 Elkartasun bidean.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.
00:15 Goiena Magazinea.	00:30 28 klip.	22:45 Golb tb.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Erreportajea.	22:15 Berbaire.
00:45 Emisio amaiera.	01:00 Emisio amaiera.	23:30 Wasemak.	22:30 Golb tb.	22:30 Euskal Herria lau Haizeetara.	22:45 28 Klip.	23:15 Lamien artean.
		00:00 Itsasora begira.	23:15 Ilunpean.	23:00 Goiena Magazinea.	23:15 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.
		00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.

tele begi

Oihane Agirre
'oagirre@goienna.com'

Irudi gabeko tragedia

Hegazkin istripu baten albistearekin hasi genuen astea. Hegaldian 228 lagun zihoazen, eta denak desagertu ziren. Rio de Janeiro eta Paris arteko bidea egiten ari zen Air France konpainiaren Airbus 300-200 hegazkin bat galdu zen Atlantikoa. Galdu! Eta beraz, ez daukagu tragedia honen irudirik.

Segituan gogoratu naiz Barajasko istripuarekin. Orduan irudi gordinak erakutsi zizkiguten telebistek eta albisteak egunetan zabalduzituen informatiboak. Oraingoan berriz ez dut lagunartean istripu honen komentariorik entzun. Hainbat katetan ikusi ditugun irudiek ez dute tragedia islada-tzen; itsaso zabaleko airetik hartutako irudiak ikusi ditugu bereziki. Kazetarien kamera aurrekoetan ere, normaltasuna nagusi zen Parisko aireportuan. Telebistan albiste honen biziraupena markatu du irudirik ez eukitzeak. Tamalez irudi gordinagoak ikustera ohitura gaude.

URTEURRENA

Jokin Iria Orue

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 7an, 11:00etan, Arrasateko Uribarri auzoko Itxaropenaren Amaren elizan ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Miguel Mendieta Madinabeitia

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 7an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Dorleta Villar Antxia



Laugarren urteurreneko meza martitzenean, ekainaren 9an, 19:00etan Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Josefa Gallastegi Gallastegi

Jesus Aranguren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko maiatzaren 28an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko ekainaren 5ean.

Babeslea:



Hileta Zerbitzuak
Beilatekia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net



hildakoak

- Josefa Gallastegi Gallastegi.** Arrasaten, maiatzaren 28an, 91 urte.
- Eulalia Elortza Intxauspe.** Aretxabaletan, maiatzaren 29an, 58 urte.
- Isabel Aiastui Oñate.** Oñatin, maiatzaren 30ean, 93 urte.
- Pablo Nafarrate Telleria.** Arrasaten, maiatzaren 30ean, 90 urte.
- Rufino Ugarte Villar.** Oñatin, ekainaren 1ean, 73 urte.
- Juan Francisco Jauregi Mendizabal.** Antzuolan, ekainaren 1ean, 92 urte.
- Ana Maria Moro Galparsoro.** Arrasaten, ekainaren 1ean, 73 urte.
- Luis Mari Egaña Oregi.** Bergaran, ekainaren 2an, 72 urte.
- Enrique Otxoa Orueta.** Oñatin, ekainaren 2an, 86 urte.



Aretxabaletako **Juan Mari Angulo** eta **Karmele Martinez** zapatuan, ekainaren 6an, ezkonduko dira Aretxabaletako udal-letxeen. Ospakizuna Leintz Gatzagako Soran Etxean egindo dute. Martinez-Altube familiaren partetik, zorionak eta izan zoriontsu, bikote.



Arrasateko **Adrian Palacios** eta **Mertxe Ezkibel** 1959ko ekainaren 6an ezkondu ziren Arrasaten. Urrezko ezteiak beteko dituzte bihar, baina ospakizuna Adrianen urtebetetzearekin batera egingo dute, haren jaioterrian, Arabako Errioxan. Zorionak, bikote!



Arrasateko **Sonia** eta **Oscar** ekainaren 6an, zapatuan, ezkonduko dira Musakolako San Isidro elizan. Gero, New Yorkera eta Jamaikara joango dira eztei-bidaian. Ondo-ondo pasatu eguna, familiakoena eta lagunen partetik. Izan zoriontsu!

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritz batera, eguzaten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31, 943 25 05 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2, 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33, 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9, 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11, 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelen janaridenda: Nardeaga 11, 945 44 50 22

Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2, 943 76 80 98

Antzuola

Itzar liburu denda: Kalebarren 1, 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 110 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteluheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **150 euro**.

ASTELEHENeko GOIENKARIKO harpidedunak: 100 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteluheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **140 euro**.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)



bono fotoa



Espaniako Ministro Kontseiluko lehendakariaren hiltzaile izan zen italiar anarkista Bergarako gartzelan exekutatu zuten 1897an. Nortzuk ziren espiñarra eta italiarra?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorberezibar

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA

Arrasateko Teresa Gomez Ruiz de Bergara. Zorionak!
Erantzun zuzena: Antzinako Arrasate.



Larchago Ardoek emandako
Ardo botila packa*

zozketatuko du GOIENKARIK asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008 bi botila. / Larchago kriantza 2006 botila bat.

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

HERRIA

TELEFONOIA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara



herritarrak galdezka

MUXIBARREN NONDIK JOAN BEHAR DUTE OINEZKOEK?

Arrasateko Muxibar auzoko bizilagun batek bidali digu kexa aste honetan, eta hark adierazi digu betigune horretan gidariek espaloi gainean aparkatzentzitza autoak eta oinezkoek bidetik joan behar dutela, espaloria autoz beteta egoten delako. "Bide zati horiosoa arriskutsua bihurtzen da oinezkoendako. Arrasateko Udalak zerbaitegian behar du arazoa konpontzeko?". Arrasateko Udaleko udaltzainburu Jose Luis Etxebarriarekin egon gara gai horren inguruan galdezka, eta hark adierazi digu baietz, arazoia hortxe dagoela eta Udalak bere partetik ahal duena egiten duela: "Guk bertara joan eta isunak jartzen dizkiegu oinezkoendako espaloi gainean dauden autoei, gehiago ezin dugu egin".

Gaineratu du bertan aparkatzen dituzten autoak garabiarekin kentzea ere ez dela samurra; izan ere, konplikatua da gune hartan maniobrak egitea; eta, amaitzeko, adierazi digu halako edo beste era bateko kexak dituen edozein herritar BAZera joan daitekeela.

NOIZ ARTE AURKEZ DAITEKE ERRENTA AITORPENA?

Bergarako irakurle batek gureganajon du aurtengo errenta aitorpena egiteko kanpainia noiz amaitzen den jakiteko. Internet bidez egin daitekeen ere jakin gura du berigar horrek.

Diputazioko Ogasun Sailarekin harremanetan jarri gara eta bertan



Muxibarren gora oinezkoek errepideko joan behar dute.

JASONE ZABALA

gogorarazi digute aurtengo Pertsona Fisikoaren Errenta eta Ondarearen Kanpaina ekainaren 25ean amaitzen dela. Gaineratu dute, horrekin

Galdera egiteko:

Zerbaitek ardurazten bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egungo galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin.

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goienea.com

batera, errenta aitorpena Internet bidez aurkezteko aukera dagoela, www.gipuzkoa.net/ogasuna web orriko sartuta. Orrialde horretako goiko partean lagunza programak bezala ezagutzen direnak aukitzenten dira. Bakoitzak dagokion programa aukeratuko du eta Internetetik hori jaitsi. Horiek Microsoft Windows behar dutela ohartarazi dute Ogasunetik. Errenta aitorpena egin ostean, hiru tresna izango ditu bidalitzeko: pasahitza operatiboa, sinadura elektronikoa edo egiaztatze datuaren bidez. Aukeratutako tresnaren arabera, Ogasun aitorpena ziurtagiriek osatzeko eska dezake.

Bestalde, Ogasun Sairetik gogorarazi dute errenta aitorpena mekanizatua egin gura dutenek Bergarako Ogasun bulegora, Toki-Eder plazar, joan behar dutela.

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapata, 6	Azkoaga	Ferreras, 1	943 79 15 15
Domeka, 7	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Astelehena, 8	Corcuela	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Martitzena, 9	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Eguaztena, 10	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Eguena, 11	Español	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Egubakoitzta, 12	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09

BERGARA

Zapata, 6	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 7	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 8	Urritikoetxea	Oxirondo plaza, 4	943 76 11 74
Martitzena, 9	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 10	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 11	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitzta, 12	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15

OÑATI

Zapata, 6	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 26
Domeka, 7	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 26
Astelehena, 8	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 9	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 10	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 11	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitzta, 12	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28

ARETXABAleta

Zapata, 6	Fraile	Herriko plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 7	Fraile	Herriko plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 8	Agirre (Esko.)	Gorosari plaza	943 71 48 28
Martitzena, 9	Agirre (Esko.)	Gorosari plaza	943 71 48 28
Eguaztena, 10	Agirre (Esko.)	Gorosari plaza	943 71 48 28
Eguena, 11	Agirre (Esko.)	Gorosari plaza	943 71 48 28
Egubakoitzta, 12	Agirre (Esko.)	Gorosari plaza	943 71 48 28

Guardiako farmaziaren eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEza.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



1200 b/min
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2812

636 €
-166 €
470 €

BERMEO 2 URTE



1000 b/min
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2810

611 €
-166 €
445 €

BERMEO 2 URTE



1000 b/min
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WOD-8011

476 €
-166 €
310 €

BERMEO 2 URTE



1000 b/min
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WAE-2006-2EE

476 €
-166 €
310 €

BERMEO 2 URTE



170
x
60
x
60

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA 4F-0141

501 €
-166 €
335 €

BERMEO 2 URTE



185
x
60
x
60

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA 3FC67NFX (NO FROST)

815 €
-166 €
649 €

BERMEO 2 URTE



pirolisis labea

HP-7660 X



3 fokoko indukzioa

VI-3 TS

lehen: 1.099 €
Orain bakarrik:
933 €

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batzuk besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ 70%
A+ 45%
B+ 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Ekainak 5-12

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzteneko eguedia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Antzerkia



BERGARA

> Hortzmuga taldearen 'Superplast' antzezlanera gaur kalean

Ingorumenaren Nazioarteko Eguna dela eta, Hortzmuga taldearekin kale antzerkia izango da gaur, 19:00etan, San Martin plazan. Raul Cancelok zuzentzen du *'Superplast'*, Julen Gabiria idatzitako gidoiarekin.

Musika



ANTZUOLA

> Ipuin musikatua Antzuolako eta Bergarako musika ikasleekin

Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrenara dela eta, Mozarten *Txirula magikoaren* unibertssoan oinarritutako *Benan eta Begigorri munstroa* ipuin musikatua eskainiko dute gaztetxoek. Gaur, egubakoitza, Torresoroan, 19:00etan.

Musika



OÑATI

> Ganbara Txikiren urteurreneneko kontzertu berezia Unibertsitatean gaur

Ganbara Txiki abesbatzak V. urteurrenari amaiera borobila eman nahi dio, eta, hori dela eta, kontzertu berezia emango du Sancti Spiritus Unibertsitateko klaustroan gaur, egubakoitza, 22:00etan.

de crisis izenburuko hitzaldia.

Eguaztenean, hilaren 10ean, udaltxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

ARETXABAleta

> 'Vías ferratas en Dolomitas'

Casimiro Bengoetxearen eskuak, diaporama.

Eguenean, hilak 11, Zaraia aretoan, 19:30ean.

ANTZUOLA

> Banka etikoaren gainekeo hitzaldia

Fiare-ko Juan Garibik egingo du hitzaldia.

Eguenean, hilak 11, Olaranen, 19:00etan. Zutik-EB/Berdeak-Aralarrek antolatuta.

Ikastaroak

ARRASATE

> Eskulan ikastaro eta makilla-je ikastaroa

Ekin Emakumeak Elkartearen eskuak. Eskulan ikastaro martitzenero: 15:30-17:30 edo 18:00-20:00 (ekainaren 16ra arte).

Argibideak 943 79 83 70 telefono zenbakian.

ARRASATE

> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etik 20:30era.

Argibideak eta informazioa ondoko

Bestelakoak

ANTZUOLA

> Berto afaria gaur

Bertso ikastaroaren amaiera dela eta, bertso afaria Mantxi eta Aitzol Barandiaran bertsolariekin.

Gaur, egubakoitza, Olalde elkartean, 21:00etan. 15 euro.

BERGARA

> Roberto Bermejo irakaslearen hitzaldia

EHUKO ekonomia irakaslearen *Sostenibilidad en tiempos*

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172

modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz

PLANETARIUMA

Ekainak 6 eta 7ko saioak: Kupula osoan proiekatzaten diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak. 12tan eta 17etan euskaraz 13eta, 16:15ean eta 18tan gaztelaniaz. 15:30tan frantsesez.

INGURUMENAREN MUNDU-EGUNA

BirziklARTEA tailer berriaren aurkez-pena: Ekainak 6 eta 7an, 13etan, 17etan eta 18tan: 6-16 urte bitartekoentzat eskulan tailerra. Tetrabrikez eta

beste materiale birziklagarriz eginiko kartera eta karpetak eraman ahal izango dituzu etxera!



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

Musika

ARETXABAleta

> Mahaster River taldearen kontzertua

Nahasterrekan diskoa aurkeztuko dute.

Bihar, zapatua, Zaraia aretoan, 22:00etan.

ARETXABAleta

> Arantza eta Pantxo bikotearen boleroak

Hego Amerikako doinuak. Domekan, ekainaren 7an, Zaraia aretoan, 19:30ean. 5 euro.

Antzerkia

ARRASATE

> 'Txuribelitz' haurrendako ikuszkizuna bihar

Kixka taldearen eskuak. Bihar, zapatua, Zaraia aretoan, 17:00etan.

Ipuinak

ARETXABAleta

> Amaia Arriaranen saioa, haurrei zuzenduta

Oihulari Kloon taldeko kidearen eskuak.

Bihar, zapatua, Arkupeko liburutegian, 11:30ean.

Erakusketak

BERGARA

> Laia Bedos margolariaren erakusketak

Bartzelonako margolariak erakusketak zabalduko du datorren egubakoitzean, hilaren 12an.

Ekinaren 12tik 28ra Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Martitzenerit egubakoitzera: 18:00-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30. Domeka eta jaiegunetan: 12:00-14:00.

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Elkartasun Egunaren XI. ekitaldia

Bihar, zapatua, gobernuz kanpoko erakunde proiektuen aurkezpena egingo da eta bestelako ekitaldiak ere izango dira Arrasaten: bidezko merkatariaritz, tonbola, hainbat zozketa, te dastatzea, perkusio taldeak, taloak, haur jolasak (Txatxilipurdiren eskuak 11:00etan) eta arratsaldean, berriz, Txan magoaren (goiko argazkian) emanaldia, 17:30ean.

Seber Altube plazan zapatuan, 10:00etik 20:00ak arte.

telefonoetan: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABAleta

> Hainbat ikastaro egiteko aukera Arkupen

Eskulanak, pintura, zeramika, fieltroa, fimoa, artile kardatua eta swarovski kristalak.

Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

Lehiaketak

ARRASATE

> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarri bakarrak aurkez daitezke eta bakarra zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekinaren 22ra arte izango da zabalik. Argibideak 943 79 41 39 zenbakian.

LEKEITIO

> Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeitio

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskara. Lanak entregatzeko epea irailaren 11ra arte dago zabalik.

Argibideak 94 624 34 82 telefono zenbakian edo www.bideobilera.com webgunean.

DEBA

> Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko diru-lagunza emango duena. Gure herriaren azken 50-60 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bat buruzko liburuak egiteko proiektuak aurkez litezke (adibidez: biografiak, kronikak, errepertajeak, saiakerak, elkarrizketak, ikerketak...); lanak jatorrizko eta euskara sortua izan beharko du, aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

Projektuak, abenduaren lehen arte bidalitzeko helbide honetara: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba

DONOSTIA

> Irrati-antzerki lehiaketa dFeriaren barruan

Teatro del aire izeneko lehiaketa deitu dute arte eszenikoen dFeriaren barruan. 8 eta 15 minuto bitarteko istorioak grabatu behar dituzte lehiakideek, CD euskarrian. Gaia librea da eta euskara zein gaztelaniaz egin daitezke lanak. Kategoria bakotzean 70 euroko sari bana emango dute.

Lanak entregatzeko epea datorren ekinaren 12ra arte dago zabalik. Argibide gehiago dferia.com webgunean jaso daitezke.



Ángeles y demonios **

Zuzendaria: Ron Howard.

Aktoreak: Tom Hanks, Ewan McGregor, Ayet Zurer. AEB, 2009. 140 min.

Badira berriro bueltan Dan Brown, Ron Howard eta Tom Hanks. *El código Da Vinci* filmatu eta gero, orain *Ángeles y demonios* estreinatu dute. Bi filmek eskeema bera jarraitzen dute: Eliza eta erlijio katolikoari buruz idazten duen ikertzale-idazle batek, hilketa eta bahiketa kasu odoltsu batzuk argitzeko, Elizaren goi karguekin eta poliziarekin lan egindo du. Lehenengo Parisen gertatzen zen eta bigarrena Erroman. Horrela, pertsonaia protagonistek, abiadura handiz, hiri eder horietako bazter guztietatik eramango gaituzte. Biek formula bera jarraitzen badute ere, badira desberdintasun batzuk: bi filmek detektibeen kasuak dira, eta mahukatik ateratako karta ugari erabilten dituzte. Hori horrela, bada, *El código Da Vinci*-k serioago izatearen itxura eman nahi zuen: teoria batzuk ematen zituen, eta kontatutako guztirri istorio garrantzitsu eta zorrota izatearen tonua lortu nahi zuen. *Ángeles y demonios*-en denak show tonua du. *Thriller* ikusgarria egin nahi da, eta hori lortzeko, jendez betetako kale eta toki ezagunak; odola eta hilketa ugari; konspirazioak; arrasto faltsuak; erritmo eta abiadura handiak erabiliko dira. Ikuslea harritzea nahi dute, eta horretarako ez da sinesgarritasuna kontuan edukitzenean. Ezaugarri hori istorioa aurrera doan neurriaren areagotzen doa, bukaera burugabera heldu arte.

Balarazioa egiteko ikuslearen jarrerak zerikusi handia du. Dena ondo lotuta duen intrigazko *thriller* sinesgarria ikusi nahi duena dezepzionalistikoa atera daiteke. Alderantziz, ez bururik ez hankarik duen istorio ikusgarria ikusi nahi duenak izango du eszena dibertigarri batzuk ikusteko aukera. Hau da, zentzugabekeriari alde dibertigarrria ateratzea lortzen badugu, agian onto pasa dezakegu, baina zentzugabekeria akats moduan kontsideratzen badugu, orduan filma nahiko eska sa irudituko zaigu.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

AMAIKA ANTZOKIA

El truco del manco
Egubakoitz: 22:00.
Astelena: 20:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Lejos de la tierra quemada
Egubakoitz eta zapata: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

Home
Eguna: 20:00.

EIBAR

UNZAGA

Terminator salvation
Egubakoitz: 19:30, 22:15.
Zapata eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

GURIDI

Hanna Montana: la película
16:30, 18:30 (zapata eta domeka).

Ángeles y demonios
17:00, 19:45, 22:30.

Terminator salvation
17:30, 20:00, 22:30.

Los mundos de Caroline
16:30, 18:30, 20:30, 22:30 (zapata eta domeka).

Génova
20:30, 22:30 (zapata eta domeka).

Star Trek
17:30 (zapata eta domeka).

YELMO-GORBEIA

Terminator salvation
15:45, 17:00 (zapata eta domeka), 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

Los mundos de Caroline
16:00 (zapata eta domeka), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Los mundos de Caroline
(3D digital emanaldiak)
15:30 (zapata eta domeka), 19:00, 22:30, 00:30.

El frasco
18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzetik domeka.

Vacaciones de ferragosto
17:30, 20:00, 22:30.

El frasco
18:00, 20:15, 22:30.

La montaña embrujada
15:35 (zapata eta domeka).

Gran Torino
22:10, 00:20.

La sombra del poder
19:15, 21:45, 00:15.



El milagro de Henry Poole
20:30, 22:30 (zapata eta domeka).
Seraphine
20:00, 22:30.

Nunca es tarde para enamorarse
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Noche en el museo 2
16:30, 18:30 (zapata eta domeka).

Noche en el museo 2
16:10 (zapata eta domeka), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Presencias extrañas
18:30, 20:25, 22:15, 00:10.

Star Trek
17:40, 20:00, 22:20, 00:40.

Ángeles y demonios
16:00 (zapata eta domeka), 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:30, 00:40.

Los mundos de Caroline
16:10, 18:20, 20:30, 22:35.

Gran Torino
22:10.

Fuga de cerebros
16:05, 18:10, 20:15.

Terminator salvation
15:50, 17:00, 18:10, 19:30, 20:30, 22:15, 22:45.

Fighting: puños de asfalto
16:05, 18:15.

X-Men orígenes: lobezno
20:25, 22:40.

Presencias extrañas
16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

Hanna Montana: la película
16:00, 18:00, 18:10, 20:10, 22:15.

La sombra del poder
22:30.

Ekainaren 5etik 11ra.

Terminator salvation

AEB, 2009. Zuzendaria: McG. Aktoreak: Christian Bale, Sam Worthington, Anton Yelchi, Bryce Dallas Howard. 135 minuto.

Terminatorren laugarren zatia 2018. urtean kokatzen da. John Connor da hautatutako gizona (Christian Bale aktorea da orain protagonista), Skynet eta terminator armadari aurre egiteko. Marcus Wright ere azalduko da, Connor laguntzeko...

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Lejos de la tierra quemada ****

AEB, 2008. Zuzendaria: Guillermo Arriaga. Alejandro González Iñárritu (Amores perros) gidoigile izandako Guillerme Arriagaren lehenbiziko filma. Jatetxe bateko gerentea da Sylvia (Charlize Theron), lanean eta bizitzan bi aurpegi erakusten dituena. Goia al berandu bere iraganari aurre egin beharko dio.

25 kilates

España, 2008. Zuzendaria: Patxi Amekua. Zorrak ordaindu ez dituztenei kobrearen egiten du Ian Abelek; autoak lapurtzen ibiltzen da Kay, haren aita Sebaske lapurutako gauzak erosten ditu; Garro lapururen aurkako brigadako inspektore da... Azken kolpearen zain daude denak.

El curioso caso de Benjamin Button ****

AEB, 2008. Zuzendaria: David Fincher. David Fincher zuzendariaaren (Zodiac) azken lana Oscarretako galitzaleetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru sarekin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaiko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu...

The reader

AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry. Michael Berg 15 urteko gazte gauzotu egingo da etxetik eskolarako bidea, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Hain arteen pasiozko harreman bat piztuko da. Hanna desagertzen eta arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna.

Oscar saria Kate Winslet protagonisatendako.

Gran Torino ****

AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood. Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean desubirrituko du bere altxor preziatuna lapurta nahi diola Asiako jatorriko bizilagun nerabeak: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguru drama.

Ponyo en el acantilado

Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki. Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (El viaje de Chihiro) marraski biduzinetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

nire aukera



Ramon Barrutia
Arrasate Errugbi Taldeko presidente

Garagardo ferian lanean

Ramon Barrutia aretxabaletarra dugu Arrasateko Errugbi Taldeko presidente; zuzendaritzan lau lagunek eta laguntzaile askok dihardutela diosku. Ekaneko lehen aste bukaeran, oihoko bilakatu denez, garagardo jaia eta zazpinako errugbi txapelketa antolatu dute Arrasaten. Beraz, aste bukaeran lan egin beharko du, ferian eta zelaian ere bai, epaile lanak egingo ditu-eta zapatauan. 17 taldetan izango dira lehian, horientako lau emakumezkoak.

Ulman dabil lanean Ramon Barrutia, Arrasaten bizi da eta hiru seme dituzte; bigarrena errugbia dabil.

Feria garrantzitsua da zuen taldearendako, ala?

Bai, herri mailan errugbia ezagutzera emateko eta dirua lortzeko primeran datorkigu. Kontuan izan gure aurrekonturaren %85 inguru lortzen ditugun sarrerei esker izaten dela.

Epaile ere ibiliko zara bihar...

Bai, urte guztian nabil eta... Epaile territoriala naiz eta Santander eta Iruñea bitartean jokatzen diren partiduak zuzentzen ditut. Zorionez, ikusle gutxi izaten dira epailearen sartze... Arrasateko beteranoekin jokatzen dut eta hurrengo egubakoitzean Bordelen jokatzeko gonbidatutu gaudet, Europa osoko beste 30 bat talderekin.

</div

Zaborra, arazo gogorra

KANPAINA Udala Ingurumen Eskolak eta Mankomunitateak zaborraren gaineko kanpaina egin dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Sentitu, pentsatu, ekin! diote Pirritx eta Porrotzek, eta leloa pailazoan ahotik zabor poltsetara pasa da. Ez balio ez duelako, baizik *Sentitu, pentsatu, ekin!* Zaborrarekin berdin! leloa baliatu dutelako Udala Ingurumen Eskolak eta Debagoieneko Mankomunitateak zaborraren arazoari buruzko kanpaina egiteko.

Ikasleei erakutsi nahi izan diete zaborrak zein arazo sor ditzakeen, nola tratatzten den, zein zabor mota dauden, zabor poltsaren osagaiak zein diren, birziklatzea nola egiten den, zein edukiontzia dauden... Horretarako, eskoletan egin dituzte tailerrak, diapositiba emanaldiak eta eztabaideak; eta Udala Ingurumen Eskolan ikasitakoa praktikatu dute zabor poltsak aztertuta, papea birziklatzen ikasita eta Zaborraren bila jolasean arituta.

MURAL ETA LELO LEHIAKETAK
Kanpaina amaitzeko bi lehiaketa antolatu dituzte: muralena eta leloena, hain zuzen ere.

LEHIAKETA Umeek lehiaketarako muraletan islatu dute nola ikusten duten zaborraren arazoa hemendik 50 urtera

LELOAK Hurrengo ikasturtean 'Mundu garbi mantendu dadin, denon artean lan egin' leloa erabiliko dute

Lehen Hezkuntzakoendako mural lehiaketan Eskoriatzako Luis Ezeizako LHko bosgarren mailakoek jaso dute lehen saria eta Bergarako Aranzadi ikastolakoek bigarrena. Eskoriatzakoek birziklatutako materiala era biliz egin duten muralean, besteak beste, zabor bilketarako edukiontzia guztiak, eguzki plakak eta energia eolikoa irudikatu dituzte. Bergarakoek bi zatitan banatu dute murala: batean zaborrari modu baikorrean begiratu diote eta era ezkorrean bestean. Izan ere, irudikatu behar zuten zaborraren gaia 50 urte barru.

DBHko ikasleendako leloen lehiaketan 27 lan jaso dituzte guzti eta irabazlea Bergarako Ipin-tza institutuko DBHko lehenengo maila izan da. *Mundua garbi mantendu dadin, denon artean lan egin* leloa asmatu dute eta horrek iragarriko du hurrengo ikasturteko kanpaina.

Aurten, leloari kasu eginez, ikasi dute zaborra arazoa dela sentituz gero, burua erabiliz birziklatzeari ekin behar diotela.



MURALA Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxekek materiala birziklatuz egin dute mural irabazlea.

GOIENKARIA

ahobero

"Zoriona aurpegian islatzen da eta ez dago makillajerik hori estaltzeko gai denik"

Marisa Jara > Modeloa

Nolako bihotza, halako aurpegia, dio esaerak, eta bihotza pozik dagoenean nori ez zaio gustatzen hori aurpegian erakusterik? Haserre edo triste egonez gero, bada aurpegi tristea makillajearekin disimulatzen saiatzen denik, baina zoriontasuna edo poza disimulatzeko beharrik bada?

iturri onetik

Loquilloren kontzertua izango da Aretxabaletako Andra Mari jaietan

Aretxabaletan hasiak dira Andra Mari jaiak gertatzen eta, besteak beste, kontzertuak antolatzen. Udaletik baieztu digute abuztuaren 15ean, zapatuan, Andra Mari Egunean, Loquilloren kontzertua izango dela plazan. Kontzertua debalde izango da, gainera. *Balmoral* kontzertu biraren barrua eskainiko du kontzertu hori. Hortaz, lan horretako abestiak entzuteko aukera egongo da.

piperraутса

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperraутса'

Bat bitan

Berez, lehen ere bitan banatutako alderdi batetik sortu zen EA, eta orain berari iritsi zaio bere zatiketa. Ez da sorpresa izan, aspaldidanik sentitzen zen bi alderdi zebiltzala borrokan hor barruan. Bi gutxienez, ze gaur aurkari ageri diren Iñaki Galdos eta Sabin Intxaurreaga aliatu izan ziren Begoña Erraztiren aurka kongresu batean, oker ez banago.

Dena den, ez dut uste *transfugismo* kasu baten aurrean gaudenik. Berba hori erabiltzen da kargudun bat edo gutxi batzuk pasatzen direnean konpetentziako alderdi batera. Eta hemen berriz Gipuzkoa mailako kargu guztiak (EAk zituen ia guztiak, bestalde) ados jarri dira alderdi berri bat sortzeko. Hauek nahi dute EAJ gogortu, besteek HB zibilizatu. Argitasun garaia dator euskal politikara.

ai, eñe!



Ohiko tapakia, jaiki barik han jateko egokia

Domekan sekulako biharamunarekin eta ohetik altxatu barik jateko gogoz esnatuz gero, asmakizun hoberik ezin da espero.

<http://vagos.wamba.com>



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Izenematea
Ekainaren Ietik 12ra
Matrikulazioa

Ekainaren 29tik uztailaren 3ra

ESKAINTZA AKADEMIKOA

MGEP

ETEO

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoaren Mantenimendua

- Administrazioa eta Finantzak
- Idazkaritza
- Merkataritza Kudeaketa eta Marketigna

www.mondragon.edu/gep www.eteo.mondragon.edu

eteo
ETEO, KOOP. E.